

**DISKRIMINAZIO
ANIZKOITZEKO
EGOERAN DAUDEN
IRUNGO EMAKUMEEN
ERREALITATEA**

AZTERLANA ETA LAN ILDOAK

PAREAN
Elkartea



1. SARRERA.....	5
TESTUINGURUA.....	6
DISKRIMINAZIOAREN ARDATZAK.....	9
PROIEKTUAREN HELBURUAK.....	11
METODOLOGIA.....	12
2. HURBILKETA KUANTITATIBOA.....	15
BIZTANLEAK SEXUAREN ARABERA.....	17
BIZTANLEAK AUZOKA.....	19
BIZTANLEAK ADIN-TARTEEN ETA SEXUAREN ARABERA.....	20
BIZTANLEAK, JAIOLEKUAREN, NAZIONALITATEAREN ETA AUZOEN/EREMUEN ARABERAKO BANAKETA.....	22
IKASKETA ETA ENPLEGU MAILA.....	23
PRESTAZIO SOZIALAK.....	24
MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA.....	25
UDAL BALIABIDEEN ERABILERA.....	27
UDAL-PROGRAMETAKO PARTE HARTZAILEAK SEXUAREN ARABERA.....	29
3. DISKRIMINAZIO ARDATZAK.....	31
3.1. JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA.....	32
SARRERA.....	33
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	36
BALIABIDEAK IRUNEN.....	46
NEURRI OROKORRAK.....	49
NEURRI ZEHATZAK.....	50
3.2. BIZI-ZIKLOAK / ADINA.....	53
SARRERA.....	54
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	56
BALIABIDEAK IRUNEN.....	69
NEURRI OROKORRAK.....	74
NEURRI ZEHATZAK.....	75
3.3. DIBERTSITATE FUNTZIONALA.....	77
SARRERA.....	78
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	81
BALIABIDEAK IRUNEN.....	92
NEURRI OROKORRAK.....	94
NEURRI ZEHATZAK.....	95
3.4. FAMILIA, GENEROA ETA SEXU-ORIENTAZIO ANIZTASUNA.....	99
3.4.1. FAMILIA ANITZAK.....	99
SARRERA.....	100
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	101
BALIABIDEAK IRUNEN.....	111
NEURRI ZEHATZAK.....	112
3.4. FAMILIA, GENEROA ETA SEXU-ORIENTAZIO ANIZTASUNA.....	115
3.4.2. TRANSEXUALITATEA.....	115
SARRERA.....	116
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	118
BALIABIDEAK IRUNEN.....	127
NEURRI ZEHATZAK.....	128

3.5.KLASE SOZIALA/ POBREZIA.....	130
3.5.1.SEXU-LANGILEAK.....	130
SARRERA.....	131
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	132
BALIABIDEAK IRUNEN.....	141
NEURRI ZEHATZAK.....	142
3.5. KLASE SOZIALA/ POBREZIA.....	143
3.5.2. GURUTZE GORRIA.....	143
SARRERA.....	144
AZTERTUTAKO ARDATZAK.....	148
NEURRI ZEHATZAK.....	150
4. ONDORIOAK.....	151
NEURRI ZEHATZEN LABURPENA.....	153
BIBLIOGRAFIA.....	169

1. SARRERA

TESTUINGURUA

Berdintasun-planek eta -politikek azken urteotan gero eta garapen handiagoa izan badute ere, diskriminazio anizkoitzarekiko kezka ez da beti agenda horretan egon. Hori dela eta, genero-berdintasunaren inguruan indarrean dauden politika publiko asko ez dira nahikoak emakumeek jasaten dituzten diskriminazio-egoerei modu integralean erantzuteko eta egoera horiei aurre egiteko.

Diskriminazioaren problematikari heldu izan zaionean diskriminazio-faktore bakar baten azterketatik abiatuta egin izadn da, nahiz eta askotan argi eta garbi onartu diskriminazio horretan batzen diren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela.

Berdintasun-plan eta -politika horiek ikuspegi bateratu batetik diseinatzerakoan, hau da, emakumeak kolektibo bakar eta homogeneo gisa ikusten dituen ikuspegi batetik, zenbait sektore baztertzea erraztu daiteke, izan ere, horren jakitun izan gabe, dauden botere-mekanismoak errepikatzen dira.

Diskriminazioaren arazoari heltzeko modu honek berrikuspina behar du. Batetik, errealitatea askoz konplexuagoa izaten delako eta bestetik, diskriminazioak kolektibo osoari modu homogeneoan eta maila berean eragiten ez diola argi dagoelako.

Zenbait kolektiborentzat kaltegarriak diren ondorio horiek saihesteko, "Interseksionalitate" politikoaren kontzeptua integratzen da (Crenshaw, 1989). Termino horrek kolektiboaren barruan dauden desberdintasunetan jartzen du arreta. Adibidez, emakumeek osatzen duten kolektiboaren barruan arrazak, klaseak edo sexu-orientazioak eragin ditzaketen interseksionalitateak. Adibidez, emakume arrazializatuak diskriminazioa jasaten dute, bai emakume izateagatik, eta bai pertsona arrazializatuak izateagatik ere.

Desberdintasunak artatzeko ikuspegi interseksionalago bat hartzeak, hau da emakume horiek jasan ditzaketen diskriminazio bikoitz edo agian hirukoitz horiek kontuan hartzen dituen ikuspegi bat hartzeak, politika publiko inklusiboagoak eta kalitate hobegokoak garatzea sustatuko du.

Diskriminazioa aztertzeko ikuspegi zabalago batek, -jarrera diskurtsibo, identitate desberdinak eta faktore estigmatizatzaileen arteko erlazioak barne hartzen dituenak-, hura aztertzeko hurbilketa ulerkorragoa eskainiko digu.

Baina, zer da interseksionalitatea?

Kontzeptu honen jatorria Amerikako Estatu Batuetan dago, non 70eko hamarkadaren amaieran kolektibo bereko zenbait pertsona, aldi berean desabantailan ziren beste taldetako kide izatearen inguruko hausnarketa sortu zen. Lehenik aktibismo feministatik, eta gero akademiatik, pertsona berarengan desberdintasunak nola elkarlotzen, gurutzatzen edo gainjartzen diren aztertu zen, diskriminazio-modu larri eta espezifikoak sortuz.

Bostongo al Combahee River Collective kolektiboko emakume afroamerikarrak izan ziren a "Black Feminist Statement (Manifestu Feminista Beltza)" izeneko testuan pairatzen zuten diskriminazio anizkoitza hitzez adierazten eta salatzen lehenak, 1977an.

"Zapalkuntzen aldiberekotasuna" adieraztearekin batera, ordura arte zeuden borroka estrategiak zalantzan jartzen dira, borroka hauek zapalkuntza sistemak lotuta daudela kontuan ez hartzeagatik. Mugimendu Beltza edota feminismoa dira kolokan jartzen diren borroka estrategiak.

Diskriminazio anizkoitzaren diskurtsoa 1980ko hamarkadaren amaieran aztertu zuen Akademiak. Zehazki, Zuzenbidearen luparekin eta "interseksionalitatea" terminoaren bidez. Kimberlé Williams Crenshaw irakasle estatubatuarra izan zen aitzindaria.

Interseksionalitatea zehatz-mehatz azaltzeko, egileak kaleen elkargunearen edo gurutzagunearen adibidea erabiltzen du:

Diskriminazioa, kale-elkargune bateko trafikoa bezala, norabide batean eta bestean gerta daiteke. Istripu bat elkargunean gertatzen bada, edozein helbidetatik datozen automobilek eragin dezakete, eta, batzuetan, helbide guztietatik aldi berean datozenek. Era berean, emakume afroamerikar bati bidegurutzean egoteagatik erasotzen badute haren zauriak sexu-diskriminazioaren edo arraza-diskriminazioaren ondorio izan daitezke.

Nahiz eta, zantzu guztien arabera, diskriminazio anizkoitza beti egon den eta haren inguruko ikerketa akademikoa duela lau hamarkada hasi zen, figura hau ingurune juridikoan integratzea oraindik berria da Mainer Moreno García migrazio eta feminismoan espezializatutako irundarrak adierazi digunez. Horren erakusgarri argiena gai hori aipatzeko erabili diren izendapen desberdinak dira, eta beraz, erabili beharreko terminologian adostasunik ez izatea.

Eztabaida airean dago oraindik, eta Akademiako zirkuluetan "diskriminazio interseksionalaz" hitz egiten den bitartean, Giza Eskubideen eremuan adierazpenik ohikoena "diskriminazio anizkoitza" da.

Ildo horretan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala nabarmendu behar da. Bertan, arrazoi ugariengatik diskriminazioa jasateko aukera aitortzen da eta arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politika edo bestelako jatorri sozial, nazional edo iritziagatik bereizketarik ez jasateko eskubidea jasotzen da.

Hala ere, 2001ean Durbanen egin zen Arrazakeria, Arraza-bereizkeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Nazio Batuen Konferentziaren Adierazpena arte ez da bereizkeria anizkoitzaren kontzeptua jasotzen. Testuak honako hau dio: *"Arrazismoa, arraza-bereizkeria, xenofobia eta intolerantzia arraza, kolore, naziotasun edo jatorri etnikoaren arabera gertatzen da, baina biktimek diskriminazio-modu ugari edo larriagoak jasan ditzakete, beste faktore batzuetan oinarrituta, hala nola, gizarte-jatorrian, jabetzan, jaiotzan edo beste estatus batean".*

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, arrazoiaren azalpenean (II) jasotzen duenez, emakume askok diskriminazio

anizkoitza jasaten dute; izan ere, sexuagatiko diskriminazioarekin batera, arraza, jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, desgaitasuna, ondarea, sexu-orientazioa eta antzeko faktoreen ondoriozko beste diskriminazio batzuk ere jasaten dituzte, eta horrek guztiak emakumeek duintasunez bizitzeko duten eskubidea baldintzatzen du.

4/2005 Legearen 3. artikuluko tratu-berdintasunaren printzipioak zehazten duenez, euskal herri-aginteez bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen edo emakume-taldearen oinarrizko eskubideak benetan gauzatzen direla bermatuko dute. Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izateko beharrezkoak diren programa eta zerbitzu espezifikoak egokitu eta sortzea ere bada toki-administrazioen eginkizuna, hala aitortzen du bederen Berdintasunerako Legeak.

Zentzu horretan, Irungo Udaleko Berdintasun Sailak diskriminazio anizkoitza pairatzen duten emakumeek bizi duten egoera aztertu nahi izan du. Horretarako, alde aurretik, emakume horien egoera, zailtasunak eta bizi-ibilbideak ezagutu nahi ditu azterlan honen bidez.

Berdintasuneko teknikariak berak argitu duenez, begirada zabaltzea eta sexu biologikoaz harago diskriminazio-modu gehiago daudela ulertzea da azterketaren helburua, eta faktore horiek bat datozenean emakumeen egoera are gehiago larriagotzen dela kontutan hartzea. *"Emakume horien errealitatea ezagutu nahi dugu, eta ikusi zer faktorek eragiten dioten bizi-kalitatea txikiagoa izateari, izan ere, diskriminazioak bizi-kalitatea murrizten baitu"*, gaineratu du.

Diskriminazio anizkoitzaren errealitatea IV. Berdintasun Planean jasotzen da lehen aldiz, 2017tik 2021era arteko iraupena duena. Diskriminazio anizkoitzaren gaiari heltzeko eskaria, plana egiteko parte-hartze prozesuan bertan ere agertu zen.

Diskriminazio anizkoitzaren gaiari sakontzeko, Udalak azterlan hau egiteko apustua egin du, espektroa zabaltzeko eta emakume horiek bizi duten errealitatea ezagutzeko. *"Emakume horien bizi-ibilbideak ezagutu nahi ditugu, haiengana hurbildu ahal izateko. Emakume horiengana iristeko modua findu nahi dugu"*, adierazi du teknikariak.

DISKRIMINAZIOAREN ARDATZAK

Gure azterlana emakume-izaerarekin identifikatzen diren pertsonetatik abiatzen da, eta haren helburua elkargune honetan batzen diren diskriminazioak behatzea eta aztertzea da.

Diskriminazio-ardatzek modu independentean eta elkarrengandik isolatuta jarduten dutenaren ideiak ez du kontuan hartzen benetako errealitatea, izan ere desberdintasun-ardatz guztiekiko dugun posizioaren emaitza da, eta ardatz horiek ere elkarren arteko harreman konplexua dute. Izan ere, inor ez da etorkina bakarrik, itsua bakarrik, adinekoa edo lesbiana, eta, aldi berean, pertsona bat emakumea, migratua, bisexuala eta desgaitasuna duena izan daiteke.

Eta konplexutasun hori guztia kontuan hartzen ez badugu, ziurrenik eskaintzen dugun erantzuna ez da izango haien premietarako egokia.

Desberdintasun edo diskriminazio-ardatzez hitz egiten dugunean, gizarte-baliabideak modu desorekatuan banatzeko erabiltzen diren arrazoiez ari gara. Horrela, pertsonak, kide diren gizarte-taldeen arabera, baliabide jakin batzuk eskuratzeko aukera gehiago edo gutxiago izaten dituzte.

Intersekzionalitatea kontzeptu gisa sexua, arraza eta klase sozialaren ardatzei estuki lotuta jaio zen, baina ez dago ardatzen zerrenda itxirik eta ezin da horien artean hierarkiarik ezarri.

Gaur egun, Europako testuinguruko politika publikoetan gehien lantzen diren ardatzak honako hauek dira:

- > Gizarte-klasea
- > Dibertsitate funtzionala/Ezgaitasuna
- > Adina/bizi-zikloak
- > Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- > Jatorria/Migrazioa
- > Arrazializazioa
- > Erlijioa/ Sinismenak
- > Sexua/Generoa

Egindako azterlanak emakume gisa identifikatzen diren pertsonak hartzen ditu abiapuntutzat, zis edo transexualak izan, eta honako elkargune hauetan batzen diren diskriminazioak aztertzen ditu:

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

1. JATORRIA/MIGRAZIOA/ARRAZIALIZAZIOA
2. BIZITZA-ZIKLOAK/ADINA
3. DIBERTSITATE FUNTZIONALA
4. FAMILIA, GENERO ETA SEXU-ORIENTAZIO ANIZTASUNA
5. KLASE SOZIALA/POBREZIA

PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuaren helburu orokorra hauek dira:

- Irunen diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeen errealitatea ezagutzea, beren burua emakume gisa aitortzen duten pertsonetatik abiatuta, izan zis edo transexualak.
- Ikerketa prozesu parte-hartzaile eta eraikitzaile baten bidez egin da gainera, emakumeei eta diskriminazio horiek lantzen dituzten elkarte edo kolektiboek hitza emanez.

Helburu espezifikoak ostera, honako errealitateen "argazkiak" lortzea dira:

- Irunen bizi diren emakume migratuen egoera.
- Irunen bizi diren eta dibertsitate funtzionala duten emakumeek bizi duten egoera ezagutzea.
- 65 urtetik gorako emakumeen egunerokoa aztertzea.
- Guraso bakarreko familien egoera ezagutzea, emakumea familia nukleoko tutore bakarra den guraso bakarreko familiak lehenetsiz.
- Emakume transexualek Irunen bizi duten errealitatera hurbiltzea.
- Sexu-langileen bizipenak ezagutzea.
- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan bizi diren pertsonen profilerak hurbiltzea, batez ere emakumeen egoera ezagutzea.

Argazki horiekin eta emakumeek diskriminazio-ardatz horien pean bizi duten egoeraren diagnostiko batekin, Administrazioari, zehazki Berdintasun Sailari, eremu hauetatik bultzatu beharreko neurrien zerrenda bat eskaini nahi diogu:

1. OSASUNA
2. HEZKUNTZA
3. KULTURA ETA KIROLA
4. ENPLEGUA
5. GENERO-INDARKERIA
6. GIZARTE-INKLUSIOA
7. HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

Halaber, azterlan honen helburua ere bada Administrazioaren (Berdintasun Zerbitzua) eta emakume horien arteko komunikazio-bide eraginkorrak aurkitzea.

METODOLOGIA

HURBILKETA KUANTITATIBOA

Hemen aurkezten den diagnostikoak funtsezko bi atal ditu. Lehenengoan, Irunen askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeek bizi duten errealitatearen hurbilketa kuantitatiboa egiten da.

Hurbilketa hori egiteko, datu kuantifikagarriak bildu dira, errealitate horren lehen erradiografia ikusi ahal izateko.

HURBILKETA KUALITATIBOA

- Hasteko, banakako elkarrizketa bat egin da Irungo Berdintasun-teknikariarekin, azterlanak jarraitu beharreko ildo nagusiak marrazteko.
- Bigarrenik, Maider Moreno García elkarrizketatu dugu interseksionalitatearen kontzeptura hurbildu eta ikerketa prestatzeko. Irundar gazte hau Madrilgo Unibertsitate Konplutensean, Pariseko Goi Ikasketen Eskolan eta Sorbonan izan da, migrazioan eta feminismoetan espezializatzeko.

Elkarrizketa generikoago horiek egin ondoren, diskriminazio-ardatz bakoitzean partaidetza-prozesuak gauzatzen saiatu gara, diskriminazio anizkoitz horren biktima diren emakumeek beren egunerokotasuna lehen pertsonan azal zezaten.

1. JATORRIA/MIGRAZIOA/ARRAZIALIZAZIOA

- Lau eztabaida-talde garatu ditugu “Entre Nosotras” programan parte hartzen duten emakumeekin.
- Elkarrizketa sakona egin diegu programaren dinamizatzailerei.

2. BIZITZA-ZIKLOAK/ADINA

- Hurkoa irabazi-asmorik gabeko erakundeko kideei elkarrizketa. Hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adinekoen edo gaixotasun mentala dutenen eskubideak defendatzen dituen elkarte da Hurkoa.
- Elkarrizketa Maritxu San Pedrori, feminisмотik adinekoekin lan egiten duen emakume irundarrari.

3. DIBERTSITATE FUNTZIONALA

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINKO IKERKETA

- Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzailea den Elkartuko Rosa Ugarteri egin diogu elkarrizketa, bertako berdintasun arloa gidatzen du.
- Ainhoa Fiz irundarrari elkarrizketa, Atzegi elkarteko Bizitza Independentea proiektuaren arduraduna da eta baita berdintasun-gaien arduraduna ere.

4. FAMILIA, GENERO ETA SEXU-ORIENTAZIO ANIZTASUNA

- Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkartera jo dugu eta bertako kide den gipuzkoar batekin egin dugu elkarrizketa, guraso bakarreko bi seme alaben ama da bera.
- Aita buru duen Irungo guraso bakarreko familia batekin egon gara.
- Sarai Montes emakume transexualari egin diogu elkarrizketa , Errespetuz transexualen aldeko mugimenduaren sortzailea da Montes.

5. KLASEA/POBREZIA

- Sexu-langileen errealitatea ezagutzeko, Arrats elkarteko Aukera programako bi langileri egin diegu elkarrizketa.
- Saioa Errazquin Mirón Gurutze Gorriak Irunen duen arduradunari elkarrizketa egin diogu, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan bizi diren pertsonen egunerokoa ezagutzeko.

2. HURBILKETA KUANTITATIBOA


IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

Atal honetan, gure herrian hainbat aldagairengatik diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek bizi duten errealitateari buruzko hurbilketa kuantitatiboa egingo dugu, haien kantitatearen eta ezaugarri soziodemografiko orokorrenen panoramika lortzeko.

BIZTANLEAK SEXUAREN ARABERA

2020ko urtarrilaren 1ean, Irungo biztanleria 62.910 pertsonakoa zen, 2019an baino 509 biztanle gehiago.

32.151 emakume eta 30.759 gizon. Beraz, emakumeak gizonak baino gehiago dira hirian, emakumeak % 51,10 izanik.



Iturria: INE

Biztanleria-hazkunde hori erakusten duten datuak Gipuzkoako beste udalerrri batzuen antzekoak dira:

UDALERRIAK	BIZTANLEAK	DESBERDINTASUNA (2019)
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN	188.240	+825
ERRETERIA	39.540	+69
EIBAR	27.769	+247
HONDARRIBIA	16.881	+53
OIARTZUN	10.309	+16

Iturria: INE

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

Hala ere, 2020ko datuek hazkunde begetatibo negatiboa erakusten jarraitzen dute, jaiotzak baino 93 heriotza gehiago egon baitira. Horrek adierazten du jaiotza-kopurua txikiagoa dela heriotzena baino eta beraz, biztanleria-hazkunde hori immigrazioari esker baino ez da azaltzen.

BIZTANLEAK AUZOKA

AUZOA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	%
ANAKA	3.260	3.240	6.500	10,29
ANZARÁN	916	1.024	1.940	3,07
ARBES	2.500	2.565	5.065	8,02
ARTÍA	3.216	3.140	6.356	10,06
BEHOBIA	559	560	1.119	1,77
BELASKOENEA	1.329	1.361	2.690	4,26
CENTRO	2.238	2.527	4.765	7,54
DUNBOA	1.184	1.261	2.445	3,87
ELITXU-LAPIZE	4.322	4.449	8.771	13,88
LARREAUNDI-OLABERRIA	2.803	2.940	5.743	9,09
MEAKA-IBARLA	253	239	492	0,78
PARTE VIEJA	1.696	1.835	3.531	5,59
PINAR	984	1.096	2.080	3,29
POBLADO URDANIBIA	229	216	445	0,70
SAN MIGUEL	1.895	1.949	3.844	6,08
SANTIAGO-BERAUN	1.614	1.826	3.440	5,44
VENTAS	2.013	1.944	3.957	6,26

Irungo auzo jendetsuenak Elitxu-Lapize, Anaka, Artia eta Larreundi-Olaberria dira.

BIZTANLEAK ADIN-TARTEEN ETA SEXUAREN ARABERA

ADINA	GIZONAK	GIZONEN %	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %	GUZTIRA
0- 4 URTE	1.154	50,39	1.136	49,61	2.290
5- 9 URTE	1.483	52,95	1.318	47,05	2.801
10- 14 URTE	1.613	51,06	1.546	48,94	3.159
15- 19 URTE	1.653	51,29	1.570	48,71	3.223
20- 24 URTE	1.633	51,84	1.517	48,16	3.150
25- 29 URTE	1.528	51,07	1.464	48,93	2.992
30- 34 URTE	1.626	51,57	1.527	48,43	3.153
35- 39 URTE	2.018	50,95	1.943	49,05	3.961
40- 44 URTE	2.550	51,23	2.428	48,77	4.978
45- 49 URTE	2.833	51,96	2.619	48,04	5.452
50- 54 URTE	2.597	50,58	2.537	49,42	5.134
55- 59 URTE	2.247	48,72	2.365	51,28	4.612
60- 64 URTE	2.021	48,80	2.120	51,20	4.141
65- 69 URTE	1.746	47,93	1.897	52,07	3.643
70- 74 URTE	1.573	46,22	1.830	53,78	3.403
75- 79 URTE	1.202	44,27	1.513	55,73	2.715
80- 84 URTE	729	39,38	1.122	60,62	1.851
85- 89 URTE	570	36,17	1.006	63,83	1.576
90- 94 URTE	188	26,29	527	73,71	715
95- 99 URTE	44	21,89	157	78,11	201
100- 104 URTE	2	6,90	27	93,10	29
105- 109 URTE	1	25,00	3	75,00	4

Iturria: Eustat

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

Irunen 65 urtetik gorako biztanleak 13.085 dira (5.507 gizon eta 7.578 emakume), hau da, % 20,8.

65 urtetik gorako pertsona gehien bizi diren auzoak Elitxu-Lapize, Anaka, Erdialdea eta Larreaundi-Olaberría dira.

Ikus dezakegunez, adinak gora egin ahala, emakumeen proportzioa ere handitu egiten da. Beraz, hiriko adineko pertsona gehienak emakumeak dira.

BIZTANLEAK, JAIOLEKUAREN, NAZIONALITATEAREN ETA AUZOEN/EREMUEN ARABERAKO BANAKETA

INEk 2020ko udal-errolatik argitaratutako datuen arabera, Irungo udalerrian erroldatutako biztanleen % 37.97 (23.890) Irunen jaio da, % 47.05k Espainiako hainbat tokitatik emigratu dute Irunera, % 24.26k (15.264) Gipuzkoako beste udalerrri batzuetatik, % 1.65ek (1.035), Euskal Autonomia Erkidegoko beste probintzia batzuetatik, % 21.14 (13.301) beste autonomia-erkidego batzuetatik eta % 14.97ak (9.420) beste herrialde batzuetatik.

INEk erroldaren estatistikan emandako datuen arabera, Irunen erroldatutako 9.420 biztanle beste herrialde batzuetan jaio dira.

- > 4164 biztanle, 1633 gizon eta 2531 emakume, Ameriketan jaiotakoak.
- > 1708 biztanle, 1070 gizon eta 638 emakume, Afrikan jaiotakoak.
- > 538 biztanle, 296 gizon eta 242 emakume, Asian jaiotakoak.
- > 9 biztanle, Ozeanian jaiotakoak, 5 gizon eta 4 emakume.

Nazionalitateen arabera, Kolonbian jaiotakoak % 10,2 dira, Marokon % 9,5, Frantzian % 7,1 eta Brasilen % 4,6¹.

Erroldatutako atzerritarren tasa altuena duten auzoak Elitxu- Lapice dira, auzoan bizi diren biztanleen % 19,06; ondoren, San Miguel eta Artia daude; % 10,51 eta % 10,08, hurrenez hurren.

1 2019KO BIZTANLERIAREN URTEKARI ESTADISTIKOA: <https://www.irun.org/down/Anuario-Estadistico-Poblacion-2019.pdf>

IKASKETA ETA ENPLEGU MAILA

IKASKETA MAILA	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %
ANALFABETOAK	39	93	70,45%
TITULAZIORIK GABEAK	1.352	1.489	52,41%
OINARRIZKO IKASKETAK	9.572	11.091	53,67%
PROFESIONALAK	2.643	1.662	38,60%
BIGARREN MAILAKOAK	7.981	6.812	46,04%
ERDI-MAILAKO IKASKETAK	745	2.422	76,47%
GOI-MAILAKO IKASKETAK	3.204	3.668	53,37%

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren datu estatistikoak

Irungo populazioan, 2020. urtearen amaieran, guztira 3 391 pertsona zeuden langabezian; hau da, %11,71ko langabeen tasa zegoen; gehienak 45 urtetik gorakoak dira, % 51,25, eta sexuaren arabera:

- Emakumea: 1955 (57.65%)
- Gizona: 1436 (42.35%)

Iturria: Lanbide

PRESTAZIO SOZIALAK

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Behagiren datuen arabera, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren programa 179 lagunek jaso zuten 2019an, horietatik 139 emakumeak, % 77,65ek.

GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA (GLL)

2019an, 860 eskaera izapidetu ziren Irungo Udalean; horietatik 600 emakumeentzako ziren, eskaeren % 69,77.

Eskatzaileetatik 267 pertsona, 60 urtetik gorakoak ziren.

Iturria: Gizarte ongizatearen memoria

KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOA

2019an, laguntza horietatik 405 izapidetu ziren, eta horietatik 249 emakumeak ziren, % 61,5.

Iturria: Gizarte ongizatearen memoria

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

Hiriko 1265 pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratu zuten horietatik 805 emakumeak ziren, % 63,63.

Ikus daitekeenez, izapidetzen dituzten gizarte-prestazio gehienak emakumeei zuzenduta daude, eta laguntza guzti-guztietan onuradunen gehiengoak emakumeak dira, nahiz eta batzuetan, hala nola GLLen kasuan edo Sendian programan, familia-premietara bideratuagoak egon.

MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA

Mendekotasuna duten eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretari dagokionez, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak desgaitasuna eta mendekotasuna baloratzeko eskaerak izapidetzen jarraitzen du.

Pertsona baten mendetasun-egoera aitortzea errazten duen tresna da, eta nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua izan errekurtsoren ebazpenaren arduraduna, eskaera Irungo Gizarte Zerbitzuen bidez izapidetzen da.

Indicadores básicos de Irun

Bloque	Indicadores y variables	Irun		
		2019		
		Hombres	Mujeres	Total
Necesidades sociales	A07 Personas de 65 y más años con dependencia a 31/12	464	1.125	1.589
	A08 Tasa de dependencia entre las personas de 65 y más años (%)	8,13	14,43	11,77
	A09 Personas de 18 a 64 años con dependencia a 31/12	247	179	426
	A10 Tasa de dependencia entre las personas de 18 a 64 años (%)	1,27	0,94	1,11
	A11 Personas con grado de discapacidad entre 33%-74% a 31/12	1.797	1.263	3.060
	A12 Tasa de personas con grado de discapacidad entre 33%-74% (%)	5,89	3,96	4,9
	A13 Personas con grado de discapacidad igual o superior al 75% a 31/12	315	333	648
	A14 Tasa de personas con grado de discapacidad igual o superior al 75% (%)	1,03	1,04	1,04
	A15 Personas de 18 a 64 años con grado de discapacidad igual o superior al 75% a 31/12	169	135	304
	A16 Tasa de personas de 18 a 64 años con grado de discapacidad igual o superior al 75%	0,87	0,71	0,79

Azken urtean, mendekotasuna baloratzeko 966 eskaera eta desgaitasuna baloratzeko 560 kudeatu dira. Mendekotasunaren Legearen ondoriozko prestazio ekonomikoen onuradun izateko eskabidea 424 pertsonak aurkeztu dute.²

Nabarmentzekoa da polizia-zerbitzuekin (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) dagoen lankidetzaren, adineko pertsonen babesgabetasun-egoerak detektatzeko esku-hartzeetan. 45 egoeratan jardun da poliziaren parte jaso ondoren.

2 <http://behagi.eus/es/indicadores/irun/p-152/>

UDAL BALIABIDEEN ERABILERA

Udal baliabideen erabilerak lortzeko, udalaren urteko memorieta jo dugu, batez ere Gizarte Ongizate Sailera. Ia programa guztien datuak sexuaren arabera bereizita daude.

ERROLDA SOZIALA

%13 emakumeak.

ZUBIA ZENTROA

Zubia zentroan 2019an zehar, eguneko arretan, 841 pertsona artatu dituzte, horietatik 135 emakume, % 16a. Gaueko arretan aldiz, emakumeak % 13 izan dira.

ADINEKO ZENTROAK

Herriko adinekoentzako zentroek eskainitako jarduera guztietan emakumeen presentzia handiagoa izan da.

KIROLDEGIAK

Hiriko kiroldegietan abonatuak dituzten pertsonen kopuruak honako dira:

ADINA	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %
00-04 URTE	159	163	%50,62
05-09 URTE	374	297	%44,26
10-14 URTE	211	167	%44,17
15-19 URTE	206	126	%37,95
20-24 URTE	216	119	%35,52
25-34 URTE	473	355	%42,88
35-44 URTE	761	653	%46,18
45-54 URTE	585	508	%46,47
55-64 URTE	337	314	%48,23

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

65-74 URTE	148	182	%55,15
75-100 URTE	33	46	%58

Emakumeak gutxiengoa dira adin-tarte guztietan, lehenengoan eta azken bietan izan ezik.

ESKOLA-KIROLA

Eskola-kirolari dagokionez ere, parte-hartzea oso desberdina izan da 2019-2020 ikasturtean: 186 neskek (% 22) eta 658 mutilek (% 78) parte hartu zuten.

Neska entrenatzaileak ere gutxiengoa dira (% 38).

Iturria: Kultura eta Kirola Saila

UDAL-PROGRAMETAKO PARTE HARTZAILEAK SEXUAREN ARABERA

2019ko datuak:

VIA IRUN

Sexuaren araberako segmentazioari dagokionez, % 44 emakumeak dira, % 56 gizonak. Parte-hartze presentzian ehunekoak mantendu egiten dira (% 45-% 55), telefono bidezko kontsultan gora egiten du (% 62-% 38), paperezko galdeketetan eta erakusketara egindako bisitetan, berriz, behera egiten du emakumeen parte hartzea (% 41-% 59) eta are gehiago parte-hartze digitalean (% 36-% 61).

ESKOLAN (Lagunekin Baratzean/Mimarte/Zineskola)

%50a emakumeak.

BIGARREN MAILAKO MENDEKOTASUNEN PREBENTZIOA

%53a emakumeak.

MEDIO ABIERTO (banakakoak eta taldekoak)

%50a emakumeak.

ADIKZIOEN ZENTRORAKO GARRAIO-LAGUNTZAK

Onuradunen % 17 emakumeak dira.

INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA/PSBC

%6a emakumeak.

PREBENTZIOA JAIEGUNETAN (Testing/Botiltzarra/Alcoholemiasinformativas/Lonjalaket)

%51a emakumeak.

GURASOEKIN ETA GAZTEEKIN

%75eko parte-hartzea emakumezkoa.

ADIKZIOAK PREBENITZEKO IV. TOKIKO PLANA

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINKO IKERKETA

Parte-hartzaileen % 63 emakumeak izan dira.

IMMIGRAZIO JARDUERAK, GFArekin lankidetzan

Emakumeen % 56.

BITARTEKARITZA SOZIO-KULTURALA

%55 emakumeak.

AHALDUNTZE ESKOLA /AUTOESTIMU TAILERRA

%100 emakumeak.

M8 ETA A25 EGUNETAKO SENTSIBILIZAZIOA

Parte-hartzearen %50a emakumeak.

IRUN BELDUR BARIK (Tailerrak – lehiaketa – ikuskizuna)

%52a emakumeak.

JAIK BERDINTASUNEAN KANPAINA

Emakume parte-hartzaileak %79a izan ziren.

EMAKUMEEN EKARPENA HISTORIARI/ERANTZUNKIDETASUNA

%66 emakumeak.

GAZTEEN OSOKO BILKURA

Bertan, % 47 emakumeak izan ziren.

ORBEL HAIZEA

Bertan, % 53 emakumeak izan ziren.

Iturria: Gizarte ongizatearen memoria

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA

2019an 88 emakume artatu dira, indarkeria matxistari aurre egin diotenak. Martxan jarri behar izan diren baliabideei dagokienez, aipatu behar da 11 emakume eta haien seme-alaba adingabeek babesa emateko etxebizitzetan ostatu hartu behar izan dutela. Arreta psikologikoko programaren barruan 38 emakume artatu dira.

3. DISKRIMINAZIO ARDATZAK

3.1. JATORRIA- MIGRAZIOA - ARRAZIALIZAZIOA

SARRERA

Bertakoak ez diren pertsonak herrialde batera egiten duten migrazio-mugimendua da immigrazioa. Inmigrazioz herrialde batera etorritako pertsonak immigrante edo etorkin gisa dira izendatuak.

Migrazio-fenomenoa batez ere gizonek egindako jarduera bat izan da orain dela hamarkada batzuk arte; errealitate hori, baina, aldatu egin da. Gaur egun, asko dira beren etxeak eta familiak atzean utzi eta bizirauteko aukera hobeen bila migratzen duten emakumeak. Batik bat lan bila eta bizi-baldintza hobeen bila abiatzen dute migrazio mugimendua, bai eurentzat eta baita beren familientzat ere.

Oro har, hiru elementuk baldintzatzen dute migrazio mugimendua, eta hiru elementu horiek isolatuta edo elkarri lotuta ager daitezke³:

1. **Faktore ekonomikoak** (pobrezia, desberdintasuna, jatorrizko gizartean bizirauteko aukera eza eta/edo harrerako herrialdea erakartzea).
2. **Faktore sozial eta politikoak**. Gerra eta jazarpen politikoekin zerikusia duten egoerek bultzatuta. 2018an, jazarpenaren, indarkeriaren, gatazka armatuen edo giza eskubideen urraketan ondorioz munduan bortxaz desplazatutako biztanleak 2,3 milioi gehiago izan ziren aurreko urtearekin alderatuta, eta 70,8 milioitan kokatuz⁴.
3. Jatorrizko herrialdeko **faktore kulturalak**, hala nola emakumearen papera, diskriminazioa edo genero-indarkeria; bizi duten kontrol patriarkal handiaren aurrean askatze-nahia edo autonomia handiagoaren desira. (Lipszyck, 2004)

Emakume izateari migratzaile izatea gehitzen bazaio, aldi berean diskriminazio mota ezberdinak jasateko aukera handiagoa da, emakume horiek egoera sozial ahulagoan kokatuz. Eskubideen urraketa horiek are nabarmenagoak dira gainera, zenbat eta deigarriagoak izan migratutako pertsonen desberdintasun fisikoak. Hizkuntza, beloa edo azalaren kolorea oztopo bihurtzen dira emakume horien integrazioan.

"Migratzaile errumaniarrei, errumaniar ijitoei izan ezik, harrera nahiko ona egiten digute Irunen. Beharbada, fisikoki belodun emakumeak bezainbeste nabarmentzen ez garelako". (Entre Nosotras taldeko parte-hartzailea)

Emakume migratzaileak ertz askotariko subjektu esplotatu gisa agertzen dira. Alde batetik, migrazio-diskurtsoek, tradizionalki gizonak protagonista hartuta eraikiak, emakume migratuak ikusezin bihurtzen dituzte, bigarren edo hirugarren mailako herritar gisa tratatuz. Eta, bestetik, gizarte hartzaileetan, kolektibo horrek oso errotuta dauden estereotipoen aurka borrokatu behar du,

³ https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/53711/1/tesis_maria_jose_escartin_caparros.pdf

⁴ Informe CEAR 2020: https://www.cear.es/wp-content/uploads/2020/06/Informe-Anual_CEAR_2020_.pdf

estereotipo horiek mendekotasunarekin lotu eta objektu bihurtzen dituzte emakume etorkinak oro har.

Atzerritartasun lege bidegabeak okerren ordaindutako eta ikusezin bihurtutako lan hutsuneak betetzera behartzen ditu emakume etorkinen kolektiboa: etxeko lanak, zaintza lanak eta sexu lanak. Guztiak merkatu informalaren iluntasunean dauden esplotazio handiko lanak.

Gipuzkoako lurralde historikoaren barruan, Irun da migratzaileen ehuneko handiena duen udalerrietako bat, biztanleen %10 gaindituz. Europara doazen pertsonentzako igarobide izateaz gain, Irun migratzaile askoren bizileku ere bada, 2019an, adibidez, biztanleriaren %14,84 zen etorkina.

Abiatu baino lehen, emakume migratuaren kontzeptura gerturatu eta zehaztapen terminologiko bat egin nahiko genuke. Kontzeptu hori erabiliko baitugu hemendik aurrera Espainiako Estatua ez den herrialderen batean jaio eta Irunen bizi diren emakumeak izendatzeko.

Nazionalitatean baino, arreta jaioterrian jartzea egokiagoztat jotzen dute azterlan dezentek, izan ere administrazio-egonkortasuna edo nazionalizazioa lortzeak ez du zertan euskal gizartean erabateko integrazioa ekarri behar.

Azvimarratzekoa da emakume migratzaileen profilak askotarikoak direla, bai lanbide-prestakuntzaren aldetik, bai adinaren, familia-motaren edo migratzeko arrazoiaren aldetik. Hala eta guztiz ere, haiei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak asko dira.

ETORKIZUN HOBEA. MIGRAZIO-MUGIMENDUEN ARRAZIOA

Gaur egun, emigratzeko arrazoietakoa bat, esan bezala, motibazio ekonomikoa da. Gatazka eta desberdintasun sakoneko testuinguru batean bizi gara; baliabide material gehienak munduko zati txiki baten esku daude, gehiengo bizitza duin baterako ezinbestekoak diren gutxienekoen jabe ez den bitartean. Eta horrelako egoeretan, prekaritate material eta perspektiba falta nabarmena den egoeretan, immigrazioa da geratzen den bide bakarra.

Azterlan honetarako elkarrizketatutako emakume guztiek bizi-kalitate hobearen bila joateko ekin zioten migrazio-proiektuari; agian ez hainbeste haientzat, baina bai beren seme-alabentzat. Honi genero berezikeriagatik zaugarritasun handiagoa gehitu behar zaio, ondoko testigantzan ikus daitekeen bezala:

"2012. urtean utzi nuen Nikaragua. Bikote harreman zail batetik ihes egin behar izan nuen, indarkeria matxista jasateko beldurrez. Nire seme-alabak amaren ardurapean utzi nituen, eta zaintza lanetan etxe batean bizi eta lan eginez diru pixka bat aurreztu eta nire herrialdera itzultzea zen asmoa, nire seme-alabei etorkizun hobea emateko". (Raquel, Nikaragua)

ADMINISTRAZIO-EGOERA

Emakume migratuek bizi duten egoera administratiboak erabat baldintzatzen du euren eguneroko bizimodua. Emakume horiek egin behar duten erregularizazio-prozesua gertutik ezagutzeko, indarrean dauden atzerritartasun-legeen errebaso txiki bat egingo dugu.

Nabarmentzekoa da Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetatik iristen diren pertsonak, beren egoera erregularizatzen dutela iritsi bezain laster eta zailtasun handirik gabe.

Gehienak, ordea, ikasle edo turista gisa jasotzen duten bisarekin iristen dira herrialdera, eta bisa horrek soilik hiru hilabetez bizitzeko aukera ematen die. Hiru hilabete horien ondoren, egoera irregularrean gelditzen dira, egoitza-baimena eskuratzeko legeak ezarritako baldintzak ezin baitituzte bete-eta.

Hiru urte horietan lan-baimena ere ukatu egiten zaie, eta horrek ezkutuko ekonomiako lanik prekarioenak egitera bultzatzen ditu. Hemen bizirauteko beharraz gain, askok beren familiei dirua bidali behar diete. Batzuek, gainera, emigratu ahal izateko zorpetu egin ziren eta zor hura kitatu beharra dute.

Hiru urtez egoera irregularrean egon ostean, salbuespenezko egoerengatik egoitza-baimena eska daiteke, zehazki, Gizarte Errotzeagatik. Baimen hori eskuratu ahal izateko azken 3 urteetan Espainiako estatuan bizi izan dela egiaztatu behar da, bai eta aurrekari penalik ez dituztela ez Espainian, ezta jatorrizko herrialdean ere. Horrez gainera, lanaldi osoko urtebeteko lan-kontratu baten jabe izan behar du etorkinak, besteak beste.

Irunen emakume migratuek bizi duten egoerara hurbiltzeko xedez, emakume migratuz osatutako lau talderekin egon gara, zehazki 23 emakumerekin. Zirkulu horiek guztiek Gizarte Ongizateak sustatzen duen "Entre Nosotras" proiektua osatzen dute. Irunera iritsi berri diren emakumeekin autoestimua edo trebetasun sozialak lantzea du helburu, haiekin eta haienganako konfiantzazko espazio seguru bat sortuz.

Gainera, Verónica Murari eta Laura Morales lan-talde horiek dinamizatzen dituzten kultur bitartekariekin bi elkarrizketa sakon egin ditugu. Eta azkenik, Irunen bost urte baino gehiago daramaten eta proiektu honetan parte hartzen ez duten lau emakume migratu elkarrizketatu ditugu ere.

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Emakume migratzaileek oztopoak aurkitzen dituzte osasungintzaren sarbidean. Hala egiaztatzen du emakume etorkinen EAEko gizarte, osasun, hezkuntza eta lan-arloko esku-hartzeei buruz Emakundek bultzatutako azterlanak⁵.

Osasun-sistemaren funtzionamendua bera eta eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko ezezagutza da etorkinek aurkitzen duten zailtasunetako bat.

Bestalde, emakume migratzaileek duten denbora eskasia dago. Haien lan-egoerak, gehienak zaintzari edota ostalaritzari lotutako lanetan, zaildu egiten du osasun-sistemara askatasunez sartzea. Betetzen dituzten lanen ezaugarri nagusiak ezegonkortasuna, lanaldi luzeak eta enplegatzailearen ulermen eskasa izan ohi dira-eta.

Emakume horietako askok pairatzen duten egoera irregularrak ere osasun-sistema erabiltzea baldintzatzen die; haien egoera irregularra antzeman eta kanporatuak izateko arriskuan direla uste baitute.

Hizkuntza ere muga bihurtzen da osasungintzan; bai emakumeak bere osasun-arazoa azaltzerako orduan, zein arreta ematen dioten langileentzat.

Komunikazio-arazo horiek agerikoak izanik ere, Euskal Osasun Zerbitzuak ez du osasun-langileen eta pazientearen artean itzultzaile gisa jarduten duen bitartekari-figurarik.

Hizkuntza-oztopo horiek, baita emakume migratuen hizkuntzan dauden modismoek ere, baldintza desorekatuetan jartzen dituzte emakume migratuak osasun-arreta jasotzerako orduan (hori areagotu egiten da gainera desgaitasuna duten emakumeen artean).

Emakume migratuek abiatu behar duten erregularizazio-prozesuaren esparruan, errotze soziala lortu arte, errolda-ziurtagiria giltzarri bihurtzen da baliabideak eta laguntzak izateko. Hori da osasun publikorako sarbidea ere.

"Pasaportearekin eta erroldarekin, egoera irregularrean egonda ere, medikua eska daiteke, osasun-txartela ordezkatzeko duen orri bat ematen dizute, OTI batekin". (Verónica Murari, Irungo Udalarekin elkarlanean aritzen den kultur bitartekaria)

Hala ere, nabarmendu behar da hain oinarrizkoa dirudien errolda lortzea ez dela lan erraza emakume migratuentzat; izan ere, eskura ditzaketen etxebizitza-alokairu guztiek ez dute kontraturik, eta hauek ezinbestekoak dira erroldatzeko orduan.

5 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/B-2_2010.pdf

"Lau urteko neskato baten kasua dugu, ezin da eskolara joan alokairu-kontratua iraungi zaiolako, eta, beraz, amak ezin du neskatoa inongo ikastetxetan matrikulatu. Etxean dauka eta amak ere ezin du lanik egin norekin utzi ez duelako ". (Veronica Murari)

Entre Nosotras saioan parte hartzen duten emakume guztiek erroldatuak daude dagoeneko, eta, egia esan, elkarrizketatutako emakumeek ez dute kexa handirik gure osasun-sistemaren inguruan.

"Ez dut inoiz arazorik izan. Beti deitzen didate eta ez didate galdetzen ea paperak behar bezala ditudan ". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

"Alaba Irunen izan nuen eta oroitzapen zoragarria dut. Donostian jaio zen, baina haurdunaldiaren jarraipena Irungo ospitalean egin zidaten eta dena primeran joan zen". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

Osasun mentalaren esparruan, emakume migratuek bizi duten egoera latza nabarmendu nahi dugu, are gehiago pandemia eta konfinamendu egoera honetan. Alde batetik, inposatu zaigun mugikortasun murriztuak eragotzi egiten die emakume migratuei beren jatorrizko lekuetara itzultzea, maite dituzten pertsonak bisitatzera. Bestalde, Covid-19ak sortutako egoerak krisi ekonomikoa areagotu du, ahulenak gehiago kolpatzen dituena. Emakume migratuek lehen zituzten diru-sarrera urriak arriskuan ikusi dituzte azken hilabeteetan.

"Gure taldeak barrenak hustu eta entzute aktiborako gune bihurtu dira, pandemia gogor jotzen ari da eta ahulenen artean gehiago. Depresioa eta antsietatea gai zerrendan daudela uste dut". (Laura Morales)

Emakume migratzaileak eta osasuna gaitzat hartzen duen Emakunderen bekarako⁶ elkarrizketatutako profesional askok baieztatzen dutenez, emakume etorkinek dituzten osasun-arazoetako batzuk beren egoeraren ondorio dira. Dolua, familia-galerak eta kargak jatorrizko herrialdean, gabezia sozialak, bikote-harremanen aldaketa eta lan-gainkarga dira emakume horiek osasun-egoera egokia izatea eragotzen duten baldintzetako batzuk, besteak beste.

Oro har, osasungintza alorreko-langileek generoaren eta immigrazioaren arloan sentibilizatu egin behar dute, diskriminazioa sustatzen ez duten esku-hartze ereduak garatzeko, emakume horiek estereotipatetik aldentzen diren jarduera toleranteagoetara heltzeko . Bakoitzaren egoera kontuan hartuta eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, erraztasunak eman behar dituzte.

6 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/B-2_2010.pdf

HEZKUNTZA

Hezkuntzaren eremuan, bi multzo handi bereizten dira. Alde batetik, emakume migratuen prestakuntza bera eta, bestetik, haien seme-alaben hezkuntza, adingabe horietako batzuk migratzaileak dira, baina beste asko gurean jaiotakoak dira.

EMAKUME MIGRATZAILEEN PRESTAKUNTZA

Emakume migratuen prestakuntzari dagokionez, Espainiar estatutik kanpo egindako ikasketak homologatzeko zailtasunak nabarmenak dira. Alde batetik, erdi-mailako ikasketak baliokidetzeko prozesua nahiko erraza bada ere, homologazioa ez dator bat hemen egindako ikasketekin.

"Hemen batxilergo humanistiko, zientifiko eta artistikoa dugu eta horrela baloratzen da goi mailako ikasketak egiterako orduan. Homologatzen diren batxilergoak ordea, orokorrak eta abizenik gabeak dira, eta, beraz, batxilergoa kanpoan egin duten gazteak ilaran azkenak geratzen dira goi-mailako ikasketak aukeratu ahal izateko".(Laura Morales)

Unibertsitateko ikasketen kasuan, prozesua bera odisea bihurtzen da; urteak eta diru asko eraman ditzake eta, gainera, emakumearen jatorrizko herrialdearen mende dago.

"Zure herrialdeko unibertsitateko paperak lortzea ez da lan erraza, itzultzea, legeztatzea... eskuartean ez dugun diru piloa suposatzen du". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

Ikasketak homologatzeko arazoez gainera, hizkuntza bera ere oztopo bat da. Hizkuntzak sozializazioarekin hartu eman argia du eta aztertutako ardatz guztiei eragiten die. Ikasteko denbora edukitzea eta ikasteko erraztasunak zaildu edo bizkortu egiten dute hizkuntza ikasteko prozesua.

Irunera etorri berri diren emakumeentzat gaztelania ezagutzea ezinbestekoa da eta Helduentzako Eskolan bada atzeritik etorritako pertsoneri espresuki zuzendutako programa bat, gaztelania ezagutu eta haren ezagutza zabaltzeko. Gurutze Gorriak ere halako ikastaroak eskaintzen ditu bere egoitzan.

"Helduentzako eskolara gaztelania ikastera joaten naiz eta gustura nago. Gaztelania praktikatu eta jendea ezagutzen dut bertan". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

Gaztelania ezinbesteko baldintza bada ere, EAEn eta, bereziki administrazio publikoaren alorrean, elebitasuna (euskara-gaztelania) lortzea denbora luze jo dezakeen helburu bat da.

Migratutako emakumeek, dituzten lan kargengatik, denbora eskasi nabaria dute eta, horregatik, askotan ezinezkoa zaie ohiko prestakuntza-ibilbideak jarraitzea; lldo horretan, beste aukera batzuk aztertu beharko lirateke.

AMA MIGRATZAILEEN SEME-ALABEN HEZKUNTZA

Etorkinen seme-alabek jasotzen duten hezkuntzari dagokionez, nabarmentzekoa da elkarrizketatutako ama gehienak benetan pozik daudela beren seme-alabek eta familiek hiriko ikastetxeetan jasotzen duten tratuarekin.

"Oso babestuak sentitzen dira gure hezkuntza sisteman, euskararen zailtasuna duten arren eurenganako babes eta esfortzu bereziak daudela sentitzen dute". (Laura Morales)

Edonola ere, beharrezkoa da udalerriko eskola-bereizketa berrikustea, horren arrazoiak non kokatzen diren aztertu eta herriko umeen eskolatze heterogeneoago bat lortzeko tresnak eskaintzeko. Ikuspegi Immigrazioren euskal behatokiaren arabera, Irunen "Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxetan eta Bigarren Hezkuntzako zentro batean etorkinen seme alaben kontzentrazio esanguratsuagoak daude. Bai eta Kristau Eskolako itunpeko ikastetxe batean ere". Atzeritik etorritako biztanleak bizi diren auzoaren arabera banatzen dira eskolaz eskola, batez ere Dunboa, San Migel eta Anaka auzoetako zentro publikoetan.⁷

Kontuan hartuta hezkuntza-sistemako hizkuntza nagusiak, euskarak, atzerriko ikasleen familia-testuinguruetan presentzia urria duela, eskolako hizkuntza-errefortzuetan sakontzeaz harago, beharrezkoa da eskola-eremuan eta eskolatik kanpo hizkuntzan murgiltzeko aukera handiagoak jartzea haien esku. Familiaola edo Solas Jolas bezalako programak nabarmentzekoak dira bide honetan, honetaz gainera euskarazko doako kultura-eskaintza zabaldu beharko litzateke.

Gogoan hartu behar da eskolatze prozesua sozializatzeko modu garrantzitsua dela, bai neskatoentzat eurentzat, zein familientzat.

7 https://www.ikuspegi.eus/documentos/formacion/La_escolarizacion_estudiantes_ado_origen_extranjero.pdf

KULTURA ETA KIROLA

Kulturarako zein kirolerako sarbidean, lehen aipatutako arazoak aurki ditzakegu, hala nola muga ekonomikoak zein denbora-eskasia, egiten dituzten lanen ezaugarriengatik.

Kirola gizarte-kohesioa hobetzen laguntzeko tresna da, izan ere, kulturen arteko edo belaunaldien arteko harremanak areagotzen laguntzen du. Kirolaren sustapena garrantzitsua da eta horregatik eskola-kiroletik hasia oso interesgarria da.

Illo horretan, neskatoak eta haien familiak txikitatik eskola-kirolean parte hartzera animatzea oso garrantzitsua da; izan ere, oraindik ere nerabezaroan eta hura baino lehentxeago, maiz ageri da neskatoen artean jarduera fisikoarekiko atxikimendu eza.

Oro har, emakume gazteak eta, bereziki, emakume migratzaileen alabak kirolaren alorrean sartzeko ahalegin honetan, funtsezkoa da gorputz-hezkuntzako irakasleen jarrera. Garrantzitsua da profesional horien ulermen teorikoa nesken parte hartzea erraztuko duen praktika fisiko inklusiboa sortzeko; haien parte-hartzea ahalbidetuko duten Gorputz Hezkuntzako eta jarduera fisikoko testuinguruak garatzeko.

“Neskatila etorkinen inklusioa eta gorputz-hezkuntzako irakasleen sinesmenak”⁸ izenburupean egindako azterlanak, Gorputz Hezkuntzako irakasleek partaidetza, errespetua eta inklusioa sustatzen dituzten dinamiken garapenean duten erantzukizunaz jabetu behar dutela nabarmentzen du.

Kirola, ordea, ez litzateke haurtzaroarekin bakarrik lotu behar, eta emakumeek oro har, eta emakume migratuek bereziki, kirolera hurbiltzeko neurri zehatzak jarri beharko ziren abian. Kirolaren praktika utz ez dezaten batetik, eta helduaroan ere praktika horrekin bat egin dezaten ere.

Horretarako, kirol eta kultura eskaintza zabala eta ezaguna izan beharko litzateke, emakume migratzaileengana iristeko modurik eraginkorrenak bilatuz.

ENPLEGUA

2019. urtean emakume atzerritarren langabezia-tasa % 25,39koa izan zen, eta bertan jaiotakoena, %8,17koa, Espainiako Estatistika Institutuaren INEren arabera. Europako Erkidegoko atzerritarren (%16,98) eta Europako Erkidegokoak ez direnen (%28,14) arteko aldea ere nabarmena da langabezia tasari dagokionean.

Lanerako aurkitzen duten lehenengo oztopoa **egoera administratiboa** da; izan ere, egoera administratibo irregularrean daudenez, ezin dute lan-kontratu bat lortu, merkatu informalean lan egitera kondenatuz, bereziki zainketen sektorean lan egitera behartuz.

"Hoteletan lan egiteko ikasi dut, baina paperik gabe ezinezkoa da. Zaintzaile edo garbitzaile gisa lan bila nabil, paperik gabe jarraitzen dudan bitartean bakarrik hori egin dezaket". (Entre Nosotras taldeko kidea)

Bigarrenik, tituluen homologazioaren auzia dago, hezkuntzaren atalean aipatua. Beren prestakuntzarekin bat datorren enplegua aurkitzeko ezintasuna dakar egoera honek.

Faktore horiek guztiek emakume migratuek lana aurkitzeko prozesuan eragin zuzena dute, eta, askotan, **betetzen duten lanpostua eta duten prestakuntzaren artean sekulako aldea egoten da**. Azterlan honetarako elkarrizketatutako emakumeen artean, unibertsitate-prestakuntza duten emakumeak daude, baita abokatutzan, erizaintzan edo kazetaritzan lan-esperientzia dutenak ere, emakume hauek guztiek, baina, emigrazioaren ondorioz zaintzen amaitu dute.

Hizkuntza bera ere oztopo bat da enplegu kualifikatua edo kualifikatu gabea aurkitzeko orduan. Gaztelania ezinbesteko baldintza da, baina EAEn eta, bereziki, administrazio publikoaren alorrean lana aurkitzeko, elebitasuna (euskara-gaztelania) beharrezkoa da. Euskara ikasteak askotan etorkinek ez duten denbora eta dirua exijitzen du.

ZAINKETEN KRISIA

Zaintza krisiak gure gizartea astintzen du. Zaintzak behar dituzten adinekoen kopuru handiagoak eta familiek aurre egiteko dituzten zailtasunek eraginda, "Zaintza-kate globalen" fenomenoak sortu da. Zailtasun ekonomiko handienak dituzten herrialdeetako emakumeek herrialde aberatsenetako zaintza-beharrak asetzeko emigratzen dute, eta batzuetan euren seme-alabak ere jatorrizko herrialdeetan uzten dituzte beste emakume batzuen zaintzapean.

Zainketa lanak egiteko emakumeen behar horrek areagotu egin du azken urteotan Irunen finkatu diren emakume migratuen kopurua. Lan egiteko aukera izan duten arren, lan horien lan-ezaugarriek prekarietatea sustatu eta kasu askotan legez kanpoko praktikak izatera ere heltzen dira.

Zaintzen esparruan aritzen diren lan-baldintzei dagokienez, barneko langile gisa lan egiten duten eta etxetik kanpo bizi diren langileak bereizi behar ditugu. Lehenengoen artean, abusu handiagoak eta lan-baldintza okerragoak izan ohi dituzte.

Baina zaintzen merkatu prekarioan ere oztopoak daude emakume migratu batzuentzat, beloa, adibidez, beto bihurtzen baita lana aurkitzeko orduan.

"Ez dut lanik aurkitzen Irunen. Hiru seme-alabekin etorri naiz eta lan egin behar dut. Beloarekin oso zaila da lan egitea. Bikote bat aurkitu nuen zaintzeko, baina gizonak esan zidan emazteak ez zuela inor beloarekin nahi ". (Entre Nosotras taldeko parte-hartzailea)

"Ikastaroak edo ikasketak aukeratzeko, beloa janzteak baldintzatu egiten ditu: Ez dute inoiz jendaurreko lanik aukeratzeko, badakitelako ez dituztela kontratatuko edo beloa kentzera behartuko dituztela ". (Laura Morales)

GENERO-INDARKERIA

Genero-indarkeriak emakume guztiei eragiten die, edozein dela haien klase soziala, jatorria, kultura edo adina. Beraz, ez dugu pentsatu behar emakume migratuak izateagatik bertako emakumeek baino indarkeria gehiago jasaten dutenik, ezta Irundik kanpo jaiotako gizonak hemengoak baino matxistagoak eta bortitzagoak direnik.

Gure gizartean oso zabaldua dagoen aurreiritzi hau argituta, aintzat hartu behar da genero indarkeria sufritzen duten emakume migratuak egoera zaugarriagoan egon daitezkeela, egoera administratiboa behar bezala ez dutelako eta harreman sare estu baten jabe ez izateagatik. Egoera horrek zaildu egiten du laguntza-sare bat eta baliabideak eskuratzea.

Gai horri heltzeko, "Entre Nosotras" proiektuaren arduradunek genero-indarkeriari buruzko hausnarketa-taldeak sortzearen aldeko jarrera agertu dute, emakume migratuekin zein autoktonoekin indarkeria matxistaren inguruan hausnartu eta biktimek sufritutakoak azaltzera animatzeko.

"Emakume asko ez dira animatzen salaketa jartzera, ezta gertatzen zaiena kontatzera ere, egoera irregularrean daudenez, salatze beldur dira". (Laura Morales)

Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat tutoretzapeko etxebizitza eta alokairu sozial gehiago eskatzen dituzte "Entre Nosotras" egitasmoko arduradunek.

"Salaketa jarri zuen emakume baten kasua dugu, eta Gipuzkoako beste muturrera eraman zuten pisu batera; handik etortzen saiatzen ari da, hemen dituen harreman apurrei eutsi ahal izateko. Ez du inor ezagutzen dagoen tokian, erabat bakartuta dago". (Laura Morales)

"Entre Nosotras" programak ere egoera horretan dauden emakumeentzako enplegu babestua aldarrikatzen du, emakume horien independentzia ekonomikoa sustatzeko.

GIZARTE-INKLUSIOA

Emakume migratuek erabateko bizita duina izateko bidea da integrazioa. Integrazio hori, baina, ez da soilik pertsona migratuak egin behar duen ahalegina, prozesu hau harrera-gizarteak baldintzatuko baitu halabeharrez.

Integrazioaz hitz egiten dugunean, ikuspegi zabal batetik ulertzen dugu, non, bertako herritarrez osatutako sare batetik harago, lan-merkaturako eta etxebizitzarako sarbidea baldintza berdinetan izateaz, justiziaz, osasunaz eta aukera-berdintasunaz ari gara.

Aurreiritziek eta estereotipoek oraindik pisu handia dute gure gizartean, are gehiago beloa jantzen duten emakume musulmanen kasuan.

"Irungo Liburutegiko segurtasunean lan egiten duen gizonetako batek ez dio nire agurrari erantzuten. Nik "Kaixo" esaten dut, eta ez dago erantzunik. Eskuak garbitzeko gela ematerakoan ere, bortizki aritzen da. Nire beloagatik dela uste dut". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

Emakume migratuek bertako jendearekin dituzten harreman garrantzitsuenak etxe inguruan, lanean eta, seme-alabarik izanez gero, ikastetxean gertatzen dira. Horiek baina ez dira sare sozial sendoak izaten, eta emakume migratu gehienek beste pertsona migratu batzuen inguruan sortzen dituzte sareak.

Azpitarratzekoa da harreman autoktonoak edukitzeak elkar ezagutzen, estereotipoak zapuzten eta laguntza-sareak sortzen laguntzen duela. Baina euskal herritarren izaera nahiko itxiak eta koadrilen fenomenoak zaildu egiten du pausu hori.

"Ikusmira ekimenaren zain nengoela konturatu nintzen hari esker Irunen integratu nintekeela. Nire kabuz, nire bikotekiderik gabe, zerbait egiten nuen lehen aldia zen. Jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko aukera zen hura. Koadrilarik gabe bizirauteko modua". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

Elkarriketatutako emakume migratuek gehien erabiltzen dituzten eta gehien ezagutzen dituzten baliabideak laguntzekin, zaintzekin eta hezkuntzarekin dute harremana. Beraz, osasuna, eskola, gizarte-zerbitzuak eta Helduen eskola dira gehien izendatzen eta baloratzen dituzten baliabideak.

Gizarte Ongizateak bultzatutako "Entre Nosotras" ikastaroa ere oso ondo baloratzen dute migratzaileek.

"Entre Nosotras ikastaroan seguru sentitzen naiz". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

"Lasaitasunez hitz egiten dut eta asko laguntzen didate". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

"Entre Nosotras" gunearen bidez, autoestimua, gizarte-trebetasunak eta enplegua bilatzeko tresnak landu egiten dira emakume migratuekin, baita emakumeentzat interesgarriak diren beste gai batzuk ere, haientzat espazio seguru eta konfiantzazkoa sortuz.

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

Emakume etorkinek modu ezberdinean bizi dute hiria, hala aitortu digu Laura Moralesek, eta emakume migratuentzat debekatuak diren eremu beroak daudela esan digu. Polizia ezberdinen polizia-etxeak, epaitegia, mugetatik gertu dauden gunek edota tren eta autobus geltokiak dira gune horietako batzuk.

"Epaitegia puntu gorri bat da. Han ez nago batere ziur ". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

"Une txarrenak Espainiako Poliziaren komisarian pasa ditut, Zabaltza plazan". (Entre Nosotras taldeko partaidea)

"Immigrazioren aurkako Brigada klandestinoak daude, eta emakume etorkinei gelditu eta paperak eskatzen dizkiete. Iritsi berritan, oso erne bizi dira, kalean egoteko beldurrez daude, paperak eskatu eta bota ditzaketelakoan. Horrela bizi behar da! ". (Laura Morales)

Hirigintza genero-ikuspegiarekin diseinatuta ez dagoela nabarmendu behar da ere, eta, hortaz, emakumeen bizitzaren berezitasunak eta oraindik betetzen dituzten rol tradizionalak ez dira kontuan hartuak hiria eraikitzerako orduan.

Mugikortasunari dagokionez, nabarmentzekoa da migratzaileek, oro har, eta emakume migratzaileek, bereziki, garraio publikoaren erabilera handia egiten dutela. Errealitate horren atzean, gida-baimena homologatzeko zailtasuna dago, baita auto partikular bat izateko traba ekonomikoak ere.

Nahitaez erabili beharreko garraio publikoak emakume migratzaileen mugimenduak mugatzen ditu, zerbitzu publiko honen gabeziak direla eta.

Garraio publikoak ez du emakume etorkinen kolektiboaren beharrei erantzuten, eta ordutegi eta ibilbideen diseinua egiterako orduan ere, ez ditu haien iritziak kontutan hartzen.

BALIABIDEAK IRUNEN

Irungo hiriak emakume migratzaileei eskaintzen dizkien baliabideei dagokienez, honako hauek daude:

ELKARTEAK

ADISKIDETUAK

Elkarte hau 2000. urteaz geroztik ari da lanean Irunen, esku-hartze sozio-komunitarioko eragile gisa, arazoak aurrez aurre edo hainbat erakunderen deribazioen bidez hautemanez, eta berehalako irtenbideak eskainiz. Bere helburuen artean kontzientziazioa eta sentsibilizazioa ere badaude.

Emakume etorkin askori ematen die arreta, eta haren jarduera ezaguna da migratzaileen kolektiboaren baitan.

SOS ARRAZAKERIA

SOS Arrazakeria Gipuzkoa, 1993an sortu zen. Azalaren kolorearengatik, jatorriarengatik edota arrazoi kulturalengatik sortutako diskriminazioaren eta bereizketaren aurka borrokatzeko helburuarekin sortu zen; banaka, taldean edo erakundeetan gerta daitekeen diskriminazio ororen aurka aritzeko.

Egun, Irungo Harrera Sarearen harrera-sareko kide da.

KALE DOR KAYIKO

Ijito herriaren inguruan dagoen ezjakintasunari erantzuteko eta espazioak partekatzeko helburuz sortu zen, ijito herriarekiko dauden aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko asmoz.

Genero indarkeriaren biktima diren emakume ijitoei laguntzen ere jarduten du.

I-ROMI EMAKUME IJITOEEN ELKARTEA

Emakumea eta bere ingurune komunitarioa sustatzea du xede eta hori lortzeko hainbat esparru lantzen dituzte, beti ere esku-hartze komunitarioa kontuan hartuz.

ADISKIDETASUNA

Jatorri magrebtarra duten pertsonen osatutako elkarte txiki bat da, San Migel auzoan kokatua, eta ekimen parte-hartzaileak sustatzen dituena.

INDOAMERIKA HERRIA

Herri amerikarraren integrazioa sustatzea du helburu, eta, hala badagokio, kolektibo hori babestea, aholkatzea, defendatzea eta ordezkatzeko migrazio-prozesuetan.

AN-NUR

Elkarte honek kultu musulmana antolatzen du eta kultura arabiar-islamikoaren ezagutzera ematen du, aldi berean bere kolektiboaren integrazioa erraztuz.

UDAL PROGRAMAK

Azterlanean aipatutako bitartekaritza-programa Bitartekotza soziokulturaleko programa da, eta komunitatean garatzen diren gizarte eta hezkuntzari lotutako hainbat harreman-prestaziok osatzen dute, banakakoak, familiakoak edo taldekoak.

Helburu orokorra: **Etorkinak edo gutxiengo etnikoetako pertsonak integratzen laguntzea** eta Irungo udalerrian **kulturen arteko bizikidetzaren sustatzea** da.

Hezitzaile/koordinatzaile batek eta bi bitartekarik osatzen dute taldea. Teknikariek banakako, taldeko eta komunitateko bitartekotza soziokulturaleko proiektuak abiaraziz ezartzen dute programa.

Proiektuen deskribapena:

> **Hiru artean:** banakako bitartekotza-proiektu bat da, eta bertan, bitartekari batek bitartekotza-lana egiten du jatorri etorkina duen pertsona baten eta beste pertsona baten artean (profesionala, partikularra, erakundea edo baliabidea). Helburua da haiek modu autonomoan moldatu eta gizarteratu daitezela laguntzea.

> **Ikusmira:** aurreko seihilekoan Irunen erroldatutako etorkinei harrera egiteko proiektua. Asmoa da Irunek hainbat arlotan (instituzioak, haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, etab.) eskaintzen dituen baliabideak ezagutzera ematea eta topaketa- eta harreman-guneak sustatzea.

> **Bertan Bizi:** Irunen bizi eta bertako komunitatera eta kulturara egokitze prozesuan sartuta dauden etorkinentzako proiektu bat da. Proiektu honen bidez, prestakuntza globala eskaintzen zaie gizarte honen ezaugarrien inguruan, integratzeko hain garrantzitsuak diren esparruak kontuan hartuta, hala nola osasun-arloa, arlo juridikoa, administrazio-arloa, lan-arloa, etab.

> **Gure artean (Entre Nosotras):** emakume etorkinen asteroko topaketak. Bi ordukoak izaten dira, eta kulturarteko bitartekotza-taldeak koordinatzen ditu. Bertan, emakumeek beren bizitzako esperientziak trukatzeko dituzte, eta hortik abiatuta, beren egungo beharrak aztertu eta gune seguru bat eraiki ahal izango dute elkarrekin.

> **Bizikidetzaren bultzatzea:** helburua da gerta litezkeen kulturarteko gatazkak konpontzea, eta prebenitzea ere bai sistematikoki behatuz eta kulturarteko tailerrak inplementatuz.

NEURRI OROKORRAK

Errepaso gisa, hauek lirateke emakume migratuek duintasunez bizitzeko orduan Irunen aurkitzen dituzten zailtasunak arintzeko neurri orokorrak:

1. Egoera administratiboa erregularizatzeko erraztasunak.
2. Integraziorako eta bertako pertsonak ezagutzeko erraztasunak. Arrazakeria eta xenofobia-egoerak ekiditeko neurriak.
3. Lan-munduko prekarietatearen aurkako neurriak. Lan-baldintzak hobetzeko eta zaintza-lanetatik irteteko erraztasunak.
4. Ikasketak homologatzeko erraztasunak.
5. Erroldarako beharrezkoa den etxebizitza edo alokairu-kontratua eskuratzeko erraztasunak.
6. Genero-indarkeriaren aurrean zaurgarritasun handiagoa ekiditeko neurriak.
7. Hizkuntza ofizialak ezagutzeko erraztasunak.

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
<p>OSASUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> > Osasun-arloko profesionalak generoan eta immigrazioaren arloan sentsibilizatzea, diskriminazioa sustatzen ez duten esku-hartze ereduak garatu eta emakume horiek estereotipatuetik aldentzen diren jarduera toleranteagoak sustatzeko. > Gure osasun-sistemaren eta bertan aurki daitezkeen zerbitzuen berri eman emakume migratzaileei. > Emakume etorkinak, beharrezkoa dutenean, osasun-sistemara hurbiltzera animatu, haien egoera irregularra antzemateko beldurrik gabe eta herrialdetik kanporatzeko arriskurik gabe. > Osasunaren arloan aurkitzen dituzten hizkuntza-oztopoak gainditzeko neurriak hartzea, itzulpen-zerbitzuen bidez, adibidez. > Kolektibo horrek pairatzen duen osasun mentaleko egoera larriaren aurrean, lasaitzeko, aktiboki entzuteko, interesak eta zaletasunak partekatzeko, jarduera fisikoa, kirola, erlaxazioa eta abar sustatzen dituzten espazioak sortzea.
<p>HEZKUNTZA</p>	<p>EMAKUME MIGRATUEN PRESTAKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Ikasketen homologazioa <ul style="list-style-type: none"> • Jatorrizko herrialdeetan egindako unibertsitate ikasketak homologatzeko estrategia berriak bilatu. • Atzerrian egindako batxilergoak baliokidetzeko neurriak. <ul style="list-style-type: none"> ◦ Batxilergo humanistiko edo zientifikoa eskatzen den heziketa-zikloetara sartzeko zailtasunak dituzte etorkinek, euren batxilergoak modu orokorrean baliokidetzen dituztelako. Horren ondorioz, aukera gutxiago dituzte egin nahi dituzten ikasketak egiteko. > Hizkuntza ofizialak ez ezagutzea. <ul style="list-style-type: none"> • Boluntarioekin trukea. Mintzalaguna bezalako proiektuak garatzea, gaztelaniaz zein euskaraz. • Helduen eskolatik, SOS Arrazakeriatik, migratzaileek eta bertako pertsonen sortutako elkartetatik, hizkuntzen integrazioarako eta

	<p>praktikarako ekimenak sustatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaltegiko doakotasuna edo euskara ezagutzeko erraztasunak eskaintzea, etorkinen lan integrazioa ahalbidetzeko, baita erakunde publikoetan ere. <p>EMAKUME MIGRATUEN SEME-ALABEN HEZKUNTZA</p> <p>> Irunen dagoen eskola-bereizketari buruzko ikerketa egitea.</p> <p>> Udal eskola-kontseiluen funtzionamendua bultzatzea, beste administrazio batzuekin lankidetzan eta hezkuntza-politiken elkarrekintza bilatuz, eskola-maparen kohesio eta oreka handiagoa lortzea helburu harturik.</p> <p>> Tokiko eragileekin lankidetzan, hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak eskaintzea, kultura-aniztasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko hezkuntza-sareak bultzatzeko, Eskola inklusiboaren esparruan.</p> <p>> Eskolan eta eskolatik kanpo euskaraz murgiltzeko aukera gehiago eskaintzea eta hauek ezagutaraztea.</p> <p>> Baliabide horiek eskuratzeko laguntzak. Gaur egun, Solas Jolas, Eskola Kirola... diruz laguntzeko DBE kobratzen duzula ziurtatu behar da, eta, laguntza hau lortzeko 3 urte baino gehiago eman behar dituzu erroldatuta. Beste laguntza-aukera batzuk bilatu.</p>
<p>KULTURA ETA KIROLA</p>	<p>> Kultura eta kirol alorretako eskaintzak zabala izan beharko lukete, eta emakume migratzaileengana iristeko modurik eraginkorrenak bilatu beharko lirateke (hizkuntza batean baino gehiagotan ezagutarazi, Udalaren migrazioaren inguruko webgunean...).</p> <p>> Gorputz-hezkuntzako irakasleak generoan eta immigrazioaren alorrean sentsibilizatzea, eskola-kirolaren gisako programetan neskatoak parte hartzera animatzeko.</p>
<p>ENPLEGUA</p>	<p>Enplegu munduan prekaritatea gainditzeko, lan-baldintzak hobetzeko eta zaintza-lanetatik irteteko:</p> <p>> Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen emakumearen prestakuntzarako eta enplegurako proiektuak sustatzea, bere beharretara eta interesetara egokituak. Ikasle izateak (txartelarekin) lasaitasun handiagoa emango lieke.</p>

	<p>> Lanaldi osoko urtebeteko kontratuak egiteko aukera handitu, haien egoera administratiboa erregularizatzeko ezinbestekoak.</p>
<p>GENERO - INDARKERIA</p>	<p>> Tutoretzapeko etxebizitza gehiago.</p> <p>> Alokairu sozial gehiago.</p> <p>> Egoera horretan dauden emakumeentzako enplegu babestua (independentzia ekonomikoa sustatzeko).</p> <p>> Genero-indarkeriari buruzko hausnarketa-taldeak, emakume migratu eta autoktonoekin.</p>
<p>GIZARTE - INKLUSIOA</p>	<p>> Egoera administratiboa erregularizatzeko zailtasunak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erroldatze soziala izateko aukera, alokairu-kontraturik izan ez arren. Udaletik formularen bat bilatu (Zubian egiten den antzera). <p>> Integratzeko eta bertako pertsonak ezagutzeko zailtasunak. Herritartasuna duinki bizitzea eragozten dieten arrazakeria eta xenofobia-egoerak gainditzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jende berria ezagutzeko topaketak, kulturarekin, kirolarekin, artearekin edo bestelako interesekin lotutako ingurune aberasgarrietan. • Kultur artekotasunari lotutako web orri osoago bat izatea udaletxean, proiektuei, ekimenei eta abarri buruzko informazioa hainbat hizkuntzatan eskaintzeko.
<p>HIRIGINTZA ETA GARRAIOA</p>	<p>Erroldatzeko beharrezkoa den etxebizitza bat edo alokairu-kontratua eskuratzeko zailtasunak.</p> <p>> Alokairu sozialeko etxebizitza gehiago. Gizarte-bazterketako egoeran dauden familientzako.</p> <p>> Egoera ahulenean dauden emakumeentzat espresuki Tutoretzapeko etxebizitzak.</p> <p>Garraio publikoaren erabiltzaile garrantzitsuak diren emakume migratzaileen beharrak kontuan hartzea, garraio publikoaren ibilbideak eta ordutegiak diseinatzerako orduan.</p>

3.2. BIZI-ZIKLOAK / ADINA

SARRERA

Biztanleriaren zahartzea agenda politikoan sartzen ari den gaia da azken urteotan, denok aitortu diogun garrantziagatik, eta gizarte gisa erronka handia dakarrelako.

Euskadin, Eustaten proiektzioen arabera, 65 urtetik gorakoek biztanleria osoaren % 29 osatuko dute 2029an, eta % 33,5-a, 2061ean, 2017an baino 12 puntu gehiago. Horien artean, hazkunderik handiena duen populazio-taldea laurogei urtetik gorako pertsonena da, zahartzearen zahartzea, alegia.

Datuen tamainagatik adinekoen profil desberdinak kontutan hartzen direla pentsarazten den arren, adineko pertsonen irudi sozialak estereotipoz beteta jarraitzen du, eta askotan talde heterogeneo gisa aurkezten da, iraganera ainguratuta.

Beraz, egunetik egunera biztanleriaren gero eta pertsona gehiago hartzen dituen sektore estereotipatu honetan denetarik dago; elkarrekin aktiboa den emakumetik hasi eta instituzionalizatutako ahulenera arte. Horren ondorioz, gero eta beharrezkoagoa da ikuspegia aldatzeko eta diskurtsoak dibertsifikatzeko ahalegina egitea.

Zahartzaroa zaugarritasunarekin eta zaintza-beharrarekin lotzen da, eta noski, hala da; baina bizitza osoan zehar hala da ere, elkarren mendeko izakiak gara jaiotzen garenetik, eta zaintzak komunitate gisa zeharkatzen gaitu, adina kontuan hartu gabe. Zahartzaroa jakinduria, lasaitasuna, boluntariora... ere bada, eta politika publikoak diseinatzerakoan kontuan hartu behar da hori guztia.

Adineko emakumeek diskriminazio eta zaugarritasun-egoera gehiago jasaten dituzte. Izan ere, genero-arrazoiengatik emakumeei beren bizitzan zehar eragiten dieten desabantailak areagotu egiten dira zahartzaroan, eta adinagatik desabantaila-egoerak gehitzen dira une horretan.

"Ahalduntzea funtsezkoa da, lan egiten dugun emakume askok ez dute uste gai direnik, urteetan eraman duten estigmatik". Maritxu San Pedro.

Aldi berean, matxismoa eta adinkeria pairatzen dituzte. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, adinkeria *"haien adinaren ondorioz, estereotipoak, aurreiritziak eta pertsonen aurkako diskriminazioa da"*, eta Robert Butler doktoreak adinkeria terminoa 1968an sortu aurretik existitu bazen ere, terminoak bizitzako hainbat arlotan eragina duen arazo bat ikusarazten laguntzen du. Politika publikoen diseinutik hasi eta eremu pribatutik bultzatutako ekimenetaraino.

Adinkeriarri aurre egiteko, zenbait esparrutik politikan eta legedian adinagatik diskriminazioa saihesteko diskurtsoak eta kanpainak diseinatzen hasi zirenean, hausnarketa-espazioak, hezkuntzako esku-hartzeak eta belaunaldien arteko trukerako espazioak sortzeko beharrez jarri zuten arreta.

Eusko Jurlaritzaren edo Osasunaren Mundu Erakundearen Zahartze Aktiboko estrategia moduko planetan, adinekoen eskubideak erdigunean jartzea bilatzen du esparru teorikoak; independentzia, parte-hartzea, duintasuna, laguntza, norbanakoen nahiak, aukeren aurreko berdintasuna eta pertsonen tratua ona bezalako elementuak kokatuz.

Aldi berean, gizabanakoek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea funtsezkoa dela defendatzen du.

Hala eta guztiz ere, gaur egun indarrean diren laguntza-baliabide gehienek beste izaera bat dute: Parte-hartze eza, intimitate eskasa, zurruntasuna eguneroko bizitzan, autonomia eskasa, despertsionalizazioa eta autonomiaren sustapenik eza.

Adinekoengan pentsatu behar dugu, beren herritartasuna gauzatzen duten eta guztion onerako balio duten subjektutzat joaz, eta norberaren zaugarritasunaren kontzientzia integratzen duen paradigma batean oinarritu behar dugu. Horrela, belaunaldien arteko elkartasun-eredu berriak eraikitzeko, elkarrekotasunari eta genero-ikuspegiari erreparatuz.

Zahartze aktibotik bizi-proiektuari garrantzia ematera igaro behar dugu; izan ere, bizitza horiek jardueran jartzen dute arreta, baina, batez ere, proiektu pertsonal eta kolektiboan.

Beraz, garrantzitsua da pertsona orok bere bizi-proiektu pertsonala garatzeko duen eskubidea bermatzea, gizarteratzea eta autonomia errespetatzea, batez ere prebentzio-izaera kontuan hartuta. Honek guztiak ez ditu babes eta sorospen-funtzioak baztertzeko, lehen aipatutako erakundeen aginduak bete baizik.

Ikerketa honetarako Maritxu San Pedro elkarrizketatu dugu, Bidasoaldeko Elkarte feministako kidea, emakume aktiboa da eta adineko emakumeekin irakurketa tailerrak partekatzen ditu hiriko gizarte zentroetan. Genero berdintasunarekin duen konpromisoak eta jarrera kritikoak emakume horien errealitatera hurbiltzen lagundu digute, bai eta militante feminista gisa izandako ibilbidean ezagututako emakumeengana ere.

Hurkoa Fundazioko bi pertsona ere elkarrizketatu ditugu: Irungo egoitzan lan egiten duen taldearen koordinatzailea eta gizarte-langileetako bat. Hurkoa Fundazioak narriadura kognitiboa eta/edo gaixotasun mentala duten eta jarduteko ezgaitasuna duten helduak babesten ditu, eta haren helburua da pertsona horien eskubideak eta bizi-kalitatea defendatzea hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabatasun-egoeran daudenean. Pertsona ahulenei buruz duten ezagutzak, eta are ahulagoak diren emakumeen beharrak, testuinguruan kokatzen lagundu digu.

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Lehen aipatu bezala, adinekoak askotarikoak dira, eta zaintza desberdinak behar dituzte. Atal honetan, lehenik eta behin, zaintza-premiaren arabera adinekoei bideratzen zaizkien zerbitzu orokorrak eta baliabideak aipatuko ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoa da Geriatrietan arreta espezializaturik ez duen erkidego bakarra.

Geriatria lau urteko prestakuntza duen MIR bidezko ospitaleko espezialitate medikoa da, eta adinekoen osasuna, independentzia eta bizi-kalitatea hobetzera bideratua dago.

Zahartze osasungarriko programak bultzatu behar dira adinekoentzat, eta hauek emakumeen berezitasunak eta patologia jakin batzuek emakumeengan duten eragina hartu behar dituzte aintzat.

Zerbitzuen digitalizazioa, oro har, baliabide publikoak eskuratzeko aukera gisa ulertzen da. Adinekoei dagokienez, haien artean den "arrakala digitala" kontuan hartu behar da, eta prestakuntza edo gaitasunik ez duten pertsonen zerbitzu digitalizatuak eskuratzeko aukera eman beharko lieke Euskal Osasun Zerbitzuak.

Osasun-zerbitzuetako zuzeneko arretari dagokionez, aurreiritzien aurrean langileek prestakuntza jaso beharko luketela uste du Maritxu San Pedrok; eta *"adinekoei laguntzen dieten pertsonen zuzentzea saihestu"* beharko lukete.

AURRETIAZKO BORONDATEEN AGIRIA

Eusko Jaurlaritzak sustatutako Aurretiazko Borondateen Agiria herritar guztiei zuzendutako tresna den arren, bereziki gomendagarria da adineko pertsonentzat.

Mediku-taldeari zuzendutako idatzizko dokumentua da. Bertan, pertsona batek etorkizunean jarraitu beharreko jarraibideak jasotzen ditu, bere borondatea adierazi ezin duenean baliatzeko. Dokumentua edozein unetan alda eta ezezta daiteke, erabakiak hartzeko gaitasuna mantentzen den bitartean. Ordura arte, pertsonaren erabakia gailenduko da dokumentuan jasotakoaren gainetik.

Dokumentu honek finean, erabakiak hartzen laguntzen du.

"Erabakiak hartzeko orduan nolabaiteko autonomia falta ikusten dut gure tailerretara joaten diren emakumeengan, seme-alabek askotan erabakitzen dute haien ordeztu", Maritxu San Pedro.

BAKARDADEA

Gizarte gisa, bakardadea ere bada aurre hartu beharreko erronka handi bat. Bakardade-sentimenduaren prebalentzia zertxobait txikiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino

(gizonen % 3,7 eta emakumeen % 7). Eraitza horien arabera, badirudi lotura nabarmena dagoela hautemandako bakardadearen eraginaren eta generoaren artean⁹.

"Psikologo bat modu errazean eskuratzea interesgarria izango litzateke, iruditzen zait adineko emakumeen artean oraindik ere psikologoarengana joateko estigma dagoela", Maritxu San Pedro.

Bakardadearen ondorioei aurre egiteko beraz, zerbitzu psikologikoak Osakidetzako eskaintzan paper garrantzitsuagoa izatea interesgarria izango zen.

SEXUALITATEA

Maritxuk adineko pertsonen artean maiz lantzen ez den gai bati leku egin dio elkarrizketan: sexualitatea.

"Sexualitateari buruz hitz egitea interesgarria izango litzatekeela uste dut, plazer hitza betatuta dagoela iruditzen zait", Maritxu San Pedro.

"Adineko emakumeek ez dute eskatzen; bizitzan zehar esleitzen zaizkigun rolangatik da", Maritxu San Pedro.

ETXEZ ETXKO ZERBITZUA

Egindako inkesta gehienetan, adinekoek etxean egoteko nahia adierazten dute. Nahi horri erantzuteko, zerbitzuak handitu behar dira eta etxebizitzak eta baliabideak etxeko zainketetara egokitu.

Narriadura-egoeretan, are garrantzitsuagoa da arreta malgua ematea:

"Ahal den neurrian, nahierako laguntza eskaintzea, pertsona bakoitzaren beharretara egokituz", esan du Hurkoako gizarte langileak.

Dementzia duten pertsonentzako osasun-arretako protokoloak sortu beharko lirateke.

"Ez da oso erraza, ez da zerbitzuetara joan eta esatea, nik hau eta hau behar dut, tramitatu egiten dut eta badaukat, pertsona askok trebetasunak galdu dituzte... edo ez dakite zer zerbitzu dauden, edo ez dira gai eskaera bat egitera joateko, eta, bereziki, pertsona horiei eman behar diegu arreta gehien", Hurkoako koordinatzailea.

Gehien eskatzen den zerbitzuetako bat etxez etxeko zerbitzua da, modu publikoan edo pribatuan.

Irungo zerbitzu publikoari dagokionez, 2019ko Gizarte-Ongizateko memoriaren arabera etxez etxeko zerbitzuaren hartzaileak emakumeak dira gehienbat: % 74.

Teresa Martínez osasun-zientzietan doktorea, Psikologo Gerontologoa eta pertsona ardatz duen arreta-ereduetan aditua da, eta haren ustez:

9 https://www.matiainstituto.net/sites/default/files/archivospdf/bakardadeak_edelbarrio_jornada_ararteko.pdf

“Orain da egun dugun etxez etxeko laguntza-zerbitzua birkontzeptualizatzeko unea, atzeraezina eta premiazkoa da, zerbitzuak egun pertsonen behar batzuk baino ez baititu betetzen. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua motz geratzen da ematen dituen arreta-aniztasunari eta laguntzen intentsitateari dagokienez. Arreta ordu jakin batzuk agintzera mugatzen den etxez etxeko laguntza-zerbitzua izatetik, arreta integrala eskaintzera bideratutako plan pertsonalizatuak egitera igaro behar dugu, etxean zaintza pertsonalak askotariko zerbitzuekin koordinatuz: osasun-zerbitzuak, etxearen egokitzapen funtzionalerako neurriak, boluntarioen bidezko laguntza, kultura- eta aisialdi-baliabideak, estimulazio-jarduerak, mugikortasunerako laguntzak, irteerak eta komunitatearekiko harremanak, etab.”

Hurkoa Fundazioatik azpimarratu nahi izan dute eta oso positibotzat eman Covid-19aren krisialdian Udalak azkar egokitu zituela etxean emandako arreta-beharrak.

ADINEKO PERTSONA INSTITUZIONALIZATUAK

Covid 19ren krisiak eguneko egoitzak edo zentroak birplanteatzeko beharra mahai gainean jarri du. Hala ere, eztabaida hori ez da berria, eta hainbat forotan planteatu izan da asistentzia-sistema birplanteatzeko beharra: parte-hartze aktiboa sustatuko duen eredu baten bidez, adinekoak, erabiltzaile gisa baino, haietan bizi diren pertsona gisa kontuan hartuko dituen eredu baterantz.

PERTSONARENGANAKO ARRETA

Beharrezkotzat jotzen da pertsonen beharren ebaluazio orokor eta jarraitua egitea eta zerbitzuak une horretan agertzen diren beharretara egokitzen joatea. Egungo egoeraren ebaluazioa egiteaz gain, beharrezkoa da norbanakoaren bizitzaren historia bat egitea eta bere etorkizunerako dituen nahiak eta aukerak aztertzea, bere integritatea eta ongizatea bermatuko dela bermatzeko.

Horretarako, pertsonak, helburuak ezartzerako garaian, parte hartuko dutela bermatu behar da, ekintzak eta plana prestatzen eta emaitzak ebaluatzen.

Hau da, pertsona horrek beharko duen zerbitzu eta laguntza-plana pertsona horrekin berarekin egitea (eta, ezin bada, hura ezagutzen edo ordezkatzeko duten familiako kideekin edo lagunekin) funtsezkoa da eredu honetarako. Izan ere, pertsona horren autonomia eta erabakitze independentea bermatzea garrantzitsua da, norberaren bizitzaren kontrola izateak eragin zuzena baitu bizi-kalitatean eta zorientasunean. Horregatik, ezinbestekoa da aniztasuna bermatzen eta zaintzen duten ereduak espazioa hartzea. Eta politika publikoak edo baliabideak diseinatzerakoan kontuan hartzea, hurbilekoak eta txikiak izan beharko bailukete, arreta hori posible izan dadin aukerak zabalduz.

Hurkoa Fundaziotik azaldu dutenez, pertsona ardatz duen arreta-eredu batetik artatzen dituzte pertsonak. Horretarako, arreta indibidualizatuko plan bat egiten dute, Hurkoaren arreta-taldeak aldian-aldian berrikusiko duena, eta kontuan hartzen dituzte artatu beharreko pertsonaren ekarpenak, betiere haiek adieraz baditzaiteke, bai eta arreta ematen dieten gainerako profesionalen ekarpenak ere. Azalpenak ematea ezinezkoa den kasuetan, informazioa bere hurbilekoen bidez lortu

beharko da, haiek ezagutu baitute bere ahalmen osoetan zegoenean, eta informazio asko izan dezakete pertsonari arreta emateko, haren balioak eta nahiak kontuan hartuta.

Era berean, garrantzitsua da zahartu nahi dugun moduari buruzko kontzientziazio-kanpainak bultzatzea eta hura diseinatzeko tresnak eskaintzea, hainbat alderditan aurrea har baitezakete, prebentziotik hasi eta gure bizitzako azken unera arte.

"Profesionalek esaldi hauek ezabatu beharko lituzkete: daukan adinarekin..zer nahi duzu!", Maritxu San Pedro.

Esaldi horiek ezabatzeko, beharrezkoa da osasun-zentroetara hurbiltzen diren pertsonak duintasunez eta genero-ikuspegiarekin informatzea eta tratatzea.

HEZKUNTZA

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2018ko datuen arabera, 65 urtetik gorako emakume espainiarren % 6,3 analfabetoak dira; % 20,9k lehen mailako ikasketa osatugabeak dituzte eta % 37,7k lehen mailako ikasketa osoak¹⁰. Hau da, % 64,9k ez du derrigorrezko hezkuntza amaitu. Emakume askok zaintzan eta kualifikaziorik gabeko lanetan jardun behar izan dute, haurtzaroan eta gaztaroan nagusi izan den sistema patriarkalaren eraginez. Beraz, adineko emakumeei prestakuntza eman behar zaie.

"ARRAKALA TEKNOLOGIKOA"¹¹

Teknologia berriek zahartze aktiboa lortzen laguntzen dute. Adinekoak ahalduz dituzte hainbat eremutan, bizitza soziala hobetzeko eta isolamendua saihesteko bitarteko baitira; izapide eta zerbitzu guztiak eskura izatea ahalbidetzen dute; pertsona horiek bizitza publikoan parte hartzea sustatzen dute; eta, azkenik, ondorio onuragarriak dituzte beren autoestimuan.

Azterlanek nabarmentzen dute administrazioek azpiegitura digitalen hedapenean jarri dutela arreta, herritar guztien ezagutzan baino gehiago. Beraz, azpiegitura digital horien ezagutzan indarra egin beharko litzateke.

Bestalde, interesgarria litzateke adinekoen jakintzak hainbat eremutan partekatzea, eskolatik hasi eta eremu profesionalera, belaunaldien arteko proiektuak bultzatuz, bizitzaren hainbat eremutan metatutako jakituria lortzeko.

10 Estatistikako Institutu Nazionala, 2018ko Biztanleria Aktiboaren Inkesta, jarduera-tasak lortutako prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera, hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?T=9447&L=0>

11 <https://revistaprismasocial.es/article/view/1256>

KULTURA ETA KIROLA

Duela gutxi arte, adinekoekin erlazionatzen genituen espazioak erretiratuen etxeak ziren; espazio horietan, gehienbat gizonak sozializatzen ziren jolasaren bidez.

Gaur egun, etxe horiek eraldatzen joan dira, eta zahartze aktiborako ikastaroak eta tailerrak egiten dira, haietara hurbiltzen diren pertsonen profila aldatuz.

Irunen, 2019ko Gizarte-Ongizatearen memoriaren arabera, emakumeak gehiengoa dira antolatutako jarduera guztietan.

"Kultur ekitaldiak hausnarketarako aukera izan daitezke, antzerkiarekin joan ginenean hasieran modu eszeptikoan begiratzen gintuzten, baina gero barreak eta hitz egiteko gogoia ugaritu egin zen", Maritxu San Pedro.

Maritxuren elkarteak irakurketa-tailerrak bultzatzen ditu, non emakumeek ariketa kulturala eta ahalbuntze-ariketa egiteaz gain, konfiantzazko espazioak eratzen dira; *"emakume batek baino gehiagok esan digu inoiz ez duela ozen irakurri"*. Irakurketa-eskolak, sareak eta espazioak sortzen ditu, gai askori buruzko esperientziak eta zalantzak partekatzeko.

Kultur jardueren eta elkarten jardueren publizitatea egin behar da, eta ahalegina egin behar da pertsona nagusiengana modu desberdinetan irits daitezen.

Kultur jardueren sarbidean prezioa erabakigarria izan daiteke ere, pentsio txikiak dituzten adineko emakumeek kultura eskura dezaten.

Interesgarria litzateke, beraz, aukera kulturalak, antzerki-taldeak eta eztabaidak bultzatzea, taldearen heterogeneotasunari erantzunez parte-hartzea sustatzeko, bingoa edo kartak bezalako jardueretara mugatu gabe.

Hain populazio zabalaren gustuak auresuposatzeak estereotipoak areagotu ditzake, eta horiek apurtuz joan behar dira.

Interesgarria izango litzateke belaunaldien arteko eta kulturen arteko programak bultzatzea, adineko egoitzetako kultur eskaintza zabalduz, eta hiri mailako programazio bateratuarekin hautsiz.

Interesgarria litzateke emakumeek lan boluntarioari egiten dioten ekarpenari balioa ematea: *"Guk boluntarioen sare bat daukagu, oso irekia, ikasteko, taldean lan egiteko, ezagutza askorekin, gurekin egiten duten lanean oso konprometituak, eta horietako gehienek profila erretiroa hartzeko adina gainditzen duten emakumeak dira"*, Hurkoako gizarte-langilea.

ENPLEGUA ETA PENTSIONAK

Emakumeek lanarekin duten harremana bizia eta iraunkorra da, etxetik kanpoko enpleguak izan dituztelako edo etxe barruko lanetan aritu direlako, edo bietan aldi berean. Horietako askorentzat, lana beren bizitzaren parte izan da txiki-txikitatik, etxean ardurak hartu zituztelako edo landa-eremuan lagundu behar zutelako... beste batzuk lan-ibilbide bat garatzeko ideiarekin trebatu ziren umetatik.

"Programa honetan artatutako emakume gehienek diru-sarrerak txikiak zituzten eta prestazio sozialak eskatu behar zituzten. Laguntza behar zuten horiek kudeatzeko, bai urteko eskabidean, bai horien justifikazioan, kudeaketa horiek konplexuak baitziren haientzat: udalean gizarte-larrialdietarako laguntza eskatzea, LANBIDEn diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzea, etab. Hauskortasun-programan parte hartu zuten gizonen egoera ekonomikoa hobea zen, eta ez zuten laguntza ekonomiko osagarririk behar. Egin ziren laguntza-kudeaketak errazak izan ziren: etxez etxeko zerbitzua eskatzea, Frantziako pentsio bat berritzea, etab. " Hurkoako Gizarte langilea

"Emakumeek egiten zituzten lanek, kasu askotan, kotizatu gabe, eragina du gaurko pentsioetan" Hurkoaren Koordinatzailea.

Adineko emakumeek gutxieneko pentsioak eta gastu arrunt handiak dituzte orokorrean. Lanbideren 2019ko datuen arabera, Gipuzkoan adineko emakumeak dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaile nagusiak¹².

"Emakumeok lan handia egin dugu eta ez da aitortzen. Orain arte egindakoa eta gaur egungoa ere ez da behar bezala aitortzen. Uste dut beharrezkoa dela aintzatespen-kanpainak bultzatzea", Maritxu San Pedro.

Adinekoek aberastasuna birbanatzen diete seme-alabei, baina hori ez da elkarrekikoa.

Espainiako Pentsiodunen eta Erretiratuen Batasun Demokratikoko (UDP) Adinekoen Barometroaren txostenaren arabera, adinekoen % 42,2k beren seme-alabei laguntza ekonomikoa eman die azken bi urteetan, eta adinekoen % 5,6k soilik jasotzen dute senide edo lagun baten laguntza ekonomikoa.

Bidasoako Pentsiodunen Mugimenduak pentsio duinak eta pentsio sistema publikoa babesteko eskatu du. Halaber, legeak bere erosteko ahalmena urteko KPI errearen arabera bermatzea eskatu dute. Eta gizonen eta emakumeen arteko pentsioen arrakala amaitzea ere aldarrikatzen dute astelehenero egiten dituzten mobilizazioetan.

ZAINTZAK

"Hauskortasun-egoeran seme-alabak eta bilobak zaintzen jarraitzen duten emakumeak daude" , Hurkoaren koordinatzailea.

12 https://www.lanbide.euskadi.eus/y94-estadist/es/contenidos/estadistica/rgi_beneficiarios_territ_2019/es_def/adjuntos/12-Abendua/rgith20.shtml

Gure gizartea astintzen duen "zaintza-krisiak", zaintzak behar dituzten adinekoen kopuru handiagoak eta familiek aurre egiteko dituzten zailtasunek eraginda, "zaintza-kate globalen" fenomenoak sortu da. Adineko pertsonen pentsioak zaintzen dituzten pertsonen soldatentzat ere muga dira, eta zaintzaile horietako gehienak emakumeak dira.

Adineko emakumeek zaintza-lanak behar izateaz gain, garrantzitsua da azpimarratzea emakume horiek zaintzaile-lana ere egiten dutela.

"Ez dira zenbatzen adinekoek gure familientzat egiten dituzten ekarpen sozialak, beste adinekoen, gaixoen edo mendeko pertsonen iraupen luzeko zaintzaile gisa, edo biloben zaintzaile gisa. Eta ez dago aitorten sozialik, gutxi eztabaidatu den betebeharra da", Maritxu San Pedro.

Hurkoa Fundaziotik adin gazteagoko eta tutoretzapeko pertsona batzuei buruz ere hitz egin digute.

"Ama batzuek seme-alabekin bizitzen jarraitzen dute, Hurkoaren babespean. Horiek etxeko eguneroko zaintzaz arduratu nahi dute oraindik. Aita batzuek adorea dute zaintzak beren gain hartzeko, baina gehienak eta urte asko daramatzatenak emakumeak dira, lan-karga handia dute, eta horrek, batzuetan, osasunean ere eragiten die".

"Emakumeak beti gara zaintzaile. Senarrak eta bilobak zaintzen ditugu, askotan gure gaitasunak ere kolokan direnean. Sekulako esfortzua da. Beren izatea besteentzat uztea, beren irrika eta beharrei uko egitea dakar honek". Maritxu San Pedro.

Adineko emakumearen zaintzailearen rola oraindik ere oso errotuta dago, horrek dakarren guztiarekin.

"Buruko gaixotasunak dituzten seme-alaben amek sentimendu kontraesankorrak dituzte; alde batetik, zaintzen jarraitu nahi dute, baina, bestetik, gainezka daudela sentitzen dute", Hurkoako koordinatzailea.

Zaintza, gainera, jarraitua eta lan-karga handikoa bada, Maritxuk eta Hurkoako langileek esan digutenez, murrizketa asko sor ditzake, baita arazo psikologiko ugari ere; denbora antolatze askatasunik eza, espazio pertsonala murriztea eta gizarte-harremanak murriztea dakartenak. Aldi berean, baina, ez dira gustura geratzen dituzten gizarte-elkarrekintzekin, ez ulertuak sentitzen dira, egiten dituzten lanak aintzat ez hartzeagatik eta ez baloratzeagatik (Vasileet, 2017).

"Gaixotasun mentala duten pertsonen kasu gehienetan, amak dira beren ongizatearen alde borrokatzen dutenak, eta asko borrokatzen dute gainera", Hurkoako gizarte-langilea.

GENERO-INDARKERIA

Adineko emakumeek emakume gazteek baino neurri handiagoan jasaten dute genero-diskriminazioa, eta adineko gizonak baino neurri handiagoan adinagatiko diskriminazioa. Diskriminazio bikoitz hori dago adineko emakumeen aurkako genero-indarkeriaren ikusezintasunaren oinarrian¹³.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makro inkestaren arabera (2015), genero-indarkeriaren biktima diren adineko emakumeek neurri txikiagoan jotzen dute laguntza-zerbitzuetara (medikua, psikologikoa, soziala, legala, etab.). % 33,8k soilik egin du, eta 65 urtetik beherako biktimen % 46,8k.

Adineko emakumei ezartzen zaizkien estereotipoak direla eta, zaila da beste adin batzuetan antzemango liratekeen indarkeria zantzuak antzematea. Osasun-arloan indarkeriaren sintomak, zaintzailearen estresarekin edo zahartzaroko sintomekin nahasten dituzte maiz.

"Oso bizimodu gogorra izan zuen emakume bat ezagutu genuen, genero-indarkeria jasan zuen, eta, ondoren, berak bakarrik atera behar izan zituen aurrera seme-alabak. Esperientzia honek maila askotan eragin diola uste dugu ", Hurkoako gizarte langileak.

13 https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2019/pdfs/Estudio_VG_Mayores_65.pdf

GIZARTE-INKLUSIOA

Adinekoentzako baliabideen beharraz jabetuta, Irunen kolektibo honi zuzendutako baliabideak asko ugaritu dira azken hamarkadan.

Hurkoak adierazi digunez, nahiz eta zerbitzu-zorroa zabala izan, uste dute pertsona guztientzat (bai gizonentzat bai emakumeentzat) komenigarria izango litzatekeela malgutasun handiagoa izatea, denbora gehiago ematea arreta ematen, haiek ikustera joatea.

"Zerbitzu sare zoragarria dugu, baina, batez ere, etxean geratzen diren pertsonen trebetasun jakin batzuk mantentzen lagundu behar zaie", Hurkoako gizarte-langilea.

Gizarte-langileak funtsezkoak dira pertsona horiek eskura ditzaketen baliabideak eta laguntzak ezagutzeko.

"Administrazio-kudeaketetan laguntzak behar dituzte, adinekoentzat konplexuak baitira", Hurkoako gizarte-langilea.

"Gizarte langileek, oro har, lan karga handia dutela uste dut, eta horrek behar guztiak konpontzen lagunduko duten ibilbideak sortzera mugatzen du. Adibidez, batzuetan zaila da artatuko den pertsona aurkitzea, eta denbora behar duzu beregana iristeko, eta, lortzen duzunean, askoz denbora eta arreta gehiago eskaini behar diozu, gizarte langileak duten lan-kargak mugatzen du bakoitzari eskaini ahal zaion denbora", Hurkoaren koordinatzailea.

Erakundeek eskaintzen duten zerbitzu-zorroak herritar guztien beharrei erantzun nahi die, baina beti geratuko da norbait kanpoan.

Gainera, fundaziotik behar burokratikoetan arreta gehiago jartzeaz gain, beste premia mota batzuk nabarmentzen dizkigute:

"Harremanaren bidez, arreta ematen dioten profesionalengan konfiantza izatea bilatzen dugu, beren egoera eta dituzten beharrak benetan ezagutzeko irakitzea. Pertsona batzuk egoera konplexuan daude, eta denbora behar da egoera horrekin lotzeko." Hurkoako gizarte-langilea.

"Baina ez da erraza; adibidez Hurkoaren tutoretzapean geratzen den senitartekoaren arreta diseinatzerakoan, orain arte bere amaren esku egon den lana deskargatzeko hainbat laguntza-aukera eskaintzen zaizkio, baina, hala eta guztiz ere, zaila da kanpotik eskaintzen zaion laguntza horrekin asmatzea, ez dituzte bere eginkizunak eskuordetu nahi, askotan ez dute onartzen", Hurkoako koordinatzailea.

"Duela urte batzuk, adineko pertsonen hauskortasun-egoerari buruzko aurretiazko azterketa bat egin ondoren, proiektu pilotu bat abiarazi genuen Irungo udalarekin batera, gizarte-zerbitzuekin koordinatuta, "Hauskortasun-egoeran dauden pertsonen arreta" izenekoa. Gaur egun, programa

hartan parte hartu zuten pertsona batzuei arreta ematen jarraitzen dugu, haiei arreta ematen jarraitzeko konpromisoa hartu genuelako”. Hurkoako gizarte-langilea.

“Programa honen bidez, hainbat arrazoiengatik gaztetatik ama ezkongabeak izan diren emakumeak ezagutu ditugu; haietako batek tratu txarrak jasan zituen, eta horrek eragina izan du gerora izan dituen harremanetan”, Hurkoako gizarte-langilea.

Fundazioak esperientzia positibo gisa nabarmendu du abian jarritako programa; izan ere, gizarte-zerbitzuekin koordinatuta, arreta pertsonalizatua eskaini ahal izan zitzairen hauskortasun-egoeran zeuden pertsonen, eta zeregin horrek denbora eskatzen du kudeaketak egiteko, bai eta programaren onura jasotzen duten pertsonak ezagutzeko eta haien konfiantza izateko ere.

Irunen, zehazki, adinekoentzako zentro sozialak ireki dituzte auzoetan pixkanaka. Zentro horietako erabiltzaile gehienak emakumeak dira, eta gehiago sozializatzen dira.

Zentro horiek desberdinak dira elkarren artean, baina auzoetako udal-baliabide bihurtzeko aukera ematen dute, eta gizarte-zerbitzuak haietara hurbiltzeko aukera paregabea da.

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

Denontzat irisgarriak diren etxeak, garraioak eta hiriak izateko diseinu unibertsala eta irisgarritasuna sustatzeak gizarte gisa mesede egiten digu, eta ez soilik adinekoei.

Gipuzkoan, 55 urtetik gorako pertsonen % 27,3 (27.000 pertsona) pertsona bakarreko etxeetan bizi da. Haietako % 72,4 emakumeak dira eta % 40a 80 urtetik gorako pertsonak dira.

Errealitate hori kontuan hartuko duten etxebizitza-politika publikoak ezartzea beharrezkoa da, adinekoei beren etxeak egokitzeko laguntzak eta ezagutza emango dizkietenak.

Espazio publikoetarako irisgarritasuna eta oztopoak kentzea edo espaloiak egokitzea funtsezkoak dira mugikortasun inklusiborako.

Irun lagunkoiak egindako inkestan¹⁴, Irungo hirigintzari buruzko ondorioetako bat komun publikoak gehitu behar zirela izan zen, eta, horrez gain, hirian zehar mapak sortu behar zirela, Irunen zerbitzu publikoak dauden lekuak adierazteko. Era berean, banku desegokiak aldatzea proposatzen zuten, altuagoak, beso eta bizkarralde altuagoekin. Gurpildun aukietan diren pertsonentzat irisgarriak ziren iturriak jartzeko ere eskatzen zen inkesta hartan.

Adinekoek egiten dituzten ibilbideak, haien beharrak eta nahiak hirigintza-planetan jaso beharko lirarteke.

"Atsedeen hartzeko espazioen beharra, itzalpeko bankuak... kontuan hartu beharreko gauzak dira", Maritxu San Pedro.

Aipatzekoa da Irun lagunkoiaren dokumentua egiteko egindako herritarren topaketa guztietan segurtasun ezaren sentazioa handiagoa zela emakumeentzat gizonentzat baino. Parte-hartzaile askok, sexua edozein dela ere, adierazi dute Irunen puntu asko ez direla bereziki seguruak emakumeentzat.

Gainera, hirian migrazioei buruz egindako proiektuan, segurtasun ezak bat egiten du immigrazioarekin, behin eta berriz:

"Jende ezezagun asko dago auzoan. Beldurra ematen du gaez irteteak", M. Jimenez migrazioei buruzko mapako partaidea.

Inmigrazioaren euskal behatokia den Ikuspegiren barometroaren arabera, EAEko atzerriko jatorriko biztanleen bolumenari buruzko pertzepzioak ez du zerikusirik errealitatearekin, eta sentazioa benetako kopuruaren bikoitza da-eta. Hau da, % 20,4ko immigrazioa hautematen da, errealitatean % 10,9koa denean. Generoaren arabera, emakumeek nabarmen gehiago hautematen dute atzerriko jatorriko pertsonen kopurua (% 23,3) gizonek baino (% 17,6).¹⁵

14 <https://extranet.who.int/agefriendlyworld/wp-content/uploads/2018/04/Diagnostico-Irun-Lagunkoia.pdf>

15 https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_eus.pdf

Zentzu horretan, auzoko jendea ezagutzen ez denez, segurtasun ezaren pertzepzioa hazi egiten da, eta, beraz, beharrezkoa da elkar ezagutzeko espazioak sortzea.

Garraio publikoari dagokionez, autobusa da adineko pertsonen irunen gehien erabiltzen duten bitartekoa. Eta urrutien dauden auzoetan bizi diren pertsonen kasuan, hala nola Behobian eta Landetxan, erabilera-maiztasuna handitu egiten da, eta kudeaketa gehienetarako erabiltzen da.

Oro har, garraioaren pertzepzioa ona da, baina aldarrikapenen artean maiztasunak zabaltzea dago; bereziki asteburu eta jaiegunetan, kultura-ekitaldietarako edo gizarte-bizitzarako sarbidea ez mugatzeko.

Era berean, herritarren zerbitzuak sare horretara konektatzeko beharra ere eskatzen da, eta, horretarako, Erdialdeko Anbulategira (Iturrino anaiak) eta HAZera konektatzeko aukerak zabaldu behar dira. HAZen kokapenak, malda oso handian, adinekoen sarbidea zailtzen duela ere nabarmendu izan da maiz.

BALIABIDEAK IRUNEN

ELKARTEAK

MAKILA

Helburu sozial eta kulturalak dituen adinekoen elkarte.

NAGUSILAN

Boluntarioek osatutako irabazi-asmorik gabeko elkarte. Laguntza eskaintzen diete nahi gabeko bakardade-egoeran dauden adinekoei. Gainera, zahartze aktiboa sustatzen dute konpromiso solidarioaren bidez, babes sozial eta afektiboko beharrak betez.

Telefono bidezko laguntza (Zilarrezko haria)

HURKOA

Irabazi-asmorik gabeko erakundea, hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adinekoen eta/edo gaixotasun mentala dutenen eskubideak eta bizi-kalitatea defendatzen dituena.

Orientabide eta aholkularitza espezializatu eskaintzen dute, kasu bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egiten dute eta, tutoretza-egoeretan, tutoretzapeko pertsonen beharrian pertsonalei eta ondare-premiei erantzuten diete.

IZARBIDE

Informatikako Borondatezko Erretiratuen Elkarte.

Adinekoei teknologia berrien ezagutza sustatzeko elkarte. Elkartearen jarduera nagusia adinekoentzako informatika tailerrak egitea da, Luis Marianoko adinekoen udal gizarte zentroan.

APPEBIDA

Aurrejubilatuen eta Pentsiodunen Bidasoako Elkarte. Elkartearen helburua aurrejubilatuen eta pentsiodunen kolektiboen interes orokorrak defendatzea da, kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonen baldintza ekonomiko, legal eta sozialak hobetzen saiatuz, beren helburuak lortzera bideratutako era guztietako jarduerak garatuz.

GURE-ALTXOR

Adinekoen elkarte, Iraso adinekoen udal-zentro sozialean aisialdi, kultura eta osasun jarduerak egiten dituena.

AFAGI

Alzheimerra duten gaixoen eta narriadura kognitiboa edo dementzia motaren bat duten pertsonen senideei arreta ematera bideratutako elkarteak.

SOROXARTA

Adinekoentzako aisialdi, kultura eta osasun jarduerak egiten dituen elkarteak.

UDAL PROGRAMAK

Adinekoei zuzendutako zerbitzu-zorroa osatzeko, erakunde ezberdinek hartzen dute parte, eta horietako asko dagokion gizarte-langilearekin izapidetzen dira. Horrela, hemen aipatuko ez ditugun laguntza gehiago jaso ditzakete Irungo adineko pertsonak, baina lan honetan udal-eremutik kudeatzen diren programetara mugatuko gara.

ETXEZ ETXeko LAGUNTZA-ZERBITZUA

- > Narriadura prebenitza eta autonomia-galera hobetzea edo konpentsatzea, norberaren zaintza eta ongizatea ziurtatzeko edo etxeko ingurunea bizigarritasun-baldintza egokietan mantentzeko beharrezkoak diren jarduerak egiteko laguntza ematea.
- > Arreta-sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea.
- > Pertsona bere etxean mantentzen laguntzea eta bere segurtasun-sentimendua sendotzea.
- > Erabiltzaileak komunitate-ingurunean integratzen laguntzea, isolamendu- eta/edo bazterketa-egoerak saihestuz.
- > Krisi-egoeretan dauden pertsonak edo familiei laguntzea, bizikidetzagiroa hobetzeko eta/edo arriskuren bat dakarten egoerei aurrea hartzeko.
- > Beste baliabide batzuek edo beste zerbitzu batzuen esku-hartzeak eska ditzaketen premia-egoerak detektatzeko elementu gisa balio izatea.

Hiru arreta-mota ematen dira:

- > Etxeko lanak: etxearren garbitasuna eta ordena mantentzea, arropa garbitzea eta lisatzea, ohea egitea, erosketak egitea, janaria prestatzeko laguntza ematea.
- > Arreta pertsonaleko zereginak: oinarritzko jardueretarako (norberaren garbitasuna eta higiena, arropa aldatzea, altxatzea eta oheratzea, postura-aldaketak, janaria ematea edo jartzea) eta gizarte- eta komunitate-jardueretarako (kudeaketetarako laguntza, mediku-kontsultetara laguntza, jarduera edo zerbitzuetarako sarbidea erraztea).
- > Etxez etxeko otordu-zerbitzua: prestatutako janariak etxera eramaten dira, pertsona bakoitzaren elikadura-beharren arabera (familia-medikuaren aginduekin).

UDAL-EREMUTIK KUDEATUTAKO ZENTROAK

Adinekoak bizitzeko bi udal baliabide daude egun. Lekaeneako apartamentu babestuak eta egoitza-etxebizitzak dira.

Lekaeneako udal-apartamentu babestuetan, logela erabiltzeko eskubidea erosteko 30 apartamentu daude, erabiltzeko eskubidea alokatzeko 5 eta beste 5 alokairu sozialerako. Beraz, 40 apartamentuko

eskaintza dago, guztira 80 leku eskaintzen dituen. Eta, azkenik, gaur egun, egoitza-etxebizitzak daude, 24 plazarekin.

ADINEKOENTZAKO GIZARTE-ZENTROAK

Irungo udal-erantzukizuneko zentroak dira, eta topaleku izateaz gainera, garapen eta aisialdirako egokiak dira adinekoentzat.

Gaur egun, honako hauek dira:

> Luis Marianoren Udal Gizarte Etxea

Luis Mariano kalea, 1. 20302- Irun.

Tel.: 943 39 88

> Irasoko Udal Gizarte Etxea

Virgen Milagrosa kalea, z/g. 20304- Irun.

Tel.: 943 05 65

> San Migeleko adinekoen lokala

Javier Esteban Indart kalea, 5. 20301- Irun.

Tel.: 943 143 678

> Belaskoeneako adinekoen lokala

Ferrones kalea, 32. 20303- Irun.

Tel.: 943 06 882

> Palmera Monteroko adinekoen lokala

Leandro Agirretxe, 1- Marco Palmera Montero Gunea- Irun

Tel.: 943 06 07

> Behobiako adinekoen lokala

María Juncal Labandibar 34- Antzinako Guardia Kidegoaren eraikina- Irun

Tel.: 943 730 412

> Anaka-Puianako adinekoen lokala

Aristegi enbaxadorea plaza, 6-7 behe- Irun

Tel.: 943 573 551

Gizarte-espazioen helburu nagusia adinekoen bizi-kalitatea hobetzea lortzen duen topalekua izatea da, isolamendua saihestuz eta gizarte-bizitzan aktiboki parte har dezaten sustatuz, haien ongizate fisiko, psikiko, emozional eta soziala bultzatuko duten jarduerak sustatuz. Hartzaileak 60 urtetik gorako pertsona guztiak dira, bai eta aurrekoen ezkontideak edo izatezko bikotekideak diren 60 urtetik beherakoak ere.

ADINEKOENTZAKO ISOLAMENDU SOZIALA ETA NARRIADURA KOGNITIBOA PREBENITZEKO PROGRAMA

Helburua: Irunen bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonen kolektiboaren barruan, gizarte-isolamenduko, narriadura kognitiboko edo beste bazterketa-egoera batzuetako arrisku-egoerak detektatzea, baliabideei buruzko informazioa eman ahal izateko edo Gizarte Zerbitzuetatik esku hartu ahal izateko.

Norentzat:

- > Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak.
- > Irunen erroldatuta daudenak.
- > Aurreko urtean bakarrik bizi izan ziren pertsonak.

NEURRI OROKORRAK

Errepaso gisa, hauek lirateke adineko emakumeek bizitza oso bat bizitzeko Irunen dituzten zailtasunak arintzeko neurri orokorrak:

- 1) Administrazio-izapideak egiteko erraztasunak izatea.
- 2) Integraziorako erraztasunak eta dauden baliabideak ezagutzeko neurriak egotea.
- 3) Emakumeen pentsioetako prekarietatearen aurkako neurriak eta dauden laguntzak lortzen laguntzea.
- 4) Gizarteak iraganeko eta etorkizuneko ekarpenak aitortzea.
- 5) Etxebizitza eta hirigintza inklusiboa eskuratzeko erraztasunak.
- 6) Genero-indarkeriaren aurrean zaurgarritasun handiagoa duten kolektiboa izanik, neurriak bideratzea.
- 7) Komunitatean bizitza errazteko baliabideak eta muturreko kasuak, antzematea eta diziplinarteko jarduna bideratzea.

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
OSASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Egungo ethez etxeko laguntza-zerbitzua birkontzeptualizatzea. - Geriatrien beharra aldarrikatu. - Zahartze osasungarriari buruzko kontzientziazio-kanpainak. - Adineko emakumeen tratamenduari buruzko prestakuntza. - Adineko emakumeei laguntza psikologikoa hurbiltzea.
HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko emakumeak ahalduntzeko ekintzak. - Belaunaldien arteko programak eskoletan. - Emakumeek egindako lana aitortzea.
KULTURA ETA KIROLA	<ul style="list-style-type: none"> - Kultur aukerak, antzerki taldeak, eztabaidak bultzatzea. - Belaunaldien arteko programak bultzatzea. - Berariaz adinekoei zuzendutako kultura-eskaintza bultzatzea. - Kirol-jarduera sustatzea: zerbitzuak ezagutaraziz eta ekimen berriak bultzatuz. - Elkarleen jardueri buruzko informazioa. - Kultura-jardueretan adinekoei prezioak jaitea edo deskontuak sustatzea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eta haien zaintzaileentzako jarduerak bultzatzea. - Adinekoentzako udal-jardueren eskaintza zabaltzea. - Auzoetan aisialdirako eta denbora librerako espazioen eskaintza zabaltzea. - Kultura-espazioetan irisgarritasun-arazoak konpontzea.
ENPLEGUA ETA PENSIOAK	<ul style="list-style-type: none"> -Emakumeek egindako lanaren gaineko aintzatespen-kanpaina sozial eta instituzionalak. - Egiten duten lana aitortzeko kanpainak (zaintza, etxeko lana). - Emakumeen pentsioak osatzeko laguntzak.

<p>GENERO-INDARKERIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jendearentzako eta profesionalentzako sentsibilizazio-kanpainak; Detekzioa (balizko biktimak eta erasotzaileak). - Zaintzaileei laguntzeko esku-hartzeak (adibidez, estresaren kudeaketa, errelebo-laguntza). - Egoitzetako arretari buruzko politiketan eragin, arretaren maila zehazteko eta hobetzeko. - Dementziari buruzko prestakuntza, zaintzaileentzat.
<p>GIZARTE-INKLUSIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuak deszentralizatzea, auzoetara hurbilduz. - Ibilbide pertsonalizatuak sortzea diziplina anitzeko taldeekin. -Zahartzeari buruzko kontzientziazio handiagoa lortzeko kanpainak bultzatzea. - Jaietan eta adinekoentzako zentroetan belaunaldien arteko programak sortzea. - Kulturarteko programak eta bizikidetza sustatzeko programak sortzea. - Emakume zaintzaileentzako laguntzak hurbiltzea.
<p>HIRIGINTZA ETA GARRAIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitzen bizigarritasuna hobetzeko dauden laguntzak ezagutaraztea. - Garraio publikoaren erabilerari buruzko proposamenak baloratzea eta jasotzea. - Atsedenlekuak planifikatzea, bankuak. - Oztopo arkitektonikoak kentzea. - Baliabideetara egokitutako sarbidea eta irisgarritasuna, dirua ateratzea, edukiontzia...

3.3. DIBERTSITATE FUNZIONALA

SARRERA

Dibertsitate funtzionala duten emakume eta neskek beren zaurgarritasuna larriagotzen duten oztopoei aurre egin behar diete, emakume izateagatik batetik, eta duten desgaitasunagatik bestetik. Aldi berean sufritzen duten errealitate honek diskriminazio eta gizarte-bazterketako arrisku handiagoa dakar. Emakume horiek desgaitasunen bat duten gizonak eta desgaitasunik gabeko emakumeek baino diskriminazio handiagoa jasaten dute.

Genero eta desgaitasunagatik sufritzen den diskriminazio mota euren artean harremana duten kategoria gisa ulertu behar da. Ez da genero eta desgaitasuna izateagatik jasaten den diskriminazioen batura automatikoa, gurutzatzen diren interseksionalitate hauek egoera espezifikoak sortzen ditu, eta egoera horien aurrean irtenbide zehatzak hartu behar dira.

Generoaren eta desgaitasunaren arabera bereizitako datuak mugatuak diren arren, gaur egun egindako azterlanek argi adierazten dute adibidez, desgaitasunen bat duten neskek eta emakumeek gainerakoek baino ikasketa maila baxuagoa dutela, lan-mundurako sarbide mugatuagoa dutela, bai prestakuntza txikiagoa dutelako, bai eta etxeko lanetan aritzera behartuak direlako; indarkeria-egoerak eta mota guztietako abusuak jasateko arrisku handiagoa dutela edo osasun- eta amatasun-zerbitzuetarako sarbide mugatuagoa dutela, besteak beste.

Emakume hauek jasaten duten diskriminazioa nabarmena bada ere, gutxien ikusten den diskriminazio-moduetako bat da. Desgaitasuna elementu negatiboa denaren ideia bizirik dirau oraindik ere gure gizartearen imajinarioan; desgaitasuna tragediatzat ulertzen da. Bizi dugun testuinguruan oinarritzen da pertzepzio hori, izan ere, gizartea arlo ekonomikoan eta ekoizpen-gaitasunean oinarritutako garapen-adierazleen arabera antolatu dugu. Garapen-eredu horrek gaitasunen arabera antolatu eta bereizten du gizartea, normaltasuna eta anormaltasuna binomioen arabera. Muga horren arabera gainera, gaitasunak, ezintasunak eta rolak esleitzen dira. Errotuak dauden estereotipo horiek desgaitasuna duten emakumeek beren buruaz duten irudia ere desitxuratu egiten dute, euren autoestimuan eragin negatiboa izanik eta bizi dituzten diskriminazio-egoera horiei aurre egiteko baliabiderik gabe utziz.

Talde eta eragile askok lan egiten dute aniztasun funtzionalaren inguruan, eta desgaitasuna duten emakumeen beharrezan eta egoera espezifikoak administrazioek ezarritako politiketan behar bezala jasoak ez daudela iritzi dute denek. Ildo horretan, desgaitasuna duten emakumeen behar ia gehienak Gizarte Ongizateko sailetik bakarrik artatzen direla salatzen dute.

Dibertsitate funtzionala duten emakumeek jasaten duten diskriminazio anizkoitzaren ondorioz gizarte-bazterketa jasateko arriskua dute haietako askok. Hala ere, horrek ez du esan nahi egoera horri Gizarte Ongizateko arlotik soilik heldu behar zaionik.

Desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten diskriminazio bikoitza arintzeko, generoaren eta desgaitasunaren aldagaiak, aldi berean, politiken plangintza eta ebaluazio guztietan txertatzearen alde egiten dute eremu horretan lan egiten duten kolektiboek; hala nola enpleguan, etxebizitzan edo hezkuntzan. Aniztasun funtzionala zeharka lantzearen aldeko aldarria da egiten dutena, emakumeen eta desgaitasunen bat duten pertsonen errealitateak politika guztietan islatu eta aintzat har daitezen.

Ikerketa hau egiteko bi elkarrizketa sakon egin ditugu. Alde batetik, Ainhoa Fiz irundarrarekin harremanetan jarri gara, Atzegi elkarteko Bizitza Independentea proiektuaren arduraduna da, bai eta berdintasun-gaien arduraduna ere. Eta, bestetik, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea den Elkartuko Berdintasun Saileko arduraduna den Rosa Ugarterekin egon gara.

KONTZEPTUA EZTABAIDAGAI

Dibertsitate funtzionala duen kolektiboaren izendapenaren inguruko eztabaidak airean jarraitzen du, 2005ean Bizitza Independentearen Foroak dibertsitate funtzionalaren terminoa sortu zuenetik. Kontzeptu berri honen helburua jarduerak egiteko dauden modu desberdinetan arreta jartzea da, aniztasunaren ikuspegia txertatuz.

Orain arte baztertuta eta estigmatizatuta egon den kolektibo bat modu positiboan izendatzea lortu bada ere, kontzeptu horren erabilera oraindik ez da unibertsala. Atzegik, adibidez, adimen-urritasun terminoa erabiltzen jarraitzen du oraindik ere.

Atzegiko arduradunaren ustez, dibertsitate funtzionalaren terminoa "*oso egokia*" bada ere bere aburuz, "*gizartea oraindik ez dago termino hau erabiltzeko prest*". "*Termino horrekin kolektibo horren beharrak difuminatu egiten dira*", esan du eta kontzeptua aldatu ahal izateko, lehenengo gizartea aldatu behar dela sostengatu du.

Fizen ustez, gainera, adimen-desgaitasunaren terminoa ez da gutxiesgarria, eta, desgaitasunari arreta jarri beharrean, pertsona horiek gizartearekiko interakzioetan dituzten beharrizanetan jartzen du.

IRUN, DATUETAN

Mendekotasuna duten eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretari dagokionez, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak desgaitasuna eta mendekotasuna baloratzeko eskaerak izapidetzen jarraitzen du.

Pertsona baten mendetasun-egoera aitortzea errazten duen tresna da honakoa, eta nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren esku egon errekurtsuaren ebazpena, eskaera Irungo Gizarte Zerbitzuen bidez egiten da.

Azken urtean, mendekotasuna baloratzeko 966 eskaera eta desgaitasuna baloratzeko 560 eskaera kudeatu dira. Mendekotasunaren Legearen prestazio ekonomikoen onuradun izateko, aldiz, 424 pertsonak aurkeztu dute eskabidea.

Polizia-zerbitzuekin (Ertzaintza eta Udaltzaingoarekin) lankidetzan aritzen da ere Ongizate Saila, adineko pertsonen babesgabetasun-egoerak detektatu eta esku-hartzeko. Aurten, 45 egoeratan jardun da poliziaren partea jaso ondoren.

Indicadores básicos de Irun

		Irun		
		2019		
Bloque	Indicadores y variables	Hombres	Mujeres	Total
Necesidades sociales	A07 Personas de 65 y más años con dependencia a 31/12	464	1.125	1.589
	A08 Tasa de dependencia entre las personas de 65 y más años (%)	8,13	14,43	11,77
	A09 Personas de 18 a 64 años con dependencia a 31/12	247	179	426
	A10 Tasa de dependencia entre las personas de 18 a 64 años (%)	1,27	0,94	1,11
	A11 Personas con grado de discapacidad entre 33%-74% a 31/12	1.797	1.263	3.060
	A12 Tasa de personas con grado de discapacidad entre 33%-74% (%)	5,89	3,96	4,9
	A13 Personas con grado de discapacidad igual o superior al 75% a 31/12	315	333	648
	A14 Tasa de personas con grado de discapacidad igual o superior al 75% (%)	1,03	1,04	1,04
	A15 Personas de 18 a 64 años con grado de discapacidad igual o superior al 75% a 31/12	169	135	304
	A16 Tasa de personas de 18 a 64 años con grado de discapacidad igual o superior al 75%	0,87	0,71	0,79

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen oztopo fisiko, administratibo eta antolaketari dagozkionak aurkitzen dituzte osasunaren alorrean arreta egokia jasotzerako garaian, hala dio bederen Euskadiko desgaitasunari buruzko liburu zuriak¹⁶.

Hautemandako premien artean, profesionalen kolektiboaren aniztasunari buruz duten ezjakintasuna eta pertsona bakoitzaren banakako eta diziplinarteko lanketaren beharra daude.

Horri guztiari, osasun publikoko zerbitzuetan, batez ere ugalketa-osasunari eta sexu-eskubideei loturiko zerbitzuetan, dibertsitate funtzionala duten emakumeek aurkitzen dituzten trabak gehitu behar zaizkio.

Alde batetik, osasun-zentroetarako irisgarritasuna eta kontsulta ginekologikoetan erabiltzen den tresneria dago; izan ere, ohatilek eta miaketak edo mamografiak egiteko ekipamenduek ez dute aintzat hartzen dibertsitate funtzionala duten emakumeen egoera.

EAEko ospitaleetako arreta ginekologikoko kontsultetan ez da aurkitu irisgarria den diagnostiko-mahairik. Ohatilen %45ek soilik dute transferentzia bat egiteko altuera egokia, hala ere euren ezaugarriengatik, ia ezinezkoa da horiek aurkitzea. Egoera halakoa izan arren, kontsulten %4ak baino ez dute lekualdatzeko garabia. Kontsultetako ateen %28k baino ez dute zabalera egokia, eta kontsultategien %44tan soilik egin daiteke bira barruan. Gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten emakumeek ez dituzte aldagelak eskura eta komunen %20 ez da irisgarria eurentzat.¹⁷

Desgaitasun intelektuala duten emakumei dagokienez, beren osasun-egoerari edo ekin beharreko tratamenduei buruzko informazio ulerterraza izateko eskubidea ukatzen zaie, autonomia eta erabakiak hartzeko duten eskubidea ukatuz. Eta hori larriagotu egiten da sexu-eskubideen eta amatasunaren alorrean.

Legeak dionez, *"Informazio kliniko asistentzia-jarduera guztien parte da, egiazkoa izango da, pazienteari modu ulergarrian eta bere beharren arabera jakinaraziko zaio, eta bere borondatea errespetatuz, erabakiak hartzen lagunduko zaio. Pazientearen ardura duen mediku-taldeak informazioa jasotzeko duen eskubidea bermatuko dio pazienteari. Laguntza-prozesuan arreta ematen dioten edo teknika edo prozedura jakin bat aplikatzen dioten profesionalen taldeak ere informazioa emateko ardura izango du, horretarako beharrezkoak diren baliabide material eta humanoak erabiliz"*¹⁸. Legeak hori dioen arren, eskaintzen diren giza baliabide eta baliabide fisikoak

16 <http://www.edeka.es/wp-content/uploads/2017/11/Libro-Blanco-de-la-Discapacidad-1.pdf>

17 Diagnóstico de accesibilidad en los hospitales de la CAPV para las personas con discapacidad del Ararteko (2017).

18 <https://www.boe.es/eli/es/l/2002/11/14/41/con>

oso mugatuak dira eta ez dute dibertsitate funtzionala duten pertsonen behar heterogeneoei erantzuten; hala nola, larrialdi zerbitzuetara doazen entzumen-desgaitasuna duten pertsonak, ala errezetak irakurtzeko gaitasunik ez duten ikusmen-urritasuna duten pertsonak.

Desgaitasuna duten pertsonen esterilizazio behartua edo baimendu gabekoa eskubideen urraketa larria da. Pixkanaka atzean geratzen ari den praktika bat dela dirudi, izan ere, iazko abenduan, hura desagerrarazteko Espainiako Senatuaren Osoko Bilkurak Zigor Kodea aldatzeko Lege Organikoaren proposamena onartu zuen. Fizek gogora ekarri duenez, duela urte batzuk praktika hori oso zabalduta zegoen: *"Beren alabak haurdun geratuko zirenaren beldur ziren gurasoak, eta, hori saihesteko, alabak antzutu egiten zituzten"*. Eta noski praktika hori askoz zabalduagoa zen emakumeekiko. Orain, ordea, informazioarekin eta hezkuntzarekin lan egiten dute emakumeek eurek erabaki dezaten; *"neurri iraunkorrek saihesten ditugu, uste baitugu laguntzarekin eta hezkuntzarekin gauza asko alda daitezkeela"*, adierazi du Fizek.

Rosa Ugartek, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea den Elkartu erakundeko Berdintasun arloko arduradunak, adierazi duenez, lehen bezain hedatuta ez dagoen arren, behartutako esterilizazioa egon badago. *"Pertsona horien tutoreek eurengatik erabaki dezakete eta mediku batzuek ez dute arazorik antzutzeko"*, salatu du. Horrez gain, sexu-transmisiozko gaixotasunen gaia jarri du mahai gainean Ugartek, izan ere, gaixotasun horiek nahiko ohikoak dira dibertsitate funtzionala duten emakumeengan. *"Eta horretaz inor ez da arduratzen, batzuetan bortxaketak izateraino iristen diren praktika sexuarekin hartzen dituzte sexu-transmisiozko gaixotasunak"*, salatu du.

Oro har, Desgaitasunari buruzko Euskadiko liburu zuriak¹⁹ dauden elkarten inguruko orientazioa eskaini behar dela eta familien beharrak osasun-arloan ere txertatu behar direla nabarmentzen du.

Autonomia erraztu eta pertsonen duintasuna errespetatuko duten baliabide eta baldintza guztiak artikulatzea aldarrikatzen dute aniztasun funtzionala lantzen duten elkarteek; horretarako, prestakuntza eta bitartekoak eskatzen dituzte, diziplina eta erakunde artekoak.

19 https://gorabide.com/ARCHIVOS/index.php?LIBRO_BLANCO_DISCAPACIDAD_EUSKADI.pdf

HEZKUNTZA

Urteek aurrera egin ahala behera doan arren, oraindik ere bada maila akademikoan aldea desgaitasuna duten emakume eta ez duten gainerako emakumeen artean. Egoera horrek kohesioari, parte-hartzeari eta gizarte-portaerari eragiten dieten ondorioak dakartza berekin.

INEren 2018ko datuen arabera, desgaitasuna duten emakumeen % 5 analfabetoa da (% 0,5, berriz, desgaitasunik ez duten emakumeen artean). Lehen mailako ikasketak dituzten pertsona desgaituen ehunekoa %20koa da (desgaitasunik gabeko biztanleen % 8ren aldean), eta soilik %17k ditu goi-mailako ikasketak desgaitasuna duten emakumeen artean (desgaitasunik gabeko biztanleen % 35en aldean)²⁰.

Dibertsitate funtzionala duten haurrak ohiko eskola-sisteman eskolatzeari buruzko eztabaida Gipuzkoan gaituta dagoela uste du Atzegik. Izan ere, ia ez dago aniztasun funtzionala duten haurrentzako ikastetxe berezirik.

"Beste gauza bat da eskola arruntean aniztasun funtzionala duten ikasleak behar bezala integratu diren edo ez, eta hor oraindik asko dago egiteko", azpimarratu du.

Hezkuntza sistema ez da beti prest egoten heziketa-ziklo guztietan desgaitasun mota desberdinak artatzeko, eta Elkartuk azpimarratzen duen moduan inklusioa ingurune guztietan landu behar da.

"Onartezina da aniztasun funtzionala duen neska bat adibidez, bere ikaskideak jolasten duten patiora ezin joatea, edo kirol-jarduerara edota ikasgelako txangora. Ordu eta espazio guztietan landu behar da inklusioa eta, ez eskola-orduetan bakarrik", salatu du Ugartek.

Aniztasun funtzionala duten neskatoek mutilek baino lehenago uzten dituzte ikasketak. Batetik, familiak neskatoak babesteko ohitura handiagoa dute, neskek ikastetxe arruntetan jasango dutenaren beldurrez. Bestetik, estereotipo eta aurreiritziek emakume horien garapen akademikoari garrantzi urria ematen diote eta horrek eragina du eskola uzterako orduan, izan ere etxeko lanak egitera bultzatzen dituzte etxean bertan.

Alabaina, Elkartuk egin duen azken ikerketaren arabera, ikasketak uzten ez dituzten aniztasun funtzionala duten emakumeek desgaitasunen bat duten gizonak baino urrunago iristen dira hezkuntzaren alorrean. *"Horrek argi erakusten du, ahal, ahal dela, gaitasuna egon badagoela"*, azpimarratu du Ugartek.

KULTURA ETA KIROLA

Batetik, kultura edo kirol-jarduera horiek eskaintzen diren lekuetara heltzeko irisgarritasun fisikoa bermatu behar da, bai eta edukietarako irisgarritasun sentsoriala ere.

Hori funtsezkoa da dibertsitate funtzionala duten emakumeek eremu hauetaz gozatu ahal izateko, eta, ildo horretan, Fizek uste du azken urteotan ahalegin handia egiten ari direla;

"Dibertsitate funtzionala duten pertsonen egokitutako seinaleak gero eta leku gehiagotan erabiltzen dira. Museo askok egin dute lan hori. Garraioan, autobusetako karteletan edo txartelak ateratzeko makinetan ere aldaketak ikusi dira, eta alderdi politiko batzuek irakurketa errazeko sistemekin egin dituzte hauteskunde-programak ere".

Kultura-zentroei dagokienean, izaera inklusiboa ezartzea beharrezkoa da, pertsona guztiek parte hartzeko irisgarritasun osoa izan dezatela bermatuz. Espazioak arau hauen arabera berrikusi egin behar dira eta irizpide horiek kontuan hartuta sortu behar dira ondorengoak. Horretarako, pertsona guztientzako Diseinuan edo Diseinu Unibertsalean oinarritu behar da, ezaugarri fisiko, sentsorial, kognitibo, dimentsional eta kultural desberdinak dituzten pertsonen zerbitzura, hau da giza aniztasunaren neurria diseinatu behar da. Ikuspegi honen arabera, ingurunea da desgaitzen duena eta beraz hura da pertsonen egokitu behar zaiena, eta ez alderantziz.

Lan honetan lagungarri izateko, Elkartu elkarteak lurraldeko museoak diseinatzeko gida bat egin du, eta bertan, elkartearen iritzia jaso dute²¹.

Hala eta guztiz ere, aniztasun funtzionalaren aldagaia modu egoki batean txertatzeko, alderdi horietatik harago joan eta aniztasuna duten emakumeek kultura eta kirolean aurkitzen dituzten oinarritzko oztopoak aztertu behar dira. Ildo horretan, azpimarratzekoak dira erosteko ahalmen urria, etxean erabakiak hartzeko duten eskumen falta, -bai babes gehiegikeriak zein etxeko lanen zamak eraginda-, eta mugitzeko autonomia txikia, neurri handi batean garraio publikoaren mende daudelako.

Kultura-programazioari dagokionez, aniztasun funtzionala ere kontuan hartu beharko litzateke herritar guztientzako proposamenak diseinatzeko xedez.

Ildo horretan, garrantzitsua da jarduerak bultzatzen dituen elkartearen lana eta kontzientziazio lana nabarmentzea eta balioestea, eta aukerak eskaintzen dituzten politika inklusiboen beharra azpimarratzea.

Kirolari dagokionez, hiriko kiroldegietan igeriketa egokitua eskaintzen da eta Bidasoa Atletiko Taldea klubak atletismo egokitua ere eskaintzen du. Gipuzkoako kirol egokituaren federazioak ere hainbat jarduera egiten ditu urtean zehar, lankidetzak eta sentsibilizazio-kanpainak hedatzeko xedez.

21 https://elkartu.org/pdf/kultura-inklusiboaren-bidean_hacia-una-cultura-inclusiva.pdf

Emakumeen artean kirol-jarduera txikiagoa da oro har. Gipuzkoan, adibidez, eskola-kiroletik hasita, 2018/2019 ikasturtean, %59,48 mutilak ziren eta neskek %40,52 lehiaketa-jardueretan. Kirol federatuan ere aldea handitu egiten da, eta ematen diren lizentzien artean, 54.850 dira gizon kirolarientzako (% 77,36) eta 16.052 emakumezko kirolarientzako (% 22,64)²².

Kirolak desgaitasuna duten emakumeentzat dituen gizarte-inplikazioak aztertu eta ulertzeko, interesgarria da kirolariek eurek beren kirol praktikei buruz diotena entzutea. Ildo horretan, Andersonen eta Wozencroften²³ ikerketek ondorioztatu duenez, gurgil-aulkiko kirol-programetan parte hartzen duten emakume kirolari nerabeen arabera, eurek jasotzen duten babes eta aintzatespen soziala, kirolik egiten ez duten eta aniztasun funtzionala duten beste neskek jasotzen dutena baino handiagoa da.

Ikerketaren arabera, desgaitasuna duten nerabe kirolari gehienek beren praktikarekin osasun fisiko hobea eta dibertsio handiagoa lortzen dute eta, sozialki, erreakzio positiboak pizten dituztela uste dute; aldi berean, proposatzen zaizkien helburuak lortzeko motibatuak agertzen ziren.

Era berean, azpimarratzekoa da politika, administrazio eta kirol maila gorenetan, emakumeek erantzukizuneko kargu gutxiago betetzen dituztela, eta honek emakume kirolarien parte-hartzea bultzatzera bideratutako programa eta baliabide ekonomiko kopuru txikiagoan du eragina.

Bestalde, dibertsitate funtzionala duten emakumeek kirolarekiko duten urruntzea izugarria da, kirol-jardueraren aurrean dauden aurreiritzi kulturalak direla eta. Aurreiritzi horiek familiaratik eta ikastetxetik hasten dira, eta, azkenean, emakumeen euren autoestimuan dute eragina. Ildo horretan, sensibilizazio-kanpainak egin behar dira, kirola egitearen abantailez kontzientziatzeko.

22 <https://www.gipuzkoa.eus/documents/4004868/0/Informe+Igualdad+2020/18888844-fa45-5277-2750-e096a0f4cf76>

23 <https://psycnet.apa.org/record/2008-06343-001>

ENPLEGUA ETA ZAINTZAK

Desgaitasuna duten pertsonentzat funtsezkoa da lanak duen balioespena eta eragin positiboa; izan ere, laguntza iturri paregabea da autoestimurako, autonomiarako, parte-hartzerako eta gizarte eta harremanen garapenerako.

Ardatz honetan ere aniztasun funtzionala duten emakumeen laneratzea txikiagoa da; izan ere, emakumeen jarduera-tasa 12 puntu txikiagoa da desgaitasuna duten gizonekin alderatuta, eta 38 puntu txikiagoa da desgaitasunik gabeko emakumeen jarduera-tasa baino, INEren 2018ko datuen arabera.

Kezkagarria da desgaitasuna duten emakumeek zaintza-lanekin duten harremana. Izan ere, indarrean dauden estereotipoek emakume horiek bikote edo amen roletarako baliozkotzat jotzen ez dituzten bitartean, errealitateak zaintzaile izatera lotzen ditu beren familia-eremuan. Fizek gogorarazi duenez, desgaitasuna duten pertsonak askoz denbora gehiago bizi dira gurasoen etxean, batzuk bizitza osoan, eta horrek rolak aldatzea eragiten du, batez ere emakumea izanez gero. *"Egun batean, pertsona zaindua izatetik, guraso zaharrak zaintzen dituen izatera igarotzen dira"*, gaineratu du.

Elkartu elkarteko arduradunarentzat, zainketen inguruan dagoen moral bikoitza kezkagarria da.

"Emakumeek euren bizimodua, ama izatea edo bikotekidearekin bizitza askatasunez aukeratu ezin duten bitartean, gainerakoek erabaki dezakete etxean geratu behar duela, jada adinekoak diren gurasoak edo behar duen edozein senide zaintzen", gaineratu du. Gainera, ezintasunen bat duten emakume horiei ukatu egin zaie Gipuzkoako Foru Aldundiak familiako zaintzaileei ematen dien laguntza.

Ugartek salatu duenez, aniztasun funtzionaleko egoera ama izan ostean helduz gero, ohikoa da seme-alabengandik bereiztea. *"Istripu baten ondoren edo iktus bat izan ondoren bikote-harremana arriskuan jartzen bada, dibortzio-prozesu horietan desgaitasuna erabiltzen da emakume horiek beren seme-alabengandik bereizteko"*, salatu eta emakume horiei erraztasunak eta laguntzak ematearen alde egin du, seme alaben hazkuntzarekin jarraitu ahal izateko.

Etxeko lanek eragindako zamak eta dibertsitate funtzionala duten emakumeek izaten duten maila akademiko baxuak lan-merkatuan sartzea eragozten die gainerako emakumeei eta desgaitasuna duten gizonei baino proportzio handiagoan, eta, ondorioz, beren egoera sozioekonomikoa zaugarria izan ohi da.

Desgaitasuna duten emakumeen lan-jardueraren tasa baxuan aurkitzen dugun beste arrazoietako bat emakume horiek beren buruarekiko duten autoestimu baxuarekin lotua dago.

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

Azkenik, nabarmentzekoa da ezkutuko ekonomian, garbiketan edo zaintza lanetan aritzen diren emakume desgaituen kopuru handia. Enplegu formalak jasotzen dituzten pentsioei uko egitera behartzen ditu eta honek ezkutuko ekonomiara bultzatzen ditu.

GENERO-INDARKERIA

Desgaitasuna duten emakumeen % 80a indarkeriaren biktima izan da, eta sexu-indarkeria jasateko arriskua gainerako emakumeek dutena baino lau aldiz handiagoa da aniztasun funtzionala duten emakumeen kasuan. Datu horiek Europako Parlamentuaren 2007ko apirilaren 26ko Ebazpenak jarri zituen mahai gainean.

Era berean, 2019an Espainiako Estatuan emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako makroinkestaren arabera²⁴, desgaitasuna duten emakumeen % 20,7k bikotekideren baten eskutik indarkeria fisikoa edo sexuala jasan du (desgaitasunik ez duten emakumeen % 13,8aren aldean). Desgaitasuna duten emakumeen % 40,4ak indarkeria jasan du bikotean (desgaitasunik ez duten emakumeen % 31,9aren aldean).

Atzegiko arduradunaren ustez, datu horiek ez dira errealitatek urrun egongo, eta adimen urritasuna duten emakumeen kasuan erasotzailearekiko izan dezaketen botere eta menpekotasun harremana "*basatia*" dela azpimarratu du. "*Hasteko, emakume horien maila sozioekonomiko baxua dago, eta bestalde, emakumeen aurkako hertsapen eta mehatxu-maila ere handiagoa da, adimen-urritasuna duten emakumeek manipulazio-egoerak errazago jasaten baitituzte*", salatu du.

Espainiako Estatuko datuen arabera, aniztasun funtzionala duten emakumeen % 68 erakundeetan bizi da, eta horrek harreman estua ezartzen du bizimodu horren eta indarkeria jasateko arriskuaren artean.

Ugarte indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten du zuzenean, eta aitortu duenez, asko ez dira jabetu ere egiten indarkeria dela bizitzen hari diren hori. "*Askok bestearen kontakizuna entzuten dutenean, islatuta ikusten dute beren burua, eta diskurtso horretan konturatzeko dira beren egoeraz*", adierazi du, gai hori emakumeekin lantzeko beharra azpimarratzearekin batera.

Fizen ustez, eraso horiek gizarteko edozein lekutan gertatzen dira, lanean, kalean, baina ez du uste kolektibo hori artatzen duten erakundeetan gertatzen direnik. "*Gipuzkoan, behintzat, ez dago pertsona horiek bizi diren makro zentrorik, etxebizitzetan, modu autonomoan, bizi daitezela lan egiten da. Horregatik, erasoak edonon gerta daitezke*".

Hala eta guztiz ere, Ugarte eta Fiz bat datoz emakume horien desinstituzionalizazioa sustatzearen alde, eta bizitza independenteak sustatu eta autonomia pertsonala indartzearen bidean laguntza pertsonaleko zerbitzuak eskaintzearen alde egin dute.

Genero indarkeriari lotutako erasoak salatzerako orduan adimen-urritasuna duten emakumeek *handicap* handia dute, izan ere justiziarako sarbide mugatua dute. Fizen ustez, kolektibo horrek gero eta eraso gehiago salatzen ditu, baina justiziak gehiegitan jartzen du zalantzan testigantza horien egiazkotasuna.

24 <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/Macroencuesta2019/home.htm>

GIZARTE-INKLUSIOA

Gizarteratzeak pertsonak dauden gizarte-babeseko sistemetara behar bezala sartzearekin du zerikusia, baina baita pertsonak herritar gisa dagozkien eskubide eta betebeharrak eskuratzeko behar duten informazioa erabiltzeko dituzten mugekin ere. Pertsonen gizarteratzea ez da ikuspegi materialetik soilik ulertu behar, gizartean aktiboki parte hartzeko prozesua dakar berekin: herritar gisa kontzientzia hartzearekin, komunitateko kide gisa aukeratzeko eta parte hartzeko duten gaitasunarekin, erabakiak hartzearekin, etab.

Hala ere, azterlan osoan defendatu denez, desgaitasuna duten emakumeek gizarte-bazterkerian bukatu ez dezaten, jarduera eta politika publiko guztietan beren behar espezifikoak modu sistematikoa eta transbertsalean kontuan hartzea da modurik eraginkorrena.

Elkartuk, VIII. FOESSA txostenaren arabera²⁵, martxoaren 8rako egin duen dosierrean jasotzen duenez, desgaitasuna duten pertsonen % 30a gizarte-bazterketako egoeran dago. Desgaitasuna duten hiru pertsonatik bat beraz, pobrezia- eta/edo bazterketa-arriskuan dago, hau da, desgaitasunik gabeko biztanleria baino zazpi puntu gehiago.

Gizarteratzeko edo laneratzeko zerbitzuak eta programak indibidualizatzearen garrantzia jasotzen du Gizarteratzeko Euskal Planak²⁶; erabiltzaile bakoitzaren behar, aukera, nahi eta itxaropenetara ahalik eta gehien egokitzeko xedez.

Indibidualizazioaren aldeko apustu hau aktibazioaren paradigman oinarritzen da, eta bat dator gizarte-politika ororen aldaketa orokorragoarekin, izan ere, autodeterminazioaren garrantzian eta erabiltzaileek jasotzen dituzten zerbitzuen eta prestazioen gaineko kontrol-gaitasunean oinarritzen dira gero eta gehiago. Dibertsitate funtzionala duten emakumeen kasuan, bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak hartzeko autonomia sustatzea beharrezkoa da, bai eta bide horretan gizartea bera kontzientziaztea ere.

ZAINTZAILEAK

Atal berezi bat merezi dute dibertsitate funtzionala duten pertsonen zaintzaileek, gehienak emakumeak. Ama horiek beren bizitzaren zati handi bat seme-alaba horien zaintzari eskaintzen diote, haurtzaroan gainerako haurrek baino premia handiagoekin eta askoz denbora luzeagoan artatu beharrekoak.

Zehazki, Espainiako Pertsonen Arretari buruzko Liburu Zuriaren arabera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen %81a beren familiek artatzen dituzte, eta zaintzaile horien %83a emakumeak dira. Datu honek generoaren dimentsioa jartzen du mahai gainean. Gainera, kalkulatu da zaintzaile horien %20k soilik egiten duela lan etxetik kanpoko enplegu batean. Ugartek ohartarazi

25 <https://www.euskadi.eus/albistea/2019/foessa-viii-txostena-bazterketa-eta-garapen-soziala-espainian/web01-sedeep/eu/>

26 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/6199/es_2284/adjuntos/IV%20PLAN%20VASCO%20DE%20INCLUSION.pdf

du, gainera, emakume horiek zaintzarako eszedentzia hartzen badute, lehen bi urteetan soilik kotizatzen dutela, eta horrek, luzera, pentsioetan arazo larria ekar lezakeela.

"Hemen jorratu beharreko eztabaida bat dago, zainketek duten balioa eta politika publikoetatik sustatzen dugun zaintza eredu. Gaur egun, ikusezina, prekarioa eta emakume aurpegia duen eremua da, baina erakundeek benetako ahaleginak egiten al dituzte sistema hori aldatzeko? Nik nire erreserbak ditut".

Ildo horretan, sentsibilizazio-kanpainak egin beharko lirateke desgaitasuna duten seme-alabak dituzten familien artean, zaintza lanak familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien artean banatzearen garrantziaz kontzientziatzeko helburuz. Gainera, autonomia pertsonala sustatzeak batetik, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta hobetzeko prozesuek bestetik, gizon eta emakumeen artean lan merkatuan dagoen arrakala murriztea ekarriko lukete.

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

Hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko beharra hainbat esparrutatik planteatu da azken urteetan. Hirigintzako planteamenduetan produkzioari lotutako elementuak hartzen dira kontuan, eguneroko bizitza eta zaintza-lanak alde batera utzita. Zaintza lanek eragindako joan-etorriak, enpleguaren aitzakian egiten diren lekualdaketak bezain beharrezkoak dira, eta, beraz, hauek ere aintzat hartuak izan behar dira mugikortasun ereduak eta espazioak diseinatzerakoan.

Hirian barna oztopo arkitektonikoak aurkitzea desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta aukerak urratzen ditu, bizitzako esparru anitzetan gainera. Ohikoak diruditen zereginak, hala nola edozein eraikin publikora edo garraio publikora sartzea, zaborra botatzea edo TAO makinak erabiltzea... odisea bihur daiteke, eta honek guztiak aukerak mugatzen ditu.

Oztopo hauen ezabaketak desgaitasunen bat duten emakume eta neskatoen eskubide eta aukera berdintasuna eskuratzeko bidean lagunduko luke, familia, politika, kultura, gizarte edota lan-bizitzaren esparruan euren egoera hobetuz.

Emakumeek, oro har, garraioa edo hiri-inguruneak gizonen ez bezala erabiltzen dituztela jakina den bezala, desgaitasuna duten emakumeek hirigintza-plangintzan edo garraio publikoaren diseinuan oso kontuan hartu beharreko berezitasunak dituzte. Nabarmendu beharra dago gainera, aniztasun funtzionala duten emakume askok ez dutela ibilgailu pribaturik, eta horrek garraio publikoarekiko mendekotasun handiagoan kokatzen ditu, joan etorriak egiteko autonomia urriarekin.

BALIABIDEAK IRUNEN

ELKARTEAK

ATZEGI Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte da. 1960an sortu zen, adimen-urritasuna duten pertsonen eskubideen alde borrokatzeko elkartu ziren familien eskutik. Gaur egun, adimen-urritasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten dute, haien parte-hartze soziala erraztuko duen ingurune atsegina sustatuz, eta, horrela, Gipuzkoako gizarte inklusiboagoa, justuagoa eta solidarioagoa eratzen lagunduz.

ELKARTU Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen federazio koordinatzailea da. Elkarte mugimenduaren ekintza koordinatu eta bateratuaren bitartez, desgaitasun fisikoa duten pertsonen erabateko inklusio eta partaidetza sozialaren alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko onura publikoko entitate bat da.

Elkarriketatutako agenteez gain, Irunen Aurreratu Elkarte dago.

AURRERATU ELKARTEA. Urritasun fisiko, psikiko edo sensorialen bat duten haur eta gazteen senitartekoen elkarte da. Bidasoa eskualdean egiten du lan batez ere, Irunen, Hondarribian eta Hendaian.

Garapenean nolabaiteko nahasmendua (heldutasun atzerapena, autismoa, Down sindromea, garun paralisia, X sindrome hauskorra, hiperaktibotasuna) duten haurren gurasoek, edo/eta familiako beste edozeinek osatzen dute elkarte.

UDAL PROGRAMAK

Irungo Udalak, Ongizate Sailaren baitan, honako programa hauek ditu Desgaitasunari eta Mendekotasunari lotuta:

- Mendekotasunaren balorazioa BVD
- Desgaitasunaren balorazioa
- Laguntza teknikoak- Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzak
- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-ekipamendua
- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak
- Egoitza-unitate soziosanitarioak
- Etxeko otordu-zerbitzuak
- Telelaguntza
- Adinekoentzako egoitza-ekipamendua
- Adinekoentzako eguneko zentroak
- Aldi baterako egonaldien programa
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Mendekotasunaren legeari lotutako prestazio ekonomikoak

Gainera, kirolaren ardatzean aipatu dugun bezala:

- Hiriko kiroldegiek igeriketa egokituko ikastaroak eskaintzen dituzte
- Bidasoa Atletiko Taldeak atletismo egokitua eskaintzen du
- Gipuzkoako kirol egokituko federazioak hainbat jarduera egiten ditu urtean zehar, lankidetzak eta sentsibilizazio-kanpainak sustatuz.

NEURRI OROKORRAK

Aniztasun funtzionala duten emakumeen egoera behar bezala iraultzeko, ezarriko diren politika guzti-guztietan kolektibo honen beharrak ezagutzea, aztertzea eta aintzat hartzea da lehen urratsa. Beraz, edozein jarduera zein ildotan, edo edozein neurri hartu aurretik, kolektibo honen egoera aztertu eta ezagutu behar da.

> Dibertsitate funtzionala duten emakumeek bizi duten errealitateari buruzko informaziorik eta diagnostikorik apenas ez dagoenez, hemendik aurrera egitekoak diren azterlan, estatistika eta ikerketa guztietan desgaitasunaren eta sexuaren aldagaiak kontutan hartu behar dira.

> Kargu publikoek eta lan teknikoa egiten duten langileek aniztasun funtzionala duten emakumeen egoera ezagutzeko beharrezkoa duten sentsibilizazioa eta prestakuntza jaso behar dute. Horrela, edozein politika diseinatu eta planifikatzerako orduan kolektibo honen beharrak sistematikoki kontuan hartzeko moduan izango dira.

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
<p>OSASUNA</p>	<p>-Generoaren eta desgaitasunaren ikuspegia osasun-langileen prestakuntzan sartu behar da, kolektibo horri buruz kontzientziatzeko.</p> <p>- Esploraziorako tresnak eta aparatuak irisgarriak izan behar dira edozein desgaitasun-mota duten emakumeentzat. Mamografiak egiteko tresnak ere egokituta egon behar dira, baita miaketa ginekologikorako eta ekografiak egiteko ohatilak ere.</p> <p>-Desgaitasun intelektuala duten emakumeek informazio egokia eta ulergarria jaso behar dute beren osasun-egoerari eta erabiliko diren tratamenduei buruz, bai eta horien ondorioei buruz ere.</p> <p>-Desgaitasuna duten neskatoek elikadura- nahasmenduekin duten erlazioa aztertu behar da, asko baitira anorexia ala bulimia sufritzen dutenak. Halaber, gorputzaren irudia eta gizartean ezarritako edertasun-irizpideak landu behar dira.</p> <p>-Emakumeek ugalketa-osasunari buruzko erabakiak hartzeko eskumen gehiago izatea.</p> <p>-Sexualitateari eta antisorgailuei buruzko informazioa edozein desgaitasun-mota duten emakumeen eskura jarri behar da, behar den formatuetan gainera.</p> <p>-Aniztasun funtzionala duten eta instituzionalizatuak dauden emakumeak sexu-harremanak izateko duten eskubidea bermatu behar da.</p> <p>-Aniztasun funtzionala duten emakumeen amatasun-eskubidea bermatzeko neurriak hartu.</p>
<p>HEZKUNTZA</p>	<p>Irisgarritasun unibertsala helburua izan behar da hezkuntzan, eta ez soilik eskola-orduetan. Horretarako, oztopo arkitektonikoak ezabatuko dira, baina baita irisgarritasun kognitiboa ere.</p> <p>Genero-ikuspegia eta aniztasun funtzionala hezkuntza-sisteman txertatu behar dira.</p> <p>Hurrengo belaunaldiek aniztasunean eta inklusioan hezi eta kontzientzia hartu behar dute.</p>

	<p>Desgaitasunen bat duten nesken familiekin sentsibilizazio lana egin behar da, etxe ingurutik atera eta ohitura eta trebetasun sozialak garatzearen onuraz konturatzeko.</p> <p>Era berean, etxeko lanen zama aniztasun funtzionala duten emakumeengan ez uzteko kontzientziazioan sakondu behar da, zama horrek ondorio negatiboak ekarri baititzake beren hezkuntza- eta gizarte-garapenean.</p> <p>Prestakuntza- eta enplegu-proiektuetan laguntzen duten zentro guztiek irisgarriak izan behar dute, eta beren eskaintza desgaitasunen bat duten ikasleen beharrian espezifikoetara egokitu behar dute.</p> <p>Lanerako prestakuntzako programek autoestimuari eta gizarte- eta lan-trebetasunei buruzko ikasketak jaso behar dituzte.</p>
<p>KULTURA ETA KIROLA</p>	<p>Aniztasun funtzionala duten emakumeek kulturarekin duten harremana aztertzen duen azterlanik ez da, beraz ezer gutxi dakigu haien gustu, interes, itxaropenak eta beharren inguruan.</p> <p>Gai horiei buruzko azterlanak egitea beharrezkoa da, izan ere, garatu nahi diren inklusioko kultura-politikak egin ahal izateko, egoeraren ezagutza ezinbestekoa da eta hori landa-lan sakon batetik abiatuta lortzen da.</p> <p>KIROLA</p> <p>Familien, hezkuntza-administrazioaren eta irakasleen artean sentsibilizazio-kanpainak egin behar dira, bai eta desgaitasuna duten nesken artean ere, kirolak ongizate fisiko, mental eta emozionalerako dituen onurei buruz kontzientziatzeko.</p> <p>Hezkuntza-sistemak desgaitasuna duten nesken kirol-jarduera sustatu behar du, eta, horretarako, irakasleek, batez ere prestakuntza fisikoko irakasleek, berariazko prestakuntza jaso behar dute.</p> <p>Udal-kiroldegietako programak diseinatzeko garaian desgaitasuna duten emakumeek aktiboki parte har dezatela sustatu behar da, kiroldegiek beren behar eta itxaropenetara egokitutako eskaintza eman dezaten.</p> <p>Arreta berezia eskaini behar zaio 65 urtetik gorako pertsonen sektoreari. Kolektibo hori, batez ere, emakumeek osatzen dute, eta askok mugikortasun-arazoak dituzte edo izango dituzte. Kirola egiten laguntzeko zerbitzuak edota diru-laguntzak eskaini behar zaizkie.</p>
<p>ENPLEGUA ETA</p>	<p>Aniztasun funtzionala duten emakumeak etxeko lanak eta zaintza-lanak</p>

<p>ZAINTZAK</p>	<p>egitera dira behartuak, haien prestakuntza eta lan-merkaturako sarbidea eragotziz, bai eta haien partaidetza soziopolitiko eta kulturala mugatuz ere. Jasaten duten presio horren inguruan kontzientziatzeko ekintzak garatu behar dira.</p> <p>Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-aukerak eta lanbide-sustapena egin behar da.</p> <p>Era berean, desgaitasunen bat duten neskatilak ikasten jarraitzeko animatu.</p> <p>Enpleguaren alorrean, informazio- eta orientazio-zerbitzuetan lan egiten duten langileek generoaren eta desgaitasunaren arloko prestakuntza izan behar dute.</p> <p>Enplegu-zerbitzuek ekintza positiboko politika garatu behar dute desgaitasuna duten emakumeak kontutan hartuta.</p> <p>Emakumeen gizarteratzea sustatzeko enpleguetan kuotak ezarri beharko dira desgaitasunen bat duten emakumeak integratu ahal izateko.</p> <p>Desgaitasunen bat duten nesken eta emakumeen familiei zuzendutako kontzientziazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egin behar dira, sektore tekniko eta industrialetako enpleguari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak hausteko.</p>
<p>GENERO INDARKERIA</p>	<p>Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan eta laguntzan esku hartzen duten profesionalen aniztasun funtzionalaren inguruko ezagutza izatea bermatzea.</p> <p>Justizia-sistemaren eskaeretara egokitzen laguntzeko protokolo eta prozedurak modu egokian diseinatzea, aniztasun funtzionala duten emakumeen egoera aintzat hartuz.</p> <p>Bide honetan bada Emakunderen dokumentu bat non desgaitasunen bat izan eta indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiterako orduan, haien arreta hobetu, ahaldu eta bizitza independentea sustatzea xede duen esku-hartzea emateko profesionalen zuzendutako jarraibideak jasotzen diren.</p> <p>Desgaitasunen bat duten emakumeak pixkanaka desinstituzionalizatzea bultzatuko duen programa bat diseinatu behar da, ahal den kasu guztietan, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak sustatuz.</p>

<p>GIZARTE INKLUSIOA</p>	<p>Banakako laguntza- eta atsedeen-programak sustatu behar dira, zaintzaileen autonomia eta atsedena ahalbidetzeko, gehienak emakumeak.</p> <p>Gizonen prestakuntza sustatu behar da, zaintzaile informal gisa jardun dezaten, zeregin horietarako teknikak eta trebetasunak garatuz.</p> <p>Era berean, desgaitasunen bat duen pertsonaren bat dagoen familia-guneetan eragin behar da, bertako gizonak zaintzan bete beharreko paperean kontzientziatuz, bai eta desgaitasunen bat duten gizonen ere, zainketen arloan eta izapideak eta kudeaketak egitean erantzunkide izateak duen garrantziaz.</p>
<p>HIRIGINTZA ETA GARRAIOA</p>	<p>Hiri-hobekuntzan, diseinuan eta plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko egiten diren ariketetan aniztasun funtzionalaren ikuspegia ere txertatu beharra dago.</p> <p>Desgaitasunen bat duten emakumeek garraio publikoarekiko dituzten premiak aztertzeko azterketak eta diagnostikoak egin behar dira. Prozesu horietan, aktiboki hartu behar dute parte emakumeek eurek eta haien ordezkari diren elkarteek ere.</p> <p>Mugikortasunari eta garraio publikoaren erabilerari buruzko azterlan guztietan desgaitasunaren aldagaia sartu behar da, bai eta sexuarena ere.</p> <p>Erabat irisgarriak diren garraiobideen sustapena etengabe hartu behar da aintzat.</p> <p>Hiria komun publiko irisgarriekin hornitu behar da, segurtasun eta higienebaldintza egokietan mantenduz.</p> <p>Erabilera publikoko espazioen irisgarritasun-prozesuak bizkortzeko neurriak hartu behar dira.</p> <p>Osasun, kultura, hezkuntza, aisia edota merkataritza zerbitzuak bizi garen auzoetan bertan kokatzeak desgaitasuna duten emakumeen autonomia eta ahalduak sustatzen ditu.</p> <p>Ekintza positiboko neurriak hartu behar dira, desgaitasuna duten eta baliabide baxuagoak dituzten emakumeei etxebizitza eskuratzen laguntzeko. Eta horiek egokituak egon behar dute.</p>

3.4. FAMILIA, GENEROA ETA SEXU-ORIENTAZIO ANIZTASUNA

3.4.1. FAMILIA ANITZAK

SARRERA

Guraso bakarreko familiaz hitz egitea familiaz hitz egitea baino askoz gehiago da. Emakumeaz hitz egitea da, amatasunaz hitz egitea da, beren bizitzetara eragiten dieten politikez hitz egitea, eta beren (eta beren seme-alaben) eskubideek gure gizarte-sisteman duten mendekotasun-egoeraz hitz egitea ere bada. Guraso bakarreko familien % 81,1ean²⁷ emakumea da heldu bakarra eta honek beharrezkoa egiten du guraso bakarreko familiaren gaiari genero-ikuspegitik heltzea.

Zifrek guraso bakarreko familiek gora doazela berresten duten arren, familia-mota horretako familien errealitatea ikusezina da oraindik, bereziki eskubideak babestu eta oro har, familiei erantzuten dieten politika eta arau-esparruetan.

Erantzukizun politiko eta soziala duten eremu jakin batzuetan, *monomarental* terminoa sortu da gazteleraz, heldu bakarra emakumea den familiak izendatzeko. Nagusiki emakumeak buru dituen familia-eredu baten azterketa, intzidentzia eta ikusgarritasuna sustatu nahi ditu termino honek.

Ez dugu ahaztu behar guraso bakarreko familia asko daudela gerora sortutako arrazoiengatik, hala nola alarguntasuna, adingabeekin emigratzen duten emakume migratzaileek osatutako familiak edo genero-indarkeriaren biktimenak, baina azterlan hau hala aukeratu duten guraso bakarreko familietan zentratzen da. Errealitate horretara hurbiltzeko asmoz, Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkartera jo dugu. Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundea da, estatu mailan 2007an sortua, eta seme-alabak dituzten bikotekiderik gabeko emakumeek osatzen dute elkarte.

Elkarte horren ikuspegiak gain, guraso bakarreko bi familiatako ama eta aita bat elkarriketatu ditugu, eta haien bizipenen bidez, guraso bakarreko familien egunerokotasuna nolakoa den azaldu digute.

27 Encuesta Continua de Hogares (ECH)-aren datuen arabera, 2020an Estatistika Institutu Nazionalak argitaratua.

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Guraso bakarreko familietako seme-alabek sufritzen duten diskriminazioa egoera jaio bezain laster hasten da. Bi gurasoz osatutako familiek gaur egun 32 asteko baimen ordaindua duten bitartean (16+16), guraso bakarreko familiek 24 aste baino ez dituzte. (16+8).

Bi seme-alaben ama eta Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkarteko kidea den Leireren iritziz hori *"bidegabekeria"* da.

"Gure seme-alabak familia tradizional batean jaiotako adingabeak baino denbora gutxiago egoten dira familiarekin; izan ere, baimen hori amaitutakoan, soldata bakarra dugunez, lanean hasi behar dugu, bai ala bai".

Zenbaiten ustez, desberdintasun hori jaio aurretik ere gertatzen da; izan ere, emakume askok osasun pribatura jotzen dute guraso bakarreko familia bat osatzeko.

"Nik ez dut arazorik izan, baina egia da ezjakintasun handia dagoela horren inguruan. Emakume askok klinika pribatuetara jotzen dute, bikotekiderik gabe zerbitzu publikoa erabili ezin dutela uste dutelako ", dio Leirek.

Beraz, Gizarte Segurantzaren ugalkortasun-tratamendua jasotzeko orduan eskubide berdinak izatea aldarrikatzen du Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkartek.

Halaber, osasun-arreta hobetzea eta emakumeen eta adingabeen osasun fisikoa eta mentala errazten duten programa espezifikoak garatzea ere eskatzen dute.

Adopzioen kasuan, bereziki estatu mailako adopzio-prozeduretan, hasieran adingabearen dokumentaziorik ez izateak eragina du osasunerako eskubide eta osasun-sarbidean. Honela gogoratzen ditu lehen egun haiek guraso bakarreko familia bateko aitak:

"Nire semea iritsi zenean katarroa zuen. Pediatrak ezin zuen umea ikusi, inon ageri ez zelako. Ez zuen OTIrik. Gizarte Segurantzara deitu eta Donostiara joatera behartu ninduten, berehala eta hiru hilabeteko haur batekin soinean. Egoera gogorra izan zen ".

Gizarte Segurantzaren ordaindutako baimena eskuratzeko orduan amatasun-baimena eskatu behar izan zuela ere deitoratu du aita honek.

"Gizarte Segurantzak baimen luzeari amatasun-baimena deitzen dio. Nomenklaturatik hasita bizi dugu diskriminazioa".

HEZKUNTZA

Guraso bakarrek familiak beharrezkoa deritzote familia-aniztasunean sakondu eta, hezkuntzatik abiatuta, hurrengo belaunaldiak familia-eredu berriak lantzea. Udalak ekimen hori babestu eta sustatu dezake, familia-aniztasunari buruzko kontzientziazio-ikastaroen bidez.

"Gaur egun asko aldatu da familia-eredua, haur adoptatuak daude, familia homosexualak daude, guraso bakarrek familiak gaude, baina ez gaituzte kontuan hartzen, lan asko dago egiteko".

Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkarteak ere zenbait neurri zehatz proposatu ditu ikastetxeei begira:

- > Familiaren eguna, maiatzaren 15a, erreferentziazat hartzea. Aitaren edo amaren egunaren ordean, familien aniztasuna lantzeko asmoz egun honi leku gitea.
- > Ikasleen guraso-elkarteen nomenklatura aldatzea, bereziki gazteleraz; aita edo ama ageri beharrean familiak aintzat hartzea.
- > Ikastetxeetako bozketa-sistema aldatzea. Familia batek boto bat edo boza bat ikasle bakoitzeko, eta ez boto bat guraso bakoitzeko.

Hala eta guztiz ere, familia-aniztasunaren eta familia-eredu berrien inguruko sentsibilizazioa ez litzateke soilik lehen eta bigarren hezkuntzara mugatu behar; izan ere, guraso bakarrek familiak aurre egin behar dieten beste oztopoetako bat gizarte-epaiketa da. Askok dira familia horiek entzun behar dituzten txutxu-mutxu eta kritikak, guraso bakarrek familien inguruan dagoen ezjakintasan handiagatik.

"Gure seme-alabei aita bat izateko aukera kendu diegula entzun behar dugu. Nola sortu ditugun azaldu behar dugu etengabe... Hala ere, gure erabakia hain hausnartua izan denez, kritika eta galdera hauek ia ez digute eragiten. Gehien kezkatzen gaituena umeei zer esan diezaieketen da. Haurrek ez dute desberdinak izan nahi".

Leirenen ustez, garrantzitsua da Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkarteak jasotzen duen laguntza, bertan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 175 ama ezkongabe inguru baitaude elkartuta.

"Elkartu, hausnartu, elkarri lagundu eta dibertitu egiten gara; izan ere, sumatzen dugun beste kontu bat da, inguruan ditugun familia tradizionalen planetan ez garela inoiz sartzen. Parkean oso ondo moldatu gaitzake, baina asteburua iritsi eta bikoteak bikote bila hasten dira. Estereotipoak izango dira, baina guk badirudi bananduekin bakarrik egin ditzakegula planak... "

Ama bakarrak txutxu-mutxuak entzun behar dituzten arren, aita denean guraso bakarra, sufritzen duten presio soziala izugarria da. Daturik ez dagoen arren, gizon ezkongabeek osatutako familiak oso urriak dira, eta are urriagoak aukerazko erabakia bada, gehienak alarguntasun egoerengatik iritsi baitira guraso bakarrek familia izatera. Lan hau egiteko, aita buru duen guraso bakarrek familia batekin egoteko aukera izan dugu, eta hauek dira gurekin partekatu dituen adierazpenetako batzuk:

"Hiru hilabeteko ume batekin iritsi nintzenean, denetarik entzun nuen: haurdunaldi subrogatu bidezkoa dela, lagun batek niretzat izan duela, erosi dudala... Galdetzeko hain ausarta den jende honek gehiegizko lizentziak hartzen ditu. Iragazkirik gabe. Bikote arruntei ez zaie galdetzen seme-alabak biologikoak diren ala ez".

"Bizkarra oso zabala dut, baina gogorra izan da. Kultura ezak ausardia handia dakar".

KULTURA ETA KIROLA

Irungo kiroldegiek eskaintzen dituzten tarifen eta bonuen artean familia-bonua dago, baina horrek ez ditu guraso bakarreko familiak aintzat hartzen, eta, beraz, guraso bakarreko sendiak familia direla aitortu eta beren familia-ereduari egokitutako prezioa izatea eskatzen dute.

Aisialdia eta kultura-jardueretarako sarbidea ere garestia da guraso bakarreko familientzat.

"Adibidez, ama ezkongabe bat hotelera semearekin joaten bada, seme bat duen bikote batek bezala ordaintzen du. Gelak seme-alabak dituzten bikoteentzat diseinatuta daude bakarrik".

Haien egoera kontuan har dadila eskatzen dute, jardueretan deskontuak aplikatzearekin batera.

"Ekogunean, adibidez, jardueretan %5 eta %7 bitarteko deskontua egitea lortu dugu".

ENPLEGUA ETA ZAINZTA

ENPLEGUA

Guraso bakarra izateak errenta-maila murrizten du kasu gehienetan, eta hori arazo bat da enpleguari dagokionez..

Kontuan izan behar da gainera, sostengatzaile nagusia gizona den guraso bakarreko familiek diru-sarrera handiagoak dituztela ama buru duten guraso bakarreko familiek baino, hala dio bederen Espainiako bazterkeriari eta garapen sozialari buruzko FOESSA VIII. Txostenak²⁸.

"Egoera ahulagoa bizi dugu. Gure soldata besterik ez dugu, eta hau arriskuan egonez gero, dena eroriko zaigu gainera".

Guraso bakarreko familia gehienak emakumeek osatuak dira eta horrek arriskuan jartzen du emakume hauen karrera profesionala.

"Lanean mailaz ez igotzea erabaki dut. Igotzen bazara, denbora gehiago igaro behar duzu lanean, eta agian ez zaizu komeni, norbait kontratatu behar baituzu zure seme-alabekin egoteko".

Egoera hori arintzeko, neurri gehiago garatu beharko lirateke familia-erantzukizun partekatua ez dituzten amen lan-merkatuak eta euren sustapen ekonomiko eta sozialerako sarbidea bermatzeko, betiere guraso bakarreko familien berezitasunak kontuan hartuta.

ZAINZAK

Seme-alaben zaintza da guraso bakarreko familientzako arazorik handiena. Bi esku eta familia sare bakarra dutenez eskura, adingabeak zaintzea konplikatua izan ohi da.

"Gure eskuak, gure soldata eta gure oporrak besterik ez ditugu. Familia tradizional batentzat kontziliatzea zaila bada, guretzat konplikatua oraindik. Babesten duen familia sare izan dezakeenak, kasurik onenean, berea baino ez du".

Horretarako, Haur-Hezkuntzako plaza gehiago (0 eta 3 urte bitartekoak) egotea eskatzen dute, eta ama ezkongabeen seme-alabei plaza horiek eskuratzeko lehentasuna ematea.

Zehazki, guraso bakarreko seme-alabei lehentasuna emateko orduan puntuazioan laguntzeko ondorengo esparrutan puntuak eman daitezela eskatzen dute:

- > Haur Hezkuntzan (0-3 urte), plaza gehiago izateko beharra azpimarratzeaz gain.
- > Ikastetxeetan
- > Udako garaietan eskaintzen diren zerbitzuetan, hala nola Solas Jolas edo udako udalekuetan.

"Guretzat praktikotasuna ezinbestekoa da, ezin dugu kontatu nik uzten ditudala eta besteak jasotzen dituela. Zerbitzu horietan lekua izateak eta etxetik gertu egoteak eguneroko bizimodua konpontzen digu", azpimarratu du Leirek.

Gainera, zaintzaileak kontratatzeko laguntzak eskatzen dituzte. Familia ugarien kasuan zaintzaileak kontratatzeak Gizarte Segurantzako kuotetan hobaria izateko eskubidea ematen du, eta kolektibo horrek gauza bera eskatzen du.

Adingabeen zaintza, guraso bakarreko familien egunerokotasunean kezka gehien sortzen dituen alorra izanik, are zailagoa bihurtu da bizi dugun pandemia-egoerarekin.

"Iazko konfinamenduaren erdian, Osakidetzak eszedentziak debekatu zituen, eta gure elkarteko kide den emagina batek lanera joan behar izan zuen, alabaren ohiko zaintzaileak konfinamenduan zaintzeari uko egiten zion bitartean. Amak koronabirusa ospitaletik etxera ekarriko zuen beldur zelako, eta alaba zaintzera ukatu zen. Bere alabarekin zer egin ez zekiela joan behar izan zuen lanera".

"Konfinamenduan, haurrak gurekin atera behar genituen erosketak egitera edo zaborra botatzera... ezin genituen etxean bakarrik utzi, eta kasu batzuetan balkoietatik errieta egiten ziguten haurrak ateratzeagatik, baita udaltzaingotik ere".

GENERO-INDARKERIA

Aukeraz guraso bakarreko familia osatzen duten emakumeek beren etxean arazo hori ez duten arren, genero-indarkeriaren biktima izan ondoren bakarkako bideari ekitea erabakitzen duten amek bizi duten egoeraz kontzientziatzeko erabili nahi dugu atal hau.

Espainiako Estatuko zenbait erkidegotan, Aragoiko Erkidegoan adibidez, guraso bakarreko familiak legez aintzat hartu eta aitortzeko urratsa egin da dagoeneko, guraso bakarreko familia-titulua emanaz. Titulu hori txartel batean jasotzen da, laguntzak eskuratzea erraztuz. Aintzat hartutako familien artean, seme-alabak ardurapean dituen eta genero-indarkeria jasan duten emakumeek osatutako familiak daude.

Aitorpen horretatik harago, ama eta adingabe hauek jasandako indarkeria eta honek eragindako kalte fisiko eta psikologiak hartu behar dira kontutan. Era berean, babes-mekanismo nahikoak ezarri beharko dira, betiere gure gizartean integratzeko premiak kontuan hartuta.

GIZARTE-INKLUSIOA

Burokrazia guraso bakarreko familientzako ez da eremu xamurra, izan ere adingabearen dokumentazioa lortzea ez da lan erraza izaten.

Estatu espainiarreko adopzio baten aurrean bagaude –elkarrizketatu dugun guraso bakarreko familiako aitaren kasua da hori–, familia-liburua lortzeko prozesua luzea da. Adingabearen lehen dokumentazioa foru agindu bat da, non adingabeari emango zaion izena eta abizena jasoa ageri den. Adopziorako xedea duen harrera-agindu bat da, egoera erregularizatu bitarte eduki beharrekoa.

Adopzioa egin eta bi urte eta erdi beranduago, elkarrizketatutako aita adopziorako baimena emango dion epaiketaren atarian dago, pausu honen ostean eskura izango du familia-liburua. Baina urte hauek pisutsuak izan dira:

"Oso luzea izan da prozesua eta azalpen asko eman behar izan ditut bidean... Hegazkinez bidaiatzea, adibidez, tentsio handiko egoera da. Ume txiki bat duen gizon batek atentzioa ematen du, gainerakoei ez diete familia-liburua eskatzen, baina guri beti. Bestela, haurraren NANA, eta hura ezin dut egin familia-libururik gabe, paperen itzalak segitzen gaitu. Une horietan agerian jartzen zaituzte, azalpenak eman behar ditugu eta gure familia-eredua justifikatu behar dugu. Diskriminazioa da".

Leirerentzat ez zen zaila izan familia-liburua lortzea, baina ez zen zuzena izan jasotako tratua.

"Lehen tutorearen lekua ezabatu egin zuten, eta ni bigarren jarri ninduten. Erreklamatu egin behar izan nuen. Kexatzen ez bazara, ez duzu aurrera egiten, baina nekagarria da".

Inprimaki guztiek, paper guztiek familian ama eta aita daudela ziurtzat jotzen dutela ekarri du gogora Leirek.

Izapideak arindu eta kudeaketa bakoitzaren aurrean epairik ez jasotzeko, gizartearekin, oro har, eta guraso bakarreko familiekin harremana duten estamentuekin bereziki, familia-aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa landu beharko litzatekeela uste du Guraso Bakarreko Familien Elkarteak.

"Epaitegiko langileen, amatasun arloan lan egiten duten osasun-langileen eta irakasleen aurrean beti nire egoera azaltzen ari naizela iruditzen zait, eta ez lukete familia-eredu bakar bat dagoela pentsatu behar".

Ildo horretan, beharrezkoa deritzote familia guztientzako gizarte-zerbitzuen sareak garatzea eta sendotzea, zerbitzu horietarako sarbidea berdintasunean bermatu, eta, beraz, oinarritzko prestazio unibertsal eta indibidualak bermatzeko.

FISKALITATEA

Bestalde, Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkarteak fiskalitatean ere jartzen du arreta. Fiskalitatea ez da neutrala, eta familia tradizionalaren parametroetan oinarritutako gizartearen kontzeptua jasotzen eta islatzen du. Horren aurrean, egungo familia-aniztasunari erantzungo dion fiskalitatea bermatzeko neurriak hartzea eskatzen du.

"Familia ugariak, adibidez, beherapenak dituzte etxebizitzaren eta ibilgailuaren ordainsarrietan, zaintzaile bat kontratatzerakoan edo errenta-aitorpena egiterakoan".

GURASO BAKARREKO FAMILIEN LEGEA

Familia horiek bizi duten egoerari konponbide integrala emate aldera, Aukerazko Ama Ezkongabeen Elkarteen Federazioa, Espainiako Estatuko ama ezkongabeen erakunde gehienak biltzen dituena, guraso bakarreko familien lege bat sortzeko borrokan ari da. Familiei errekonozimendua eta segurtasuna eskaini eta familia hauek aintzat hartuko dituen politika publikoak antolatzeko.

Leirek gogorarazi duenez, bi seme-alaba dituen emakume bat alargun geratuz gero, familia ugarizat hartzen da, famili unitate horrek dakartzan abantailak baliatzeko aukera eskainiz. Aldiz, ez da gauza bera gertatzen bi adingabe dituzten guraso bakarreko familiekin.

"Erabaki diskriminatzailea da; izan ere, praktikan, haien seme-alabek eta nireek antzeko egoera bizi dute, guraso bakarra eta etxean soldata bakarra; baina gu zigortu egiten gaituzte gure egoera zibilagatik eta familia-eredu tradizional bat aukeratu ez izanagatik. Azken finean, alarguna familia ugarizat hartzen da adingabeentzako babes-neurri gisa, eta gure adingabeak ez dira horrela babesten".

Elkarteak guraso bakarreko familiak familia ugarizat edo adingabeak babesten dituen antzeko figura batekin aintzat hartuak izatea eskatzen du, *"Abantailengatik baino gehiago, kontsiderazioagatik".*

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

ETXEBIZITZA

Guraso bakarreko familien % 80a baino gehiago emakumeen ardurapean daude, eta familia horien erdia, gutxi gora behera, pobrezia eta gizarte-bazterketa arriskuan daude, SAVE the Children erakundeak eta Guraso Bakarreko Familien Elkarteak argitaratutako azterlanen arabera²⁹.

Egoera latz hori arintzen laguntzeko asmoz, Ama ezkongabeen Elkarten Federazioak etxebizitza eskuratzen laguntzearen alde egiten du, bai eta guraso bakarreko familiek lehentasuna duten etxebizitza publikoak sustatzearen alde ere.

GARRAIOA

Era berean, familia ugariekin egiten den bezala, garraiobideetan hobariak eskatzen dituzte.

29 https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/mas_solos_que_nunca.pdf

BALIABIDEAK IRUNEN

ELKARTEAK

ASFAMOGI

Gipuzkoako guraso bakarreko familien elkarteak. Honakoak dira elkartearen helburuak:

- > Guraso bakarreko familien gizarte-egoerak hobetzea.
- > Premia-egoeran dauden guraso bakarreko familien bizi-baldintzak hobetzea.
- > Guraso bakarreko familientzako baliabide solidario bat eskaintzea.
- > Guraso bakarreko familiek gizartean parte hartzeko plataforma bat ahalbidetzea.

AUKERAZKO AMA EZKONGABEEN ELKARTEA

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundea da, estatu mailan 2007an sortua, eta seme-alabak dituzten bikotekiderik gabeko emakumeek osatzen dute elkarteak. EAEn antolatzen dira eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 175 familia inguruk parte hartzen dute.

UDAL PROGRAMAK

Ez dago kolektibo horri zuzendutako programa espezifikorik.

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
<p>OSASUNA</p>	<p>Gizarte Segurantzaren ugalkortasun-tratamendua eskuratzeko orduan guraso bakarreko familiak diskriminaziorik ez jasateko neurriak hartu.</p> <p>Osasun-arreta hobetzea eta emakumeen eta adingabeen osasun fisikoa eta mentala errazten duten programa espezifikoak garatzea.</p> <p>Osasun-arloko profesionalak familia-aniztasunari buruz sentsibilizatzea, adingabearen dokumentazio ezak, harrera- eta adopzio-kasuetan, ez dezan eraginik izan adingabearen osasun-eskubidean eta osasun-sarbidean.</p>
<p>HEZKUNTZA</p>	<p>Familia-aniztasuna hezkuntzako ardatz bat izan behar da, eta hurrengo belaunaldiekin landu behar da. Udalak familia-aniztasunari buruzko kontzientziakzio-ikastaroak sustatzen lagundu dezake.</p> <p>Neurri zehatz gisa, honako hauek proposatzen dira ikastetxeetara begira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familiaren eguna, maiatzaren 15a, erreferentziatzat hartzea. Aitaren edo amaren egunaren ordean, familien aniztasuna lantzeko asmoz egun honi leku egitea. • Ikasleen guraso-elkarteen nomenklatura aldatzea, bereziki gazteleraz; aita edo ama ageri beharrezan familiak aintzat hartzea. • Ikastetxeetako bozketa-sistema aldatzea. Familia batek boto bat edo boza bat ikasle bakoitzeko, eta ez boto bat guraso bakoitzeko. <p>Familia-aniztasunari buruzko sentsibilizazioak ikastetxeetatik haratago joan behar du, eta herritarrengana oro har iritsi, familia horiek jasaten duten gizarte-irritzia arintzeko modu gisa.</p> <p>ZAINZA/ KONTZILIAZIOA</p> <p>Familia horien kontziliazioan laguntzeko, guraso bakarreko familietako seme-alaben sarbideari lehentasuna emateko puntuak ematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haur-Hezkuntzan (0-3 urte), plaza gehiago izateko beharra aldarrikatzeaz gain. • Ikastetxeetan

	<ul style="list-style-type: none"> • Udan eskaintzen diren zerbitzuetan, hala nola Solas Jolas edo udalekuak. <p>Gainera, zaintzaileak kontratatzeko laguntzak eskatzen dituzte, familia ugarien kasuan bezala, Gizarte Segurantzako kuotetan hobaria izateko eskubidea emanaz.</p>
<p>KULTURA ETA KIROLA</p>	<p>KIROLA</p> <p>Irungo kiroldegiek eskaintzen dituzten tarifen eta bonuen artean, familia-bonoa dago, baina horrek ez ditu guraso bakarreko familiak aintzat hartzen, eta, beraz, familia direla aitortu eta beren familia-ereduari egokitutako prezioa izatea eskatzen dute.</p> <p>KULTURA</p> <p>Aisialdia eta kultura-jardueretarako sarbidea ere garestia da guraso bakarreko familientzat. Ildo horretan, haien egoera kontuan har dadila eta jardueretan deskontuak aplikatzea eskatzen dute.</p>
<p>ENPLEGUA ETA ZAINTZAK</p>	<p>Partekatu gabeko familia-erantzukizunak dituzten amen lan-merkaturako eta sustapen ekonomiko eta sozialerako sarbidea bermatuko duten neurri gehiago garatzea, betiere guraso bakarreko familien berezitasunak kontuan hartuta.</p> <p>Zaintza-lanetan laguntzeko neurriak, hala nola hobariak zaintzaileak kontratatzerako orduan.</p>
<p>GENERO- INDARKERIA</p>	<p>Guraso bakarreko familientzat hartuko dira ardurapean seme-alabak dituen eta genero-indarkeria sufritu duten emakumeak buru dituzten familiak, laguntzak eskuratzea errazteko modu gisa.</p>
<p>GIZARTE- INKLUSIOA</p>	<p>Gizartearekin, oro har, eta guraso bakarreko familiekin harremana duten estamentuekin bereziki, familia-aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa landu beharko litzateke.</p> <p>Familia guztientzako gizarte-zerbitzuen sareak garatu eta finkatzea, zerbitzu horietarako sarbidea baldintza berdinetan bermatzeko, eta, beraz, oinarrizko prestazio unibertsal eta indibidualak bermatzeko.</p> <p>Fiskalitate lan egitea, egungo familia-aniztasunari erantzungo dion fiskalitatearen alde.</p> <p>Familia bakarreko gurasoen legearen alde egitea.</p>

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA	Etxebizitzarako sarbidean laguntzea eta guraso bakarreko familiek eskuratzeko lehentasuna duten etxebizitza publikoak sustatzea. Hobariak garraiobideetan.
------------------------------------	---

3.4. FAMILIA, GENEROA ETA SEXU-ORIENTAZIO ANIZTASUNA

3.4.2. TRANSEXUALITATEA

SARRERA

LGTBI kolektiboko emakumeak, –emakume lesbianak, bisexualak eta transexualak–, diskriminazio anizkoitzaren biktima dira, bai emakume izateagatik, bai eta sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik eta LGTBI kolektiboko kide izateagatik ere. Matxismoak eta misoginiak ez ezik, LGTBIfobiak ere zapaltzen ditu emakume horiek, eta, ondorioz, diskriminazioekiko zaurgarriagoak dira.

Patriarkatuak ezarritako kanonetatik ateratzeagatik, beren sexualitatea eta genero-identitatea etengabe ikusten dute zalantzan LGTBI kolektiboko kideek, eta, horregatik, beharrezkoa da errealitate hori ikusaraztea.

Emakume transexualen kasuan, azken hilabeteetan feminismoaren barruan sortutako eztabaida gehitu behar da, Espainiako Estatuko Diputatuen Kongresuak transexualentzako lege berria onartzearen denean piztutakoa. Lege horren aurkako sektoreek "emakumea nor den eta feminismoaren subjektua nor den" jarri dute eztabaidagai, eta agerian utzi dute emakume guztiak biltzen dituen feminismo inklusiboago baten beharra.

Emakume transexualek bizi duten errealitatera hurbiltzeko Sarai Montesekin egon gara. Bilbotar honek 2007an sortu zuen Errespetuz, transexualen aldeko lehen elkarteak, eta bertako presidentea izaten jarraitzen du. Erakunde txiki honen errailetatik, beren bizipenetatik, beste transexual batzuei laguntzen diete. Urte hauetan, genero-identitateagatik ez baztertzeko eta pertsona transexualen eskubideak aitortzeko 2012 Gasteizko Parlamentuan onartutako Legean ekarpena egin du elkarteak, eta Errespetuz bera izan da Naizen adingabe transexualen familien elkartearen habia.

"Ordura arte hogeita hamar, berrogei edo berrogeita hamar urteko pertsonak etortzen zitzaizkigun beren bizitza-prozesuei buruz hitz egiten, harik eta egun batean Gasteizko amatxo bat iritsi zitzaigun. Etxean mutiltzat jotzen zuten haur bat zuela esan zigun, umeak, baina, neska zela esaten zuen behin eta berriz. Nire amarekin hitz egitera eraman nuen, nik ezin bainion lagundu. Ondoren, ama gehiago iritsi ziren eta Gasteizko ama honengana bideratu genituen... eta horrela sortu zen lehenengo Chrysallis, eta ostean, Naizen".

2007an Errespetuz elkartearen ibilbidea hasi zutenetik, Saraik transexual asko eta asko ezagutu ditu, eta Euskal Herrian, gainerako lekuetan gertatzen denaren kontra, neska baino askoz mutil transexual gehiago daudela dio.

"Hemen, Euskal Herrian, mutilak gehiago izugarria dira trans pertsonen artean, eta hau ez dut uste beste inon gertatzen denik. Egia da ez dagoela horri buruzko daturik, baina nik ezagutu ditudan mugimenduengatik, leku gehienetan emakumeak askoz gehiago gara: sei neska mutil bakoitzeko. Eta hemen alderantziz, eta horrela izaten jarraitzen du, Naizenen ere gehienak dira mutilak".

Transexualitatea prozesu gogorra den arren generoa edozein izanda ere, emakume transexualak agerikoagoak dira eta, beraz, arrisku handiagoa dute.

"Trans gizonak oharkabean pasatzen dira, ez dira fisikoki nabarmentzen. Mutilek, edonoren begietara, ez dute atentzioa ematen. Gure kasuan, baina, testosteronak bere garaian egin zituen aldaketak ez dira itzulgarriak. Nik adibidez, agian irudiagatik ez dut atentzioa ematen baina ahoa irekitzen dudanean, bi aldiz begiratzen naute".

Saraik 29 urterekin hasi zuen bere prozesua, baina etorkizuneko emakume transek zorte hobea izango dutela uste du, blokeatzaileak erabilita aldaketa atzeraezin horiek saihestu baitaitezke.

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Emakume transexualek osasun arloan bizi duten diskriminazioa "ikaragarria" da Sarairen ustez. Eta, hasteko, osasun-arloko profesionalak emakume horiei ematen dieten tratuan jarri du arreta.

"Itxarongelan itxaroten zaudenean, edo erizaina atera eta oihuka deitzen zaitu, edo megafoniatik deitzen zaituzte, eta noski, Paco deitzen badizute eta ni altxatzen banaiz, begirada guztien erdigunea naiz. Elkartean neska baten kasua dugu, nahiz eta familiako medikuari behin eta berriz eskatu, medikuak gizon gisa tratatzen jarraitzen du".

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako transexualek beren prozesuak garatzeko Gurutzetako Genero-Unitatera jo behar dute, eta bertan kontzientziatuago daudenez, izena beharrean, abizena erabiltzen dute deitzerako orduan. Sarairerentzat horrela izan beharko luke gainerako osasun-sisteman ere.

Gurutzetako Genero Unitatean, ordea, badira konpondu beharreko arazo larriak:

"Psikiatrian jasotzen dugun tratua izugarria da, miserian hondoratzen zaituzte. Psikiatriako unitatetik barrutik erabat lehertuta ateratzen gara. Errespetuz elkartean jende askori lagundu diogu unitate honetatik atera ostean, lur jota datoz".

Psikiatria-prozesua igarotzea nahitaezkoa da gaur egun. Unitate horrek zehazten du pertsona transexual bat prozesu horrekin aurrera egiteko prest dagoen ala ez. Baina Sarairen arabera, transexualitatea aztertu ere egiten ez denez, psikiatra horiek "genero estereotipo gordinetan" oinarrituta ebaluatzen dute.

"Nik beti animatzen ditut emakumeak minigonaz jantzita, poltsa bat zintzilik eta makilatuta joatera. Eta badakit jendea izugarri kostatzen zaiola horrela joatea, izan ere oraindik gizon gorputz bizardun batean, horrela joan behar izatea... Baina saio horretan prozesua sei hilabete baino gehiago aurreratzea erabakitzen da. Genero-estereotipoen arabera epaitzen zaituzte. Hara iristen bazara maskulinoa, eta neska gustatzen zaizkizula esaten... psikiatrari begiak gurutzatzen zaizkio".

2018an Ekai Lersundi hil zenetik gauzak aldatu egin dira. Ondarroako gazte honek, 16 urterekin, bere buruaz beste egin zuen, psikiatriako epaiaren zain zegoela, eta, beraz, hormona-tratamenduaren zain. Une horretatik aurrera, psikiatria-prozesutik igarotzea derrigorrezkoa den arren, ez dute bertan azken hitza. Eta ordutik, prozesu endokrinoa, hormona-tratamendua eskaintzen duena, eta psikiatrikoa parean doaz.

Sarairerentzat ezinbestekoa da transexualitatea despatologizatzea.

"Nahikoa dugu gizarteak ikusten gaituen moduarekin, medikuen munduak zoroak gaudela esateko... Egia da nahasmendu mentala izateari utzi diola, baina desordena psikiatrikotzat jotzen da gaur egun ere. Desordena psikiatrikoen eskuliburu baten barruan gaude. Bere garaian genero identitatearen nahasmendua izan ginen, gero genero identitatearen disforia eta orain genero inkongruentzia, baina azken finean, gaixotasuntzat jotzen dute transexualitatea".

Sarairen arabera, osasunaren arloko profesionalek transexualitatearen inguruko ezagutza izan beharko lukete eta gaian sentsibilizatu beharko liriateke.

"Nik ulertzen dut gure errealitatea ez ezagutzea. Medikoki hormonalki kontrolatutako transexualen lehen belaunaldia gara, eta, beraz, onartzen dut ez dakitela asko, baina, gutxienez, ondo tratatzea eskatzen dut. Naizen elkarteko gazteekin ere gauza bera gertatzen da: blokeatzaileak erabiltzen lehenak dira. Enpatia baino ez dugu eskatzen".

Baina, batez ere, psikiatrek epaile gisa jokatzen duten papera kentzea da Sarairen eskaria.

"Psikologiak, baita psikiatriak ere, lagun izan beharko lukeela uste dut. Ziur behar dugula laguntza hau, arraroa izango litzateke hainbeste urtetan sufritutakoa sufritu ondoren ondo egotea. Baina laguntzeko egon daitezela, eta ez oztopatzeko".

HEZKUNTZA

Hezkuntzaren alorrean asko aurreratu da Sarai Montes en iritziz. Eta zentzu horretan uste du gizartea asko kontzientziatu dela urte gutxiren buruan.

"Naizengo markesinen kanpaina inflexio puntu bat izan zen. Ez hainbeste kartelengatik, baizik eta Estatu osoan zehar ibili zen autobusaren kontra-kanpainagatik. Autobus bat erosi zuten haurren aurka joateko, eta gizarteak erreakzionatu egin zuen. Gizartea lehenengo aldiz atera zen blokean transexualak defendatzera".

Gasteizko Legebiltzarrak 2012an onartutako transexualitatearen euskal legeak hezkuntzaren arloan aurrera egiten lagundu du. Bertan, pertsona izendatzeko legezko betebeharrak jasotzen da, hark adierazitako izen eta sexuaren arabera, NANean jartzen duena, edota gurasoen iritzia kontutan hartu gabe. Eta ikastetxeetan transexualitatea lantzeko eskuliburua ere lege horrekin jaio zen.

"Ezagutza falta handia dago oraindik, baina ikastetxeen jarrera oso ona da oro har."

Halaber, ikastetxeetan sentsibilizazio-ikastaroak ematen ditu Errespetuz Elkartek, eta uste du oso garrantzitsua dela transexualak izatea ikastetxetara joan eta hitzaldi horiek ematen dituztenak.

"Ez da gauza bera transexualitatea hirugarren pertsona batean kontatzea edo irakaslea ikustea. Mito asko erortzen zaizkie".

Hala ere, bidea zehar-lerrotasuna dela uste du; aniztasuna etapa guztietan eta eduki guztietan lantzea alegia.

"Aniztasunak, transexualitateak, curriculumean eta testuliburuetan integratuta egon behar du, zeharkakoa izan behar du. Ez du balio, salbuespen gisa, ordubeteetan tratatzea gaia".

Illo horretan, hezkuntzan erabiltzen diren testuliburuak aztertzearen alde egin du, eta aniztasunari dagokionez, haien kalitatea ziurtatuko duen zigilua batean pentsatu beharko litzatekeela uste du.

"Eduki horiek guztiak aztertu beharko lirateke, eta ikastetxe publikoak eta itunpekoak behartu beharko lirateke aniztasunaren inguruko kalitatea ziurtatzen duten horiek bakarrik erabiltzera".

Transexualen artean suizidio-tasa oso altua da. Amerikako Pediatria Akademiaren Pediatrics aldizkarian³⁰ argitaratutako ikerketaren arabera, mutil transen erdiak baino gehiago (% 50,8) eta neska transen % 29,9a saiatu dira noizbait bere buruaz beste egiten. Saraik ideia hori berretsi du:

"Bere buruaz beste egin ez duena saiatu egin da, eta bestela, pentsatu egin du".

Eta nerabearoa da adin kritikoena pertsona transexualentzat.

30 <https://pediatrics.aappublications.org/>

"Lehenik eta behin, zure gorputza aldatzen hasten da, nahi ez duzun zentzuan gainera. Bigarrenik, generoaren arabera banaketa basatiagoa da, neskak alde batetik eta mutilak bestetik doaz, eta zu hor erdian geratzen zara. Nerabezaroa etaparik gogorrena da eta ez duzu laguntzarik aurkitzen".

Pertsona transexualek beren bizitzako etapa honetan aurkitzen duten egoera hobetu egin da denborarekin: gehienek beren benetako nortasuna adierazi dute dagoeneko, ikastetxeetan askoz ere lan gehiago egiten da eta, beraz, ikaskideen artean ulermen handiagoa dago, blokeatzaileak daude gorputza kontrako zentzuan gara ez dadin.... Saraik Naizen elkarteko nerabe transexualekin ere egiten du lan eta berak beste arazo bat jartzen du mahai gainean.

"Nerabezaroan dauden trans askok, gurasoak izan dituzte orain arte haien alde borrokan. Eta horrek, bidea errazten dien arren, koraza emozionala kentzen die. Nerabezaroan helduak dira etsaia, ezin dituzte gurasoak kontuan hartu, eta orain arte ez diote, euren egoerari bakarrik aurre egin . Guk genuen egoera baino hobea dute, baina ez dira gu bezain gogorrak".

KULTURA ETA KIROLA

Kirolaren munduan ez dago ezer araturik eta, beraz, kirolarien banakako borrokaren ondorioz lortu da orain arte eskuratutakoa. Izaro Antxia gogoan du Saraik, bizitza osoan areto futboleant aritu ostean, emakumezkoen modalitateko partida bat jokatu zuen lehen transexual federatua izatea lortu baitzuen.

Hemen ere, emakume transexualak dira zigortuenak; izan ere, gizon transexualek ez dute legezko arazorik modalitate maskulinoetan lehiatzeko.

"Beto hau testosteronari egozten diote. Uste denez, testosterona gehiago izan dugunez, ZIS emakumeak baino indartsuagoak gara. Kontrakoa esango nuke. Behin prozesua amaituta, testosteronarik gabe, haiek baino gorputz handiagoak eta astunagoak mugitu behar ditugu, eta uste dut gehiago kostatzen zaigula. Alderantziz, trans mutilek ez dute arazorik, ez direlako areriotzat hartzen kirol arloan".

ALDAGELAK

Kirolarekin lotuta, aldagelak gatazkako beste gai bat dira.

"Aldagelak beti dira gerra. Berdin dio kirolean, edo lanean, beti dira gerra. Lanean, oso maskulinizatuak dauden esparru askotan, emakumeentzako aldagelarik ere ez dago, eta askotan ez gaituzte hartu ere egiten obrarik ez egiteagatik. Kirolean ere gerra bat da. Ez dago ezer araututa".

KULTURA

Kulturari dagokionez, transexualek naturaltasunez bete behar dute espazio publikoa, beren errealitateak ikusaraziz, bai eta LGBTBI kolektiboa zeharkatzen duten interseksionalitateak ere, hala nola sexu-orientazioa, genero-identitatea, arraza, desgaitasuna, adina eta abar. Beraz, erreferente gehiago eta ikusgarritasun handiagoa eskatzen dute eremu publikoan, haien errealitatea normalizatzeko eta eskubide-berdintasuna lortzeko bide gisa.

ENPLEGUA

Urte askotan, lan-merkatua ia itxita egon da trans pertsonentzat. Talde horretako langabezia-tasak kezkarriak dira, %85eko langabezia-tasa baitute. Bizi duten egoeraren ondorioz, pertsona horietako askok gizarte-bazterketa larrian amaitu dute.

Enplegua lortzeko atea ere askoz zailagoa da trans emakumeentzat trans gizonentzat baino; izan ere, lan-elkarrizketa batean transexualitatea hautematen badizute, lan-aukerak desagertu egiten dira.

"Langabezia estatistikarik altuenak ditugu, preso ohien eta etorkinen gainetik. Emakumeentzat zailagoa da, gehiago igartzen zaigulako, eta, gainera, gizarteak guri buruz duen idearioa izugarria da, kolektibo arazotsu bat gara, prostituzioarekin lotuta dagoena. Nola kontratatuko gaituzte horrela?"

Hala ere, denborarekin egoera hori hobetzen joango dela uste du Saraik; izan ere, emakumeek tratamenduak zenbat eta lehenago hasi, testosteronaren ondorioak gutxiago nabaritu dira, eta, beraz, errazagoa izango da lan-merkatuan sartzea.

Hala eta guztiz ere, transexualei eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsona guztiei sarbidea errazteko neurriak hartzearen alde egin du, hala nola Gizarte Segurantzaren horrelako pertsonak kontratatzen dituzten enpresentzako hobariak eta laguntzak ezartzea.

MISOGINIA

Trans emakumeek, ordea, transfobiaz gain, misoginiari ere aurre egin behar diote. Adibide gisa, bere esperientzia kontatzen digu.

"Ni elektrikaria naiz, titulu askorekin gainera. Ez nuen inoiz lan-elkarrizketarik egin behar izan, nik aukeratzen nuen non eta nola lan egin. Ebakuntza egin arte. Ez dut sektore hau berriro zapaldu ordur geroztik. Gizon gisa identifikatzen nindutenean, gogoan dut neska lankide bati lana bilatzen saiatu nintzela eta arduradunak honakoa esan zidan: "Neska bat! Nik zertarako nahi dut neska bat!"

GENERO-INDARKERIA

LGTBI kolektiboa osatzen duten emakumeek diskriminazioa eta indarkeria jasaten dutela azpimarratzen dute, eta, ildo horretan, zenbait neurri hartzea eta protokoloak sortzea eskatzen dute, bai eta legeak aldatzea ere, gizartean erabat integratuta sentitu ahal izateko.

Sarairen ustez, emakume transexualek ez dute bereziki genero-indarkeriarik jasaten.

"Matxismotik sortzen da genero-indarkeria, eta oso zaila da gizon matxista batek ni emakumetzat hartzea. Jakina, gizon horiek iraindu eta eraso egiten didate, baina transfobiatik egiten dute".

Atal honetan, Errespetuz elkarteko lehendakariak polizietako agenteek transexualekin duten jarrerari erreparatu dio.

"Ertzaintzak, adibidez, ez daki nola tratatu emakume transexualak. Miatzeko orduan, identifikatzeko orduan... ez dakite".

Ildo horretan, gogorarazi du berak eman zuela transexualitateari buruzko prestakuntza Ertzaintzako 250 agenteri, eta uste du hori dela jarraitu beharreko bidea Poliziaren estamentu guztiak kontzientziazteko.

GIZARTE-INKLUSIOA

Enpleguaren atalean esan dugun bezala, pertsona transexualek kolektibo zaugarria osatzen dute, eta, askotan, gizarte-bazterketa larrian daude. Lana lortzeko duten zailtasunak eta, batzuetan, familia-ingurunearen aldetik jasandako bazterketak arriskuan jartzen ditu pertsona horiek.

Trans pertsonen nahia oharkabean igarotzea da, hala nabarmendu du Saraik eta beraz, gizarte-zerbitzuetara jo behar izatea jendaurrean agertzeko modu bat da.

"Hamaika azalpen eman behar dituzu, jende guztiari esan behar diozu transexuala zarela eta hori ez da une horretan behar duzuna. Eredua birpentsatu beharko litzateke, eta agian zure ahultasun-egoera aitortzen duen txartel bat emango baligute, ez genuke etengabe azalpenak eman beharrik. Txartel honek transexualei mesede egiteaz gain, suposatzen dut preso ohiei edota sexu langileen moduko kolektiboetara ere mesede egingo liokeela, zure bizitzako alderdi guztiak une oro azaldu behar ez izatea positiboa da. Txartel bat litzateke, desgaitasuna aitortzen denaren modukoa, eta horrekin laguntzak jaso ahal izango ziren... "

Administrazioko tratua artatzen zaituen pertsonaren arabera da. Bere esku dago enpatia erakustea edo ez. Hala ere, izapideak arintzeko eta kudeaketa bakoitzaren aurrean epairik ez emateko, interesgarria litzateke transexualitatearen eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzea, gizartearekin, oro har, eta, bereziki, pertsonekin harremana duten estamentuekin.

EMAKUME TRANSEXUALA ETA MIGRATZAILEA

Migratutako emakume transexualek bizi duten egoera are zailagoa da. 2007ko Espainiako Estatuko Legeak, non NANaren identitatea aldatzeko aukera ematen den, adin-nagusitasuna eta espainiar nazionalitatea eskatzen ditu. Beraz, migratzaileek eta adingabeek ezin dute nortasuna aldatu.

"Pertsona migratzaileek NIE-a dute, eta hori ezin da aldatu. Batzuek beren jatorrizko herrialdeetara itzultzea erabakitzen dute, han paperak aldatzeko, eta, itzultzean, NIE berriaren nortasuna jasoko zen, baina, hori gastu izugarria izateaz gain, leku batzuetan bizi osorako kartzelarekin zigortzen da transexuala izateagatik. Haitiko neska bat ezagutzen dut, hemen ezin duena bere egoera normalizatu migratzailea delako, eta ezin da itzuli transexuala izateagatik".

Transexualentzako euskal Legeak adin-nagusitasunaren eta migratzaileen oztopoak libratzea lortu zuen, eta Euskadin bizi diren pertsona guztiei aplikatzen zaie, haien administrazio-egoera aintzat hartu gabe.

TRANS LEGE BERRIA

Ildo horretan, Saraik itxaropena du Espainiako Kongresuak onartu nahi duen transexualentzako lege berriari; izan ere, adin nagusitasuna eta espainiar nazionalitatea desagerraraziko ditu nortasuna aldatzeko baldintza gisa.

Lege berriak jasotzen duen eskaera nagusia genero-autodeterminazio askearena da, hau da, edonork alda ditzake bere izena eta sexua erregistro zibilean, adierazpen espresu baten bidez, 16 urtetik aurrera. Beraz, lege honek ezabatu egingo luke transexualek psikiatren baieztoko epaia lortu behar izatea.

Lege berriarekin, hormonon tratamenduei buruzko erabakiak hartzeko ezarritako gutxieneko adina 16 urtekoa izango da. Arauak aurreikusten du identitate ez-bitarrak aitortzea —ez gizon ez emakume sentitzen ez diren pertsonak—, eta haien dokumentu ofizialetan sexuari buruzko aipamena ezabatzeko aukera. Era berean, ugalketa-tratamenduetarako sarbidea irekitzen die "haurdun geratzeko gaitasuna duten trans pertsoneri".

BALIABIDEAK IRUNEN

ELKARTEAK

ERRESPETUZ

Transexualen defentsa eta integraziorako euskal elkarteak.

GEHITU

Gehitu Euskadiko Gay, Lesbiana, Trans, Bisexual eta Intersexualen Elkarteak da. Ehunka emakumek eta gizonek osatzen dute, eta pertsona gay, lesbiana, bisexual eta transexualen duintasunerako, berdintasunerako eta sexu eta afektibotasun-garapen aserako oinarritzko eskubideen erabateko aitortpena lortzeko helburua dute, bai eta sexu-orientazioagatik edo identitate transexualagatik lege- eta gizarte-diskriminazio ororen amaiera lortzekoa ere.

BERDINDU

Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen arretarako zerbitzua. Berdindu Eusko Jaurlaritzaren informazio- eta arreta-zerbitzua da, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaietarako. Hauek dira zerbitzuaren helburuak:

- > Lesbianei, gayei, transexualei, bisexualari eta haien inguruneari sexu-orientazioari edo genero-identitateari buruzko informazioa eta arreta ematea.
- > Hezkuntza-komunitateari, eragile sozial eta profesionalei, komunikabideei eta, oro har, gizarteari informazioa eta arreta ematea, homofobia eta transfobia desagerrarazteko.
- > Berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko politikak eta sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea eta proposatzea.

UDAL PROGRAMAK

Ez dago kolektibo horri zuzendutako programa espezifikorik.

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
OSASUNA	<p>Osasunaren arloko profesionalak transexualitateari buruz sentsibilizatzea.</p> <p>Transexualitatea despatologizatzea</p> <p>Bi emakumez osatutako bikoteek aukera berberak izatea ugalketa lagundurako.</p>
HEZKUNTZA	<p>> Transexualitatea zeharka lantzea, bereziki, eta aniztasuna, oro har.</p> <p>> Ikastetxeetan sentsibilizazio-ikastaroak ematea, eta transexualak eurak izatea ikastaroak eskaintzera ikastetxetara hurbiltzen direnak.</p> <p>> Hezkuntzan erabiltzen diren testuliburuak aztertzea, aniztasuna nola erakusten den baloratzeko. Gutxieneko kalitatea ezartzea eta ikastetxe publikoek eta itunpekoek baldintza horiek betetzen dituzten liburuak erabil ditzaten lortzea.</p> <p>> Transexualitatearen inguruko sentsibilizazioak ikastetxetatik haratago joan behar du, eta herritarrengana iritsi behar da, pertsona horiek jasaten duten gizarte-irritzia arintzeko modu gisa. Gizartea sentsibilizatu behar da, gizarte zabala eta inklusiboa lortzeko.</p>
KULTURA ETA KIROLA	<p>KIROLA</p> <p>Kirola erregulatu trans emakumeek emakumezkoen kategorietan lehiatu eta jokatu ahal izan dezaten.</p> <p>Aldagelen erabilera arautzea, trans emakumeak emakumeen aldageletara sar daitezen.</p> <p>KULTURA</p> <p>Beharrezkoa da erreferente gehiago egotea eta eremu publikoan ikusgarritasun handiagoa izatea, trans pertsonen errealitatea normalizatzeko eta eskubide-berdintasuna lortzeko bide gisa.</p>
ENPLEGUA	<p>Herritarrak, oro har, eta enplegatzaileak, bereziki, aniztasunaren eta transexualitatearen inguruan sentsibilizatzea.</p> <p>Gizarte Segurantzako kuotak, laguntzak edo hobariak ezartzea gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak kontratatzean, kolektibo</p>

	horren artean transexualak egongo lirateke.
GENERO-INDARKERIA	Polizia ezberdinetako agenteei transexualitateari buruzko prestakuntza ematea, transexualak behar bezala tratatzeko, identifikazioetan, miaketetan...
GIZARTE-INKLUSIOA	<p>Gizartearekin, oro har, eta, bereziki, pertsonekin harremana duten estamentuekin, transexualitatearen eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzea.</p> <p>Formula berriak, transexualitateari buruzko azalpenik eman behar ez izateko. Gizarte-bazterketako txartel bat.</p> <p>Trans Lege berria onartzea, migratzaileek ere beren nortasuna alda dezaten.</p>

3.5.KLASE SOZIALA/ POBREZIA

3.5.1.SEXU-LANGILEAK

SARRERA

Sexu lana ez dago legez enplegu gisa onartuta, eta, gainera, estigmaren pisua du; horregatik, eremu horretan lan egiten duten pertsonak erabat ikusezinak zaizkigu. Lanaren ezaugarri horiek direla eta, Irungo udal-dokumentazioan ez dago sexu-langileen arrasto handirik, baina jasota dago XIX. mendearen erditik aurrera bazirela sexu langileak Irunen, fabriketako emakume langileak egon baino lehen.

Irun, Estatu frantses eta espainiarren arteko bidean duen kokapen geografikoa dela eta, toki erakargarria da sexu lanerako. Lan honen ezaugarrietako bat langileen mugikortasun geografikoa den arren, gure hirian bi club daudenez eta mugaren bi aldeetan dagoen mugimendua dela eta, Irun sexu-langile dezente dituen hiria da.

Azterlan honen helburua sexu-langile horiek Irunen jasaten duten diskriminazioa eta eskubide-urraketa agertaraztea da, eta haien egunerokotasuna erraztuko duten eta haien eskubideak bermatuko dituzten zenbait neurri planteatzea.

Lan honetan "sexu-lana" eta "sexu-langilea" izenak erabiltzen dira sexuaren esparruan lan egiten duten pertsonak izendatzeko. Kontzeptu hori sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduaren emaitza da, eta gorputzaren atal sexualak lan-tresna gisa erabiltzea onartzen dela adierazten du.

Egoera horretara hurbiltzeko Arratseko Aukera programako bi langilerekin egon gara. Programa hori Irunen eta Donostian garatzen da, eta sexu-profesionalen kolektiboarekin lan egiten du, laguntza eta esku-hartze zuzena, zein gizarte sentsibilizazioa garatuz.

Ikerlanarekin jarraitu baino lehen, sexu-jarduera eskaintzen duten pertsonen autonomia eta euren erabakiaren baliozkotasuna aitortu behar dugu. Aukerak prostituzioan modu ez-behartuan aritzen diren pertsonak baino ez ditu artatzen, Irunen lanean diharduen urteetan ez du aurkitu sexu-esplotaziorako xedez presioz lanean ari den emakumerik. Hala eta guztiz ere, Aukerako gizarte-langileek ez dute kategorikoak izan nahi, eta honek guztiak salerosketako inolako kasurik ez dagoenik ez duela frogatzen diote.

EMAKUME ZIS ETA MIGRATZAILEA, SEXU LANGILEAREN PROFILA IRUNEN

Irungo sexu-langilearen profila emakume zis eta migratzailea da. *"Emakume transexualak eta gizonzkoren bat ere badaude, baina, oro har, oso gutxi"*, azaldu du Aukerako gizarte-langileetako batek, eta aurten (2021) dagoeneko 30 sexu-langilerekin aritu direla azaldu du.

Aukeratik artatzen diren emakumeak %85ean migratzaileak dira, eta gehienak Latinoamerikakoak izaten dira, batzuk Europa ekialdekoak, eta baita emakume afrikarrak ere, baina azken hauek oso gutxi.

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Sexu langileek egiten duten lana arrisku handikoa da osasunarentzat, are gehiago pandemia-garai hauetan. Ez dago soberan gogoratzea osasun-eskubidea, OTI zenbaki baten bidez, eroldari erabat lotua dagoela; eta beraz, Osakidetzarako sarbidea izateko ezinbestekoa da hura izatea. Zoritxarrez, Gizarteratzea atalean zehatz-mehatz ikusiko dugun bezala, errola lortzea ez da lan erraza migratzaileentzat.

Aukeratik, langileak beren osasuna modu integralean zaintzera animatzen dituzte. Beren lanaren berezitasuna dela eta, ITS³¹ kontsultara maiz joatea gomendatzen zaie, sexu-transmisiozko gaixotasunak saihestu eta kontrolatzeko, gainera, ahoz zein bagina bidez egiteko gomendatzen dute. Irunen gaur egun ez dago ITS kontsultaren zerbitzurik, Donostiako Ospitalean zentralizatua baitago. Salatu dutenez, proba horiek familiako medikuari, emaginari edo ginekologoari eskatzen badizkiozu, osasun-arloko profesional askok uko egiten diote ahoz egiteari, *"Aurreiritzi kontua da, besterik ez"*, kritikatu dute Aukeratik.

HEZKUNTZA

Gure hirian prostituzioan aritzen diren sexu-langile gehienek modu hautatuan egiten duten arren, Aukerak argi du hori ez dela inoiz erabaki erraza. *"Are gehiago, askotan bizirauteko duten aukera bakarra da"*, azpimarratu dute.

Aukeraren egitekoen artean prostituzioa atzean utzi nahi duten emakumeei laguntzea ere badago. Bide horretan, ordea, uste dute Lanbideek edo antzeko erakundeek eskaintzen dizkieten ikastaroak eta ikasketak ez direla eskuragarriak haientzat.

"LANBIDEn, adibidez, ikastaroak goizekoak edo arratsaldekoak dira, baina ikastaroa egiten duten bitartean ezin dute lanik egin, eta lanik gabe ez dago dirurik jateko, alokatzeko, bizitzeko... Lan egiteari uzten dioten lanorduak dira, are gehiago orain, etxeratze-aginduarekin gauez lan egin ezin dutenean", gogorarazi du Aukerak.

Ikasketak egitera eta euren burua prestatzera jauzi egitea erabakitzen duten emakume horiei laguntzeko asmoz, etxebizitza bat izatea gustatuko litzaioke Aukerari, ikasi nahi duten emakume horiek bertan hartu eta, gutxienez, alokairuaren pisua kentzeko.

Aukera programaren ametsen artean dagoen etxe hori, espazio terapeutikoa eta ahalduntzekoa izango litzateke; *"Prostituzioa uzteko prozesuan emakumeekin lan egin ahal izateko"*.

Gizarte langile batek, gizarte hezitzaile batek eta psikologo batek osatzen dute Aukera programa; eta azken horrek terapiak eskaintzen dituen arren, Aukerak uste du oso motz geratzen direla: *"Ordubete egoten dira, eta gero agian ez dira hiru astean itzuliko, asko mugitzen dira, terapia egiteko egonkortasun handiagoa behar da eta elkarrekin bizitzeko leku bat eduki ahal izateak asko lagunduko luke"*, azpimarratu dute.

ESTIGMATIZAZIOA

Hezkuntzaren zentzurik zabalenean, herritarrekin lan egin beharra dago sexu langileen estigmaren aurka borrokatu eta gizartea sentibilizatzeko. Are gehiago Irunen, non, bere kokapen geografikoagatik, plaza garrantzitsua baita sexu-langileentzat.

"Sexu langileek bi bizitza paralelo daramatzate, lanarena eta egunerokoa. Eta lanean bizi dutena haientzat irensten dute. Ez dute beren artean sarerik lanean gertatzen denaz hitz egiteko, tabua da... Aukerak bakarrik eskaintzen die aukera hori. Gure lanaren erdia haiei entzutea da. Badakigu zertan aritzen diren eta ez ditugu horregatik epaitzen. Hemen hitz egin dezakete, baina hemen bakarrik".

Sexu langileen arteko harremana ez da inoiz erraza izan, baina Covid-19aren osteko krisiak harremana bera kolokan jarri du ere.

"Lan egiteko modu ezberdinek ezinezko egiten dute euren arteko kohesioa, are gehiago krisian, batzuek prezioak jaitsi behar izan baitituzte lan egin ahal izateko, eta horrek gainerakoak behartzen ditu", azaldu du gizarte langileak.

Emakume horiek pairatzen duten estigmak ere badu pisua gaur egun bizi duten egoera latzean. *"Pobrezian daude, koronabirusak pobreziara eraman ditu. Eta ez da erraza hori onartzen. Orain jateko ere laguntza behar dute, eta beren profilagatik, gainera, diskriminazioa jasaten dute laguntza ematen den leku horietan ere",* adierazi dute gizarte langileek jantoki sozialari edo harrerazentroi dagokienez.

Feminismoan ere azken aldi indarrean diren diskurtso abolizionistek emakume horiek pairatzen duten estigman eragiten du.

"Mundu guztiak goitik hitz egiten die, inork ez du haien iritzia edo ikuspegia kontuan hartzen, eta mundu guztiak epaitzen ditu".

Sexu langileen estigma lantzeaz gain, Aukeraren ustez, transexualitatearen inguruan ere herritarren sentsibilizazioa landu beharko litzateke, transfobia saihesteko.

"Duela gutxi, Irungo supermerkatu batean transfobia kasu bat izan zen, lapurtu izana leporatu zioten, miatu egin zuten, arropa kendu zioten jendearen aurrean... salatu egin du, baina oraingoz, dena horrela geratu da".

Aukeraren ustez, gutxienez hurrengo belaunaldiak aniztasunean hezi beharko lirateke horrelako gertaerak saihesteko.

KULTURA ETA KIROLA

Emakume migratuen egoera aztertzean ikusi dugunez, kulturarako eta kirolerako sarbidean trabak aurkitzen dituzte emakume migratuek, hala nola muga ekonomikoak zein denbora falta, beren lanaren ezaugarriek baldintzatua.

Egoera hau gainditzeko bidean, kirol eta kultura alorrean egiten diren eskaintza zabala eta erakargarria izan beharko lukete sektore honentzat ere. Emakume migratzaileengana iristeko modurik eraginkorrenak ere bilatu beharko lirateke, hainbat hizkuntzetan ezagutaraziz, Udalaren migrazioari buruzko webgunean informazioa ipiniz.

ENPLEGUA

Sexu lanaren ezaugarrietako bat mugikortasun geografikoa da. Emakumeak plazak egiten joaten dira, normalean hiru asteko iraupena izaten dute plaza horiek, eta, ondoren, lantokiz aldatzen dira. Leku emankorrakoak bilatzea eta emakumeak leku batetik bestera mugitzera eramaten dituen dinamika honek ez die leku berean finkatzen uzten. Hala eta guztiz ere, Irun nahiko lan duen hiria denez, Covid-19ren pandemia iritsi aurretik bederen, badira Irunen finkatu diren sexu langileak.

Baina, aurrez esan bezala, Covid-19aren ondoren sortutako krisiak oso gogor jo du kolektibo hau, muturreko pobreziaraino eramanez.

"Mugak ixtea, etxeratze-agindua, bezero falta, klubak ixteko betebeharra... asko eta asko autonomia nahikoarekin bizitzetik inolako diru-sarrerarik gabe eta jateko ere ez edukitzera igaro dira".

Egoera honi iskin egin nahian, azken hilabeteetan emakume askok Irun atzean utzi eta Bartzelonara edo Burgosera joan dira, zorte hobea bilatzeko itxaropenez.

LANERAKO GUNEAK

Sexu langileentzako lan espazio tradizionalak hiru dira: klubak, pisuak eta espazio publikoa edo kalea.

Irunen gizabidezko portaera eta bide publikoaren erabilera, okupazioa eta garbitasuna arautzen dituen udal-ordenantza ezarri zenetik, 2011.urtean, eta ondoren, Espainiako Estatu osoan Mozal Legea ezarri zenetik, espazio publikoa ez da aukera bat sexu-langileentzat, kalean sexua praktikatzea delitu bihurtu baitute bi lege horiek. Horrez gain, klubak nahitaez itxi behar izan dituzte, Covid-19aren osasun-egoera dela eta. Beraz, sexu-langileei, gaur egun, pisuak baino ez zaizkie geratzen lanerako espazio gisa.

Hala ere, kontuan izan behar da Covid delakoarekin eta horren ondorioz mugak ixtearekin ere bezero gutxiago daudela, eta eskaria txikiagoa denez, eskaintza ere urritu egin da.

Irungo pisu gehienak independenteak dira, hau da, langileek logela alokatzen dute eta pertsona bakoitzak bere lana nahi duen bezala kudeatzen du. *"Badira gauak egiten dituztenak, beste batzuk egunez bakarrik lan egiten dutenak..."*, zehaztu dute Aukeratik, baina klubak ixtea *"latza"* izan dela gaineratu dute.

"Klubetan plazak egiten zituztenek egonkortasuna galdu dute eta lan faltak etxebizitzaren alokairua ordaintzea zailtzen du".

GENERO-INDARKERIA

Sexu-langileak eta bezeroak are gehiago estigmatizatzeko asmorik gabe, esparru honetan ere emakumeen aurkako indarkeria dago. Aukerak adierazten duen bezala, gure bizitzako alderdi guztietan bezala, hemen ere bezero batzuek adostutako zerbitzuak gainditu nahi izaten dituzte, edo langileak hasieratik ukatzen dituen praktikak eskatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, eraso bat edo bortxaketa bat egon daitekeen kasuetan, sexu-langilea erasotzailearekin lotzen duen harremana bikotekidearena ez denez, sexu-langileak jasan dezakeen indarkeria ez da genero-indarkeriatzat hartzen.

"Kaleetik jazartzen badituzte edo bortxatzen badituzte, eraso gisa salatu behar dute, ez baitago bien artean harreman sentimentalik eraso genero-indarkeriatzat hartzeko. Baina, jakina, eraso horien atzean generoaren egoera dago. Nola ez da egongo?", hausnartu dute Aukeran.

"Batzuek urraketa edo jazarpen egoera horiek kontatzen dizkigute, baina beste askok beren lanaren parte bezala hartzen dute", salatu dute Aukeran.

Ildo horretan, Aukeraren iritziz interesgarria litzateke genero-indarkeria eta horren ondorioak sexu-langileekin landu ahal izatea, horretarako taldeak sortuz.

SALAKETARAKO BIDE ZAILA

Sexu langile gehienak Irunen modu irregularrean daudenez, zaila egiten zaie sufritu ditzaketen erasoak salatzea.

"Beldur dira salatuta ez ote dituzten hemendik botako, klubetik... eta nor salatzen dute? Bezeroaren izena egiazkoa ote den ere ez dakite".

Hala eta guztiz ere, salatzerantz animatzen badira babesteko mekanismo gehiago egon beharko liriatekeela azpimarratu dute, hala nola, harrera-etxeak.

Gogoratu behar da gaur egun klubak itxierak arrisku handiagoa eragin diela emakume horiei:

"Klubetan segurtasun handiagoa dago, modu antolatuagoan daude, atezain bat dago, barran ere norbait dago... etxeetan ebasketak egon dira. Guk beti esaten diegu bezeroak ez uzteko bakarrik, ezta komunera joateko ere. Gainera, bezero txarra izanez gero, badaki non bizi zaren eta non aurki zaitzakeen".

GIZARTE-INKLUSIOA

Sexu lanetan aritzen diren emakume gehienak migratzaileak dira eta askok ez dute beren egoera arautua ere. Erroldatzerik ere ez dutenak badira eta hauek ezin dituzte laguntzak jaso, ezta oinarrizko gizarte-zerbitzuengatik artatuak izan ere.

Emakume migratzaileei buruzko atalean ikusi dugun bezala, erroldatzeak berebiziko garrantzia du, eskubideak eskuratzeko atea baita. Hala ere, sexu-langileek eskura ditzaketen etxebizitzek askotan ez dute alokairu-kontraturik izaten, funtsezkoak erroldatzea eskatu ahal izateko.

Aukera programak erroldatze sozialen aldarrikapena eta aukera jarri du mahai gainean, eta aukera hori udaletxe batean baino gehiagotan badagoela ziurtatu du.

Donostian, adibidez, Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak daude, SMUS, eta probintziako hiriburua denez, Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuak ere badaude. Larrialdi-egoerei erantzuteko gizarte-zerbitzuak dira horiek eta bertan erroldarik ez duten pertsonak artatzeko aukera dago.

Irungo gizarte zerbitzuak ez dira urgentziazkoak, oinarrizko gizarte zerbitzuak baizik. Baina hala eta guztiz ere, erroldatze sozialak egiteko formulak pentsatu beharko lirateke Aukeraren ustez, eta bide horretan Irungo Udala laguntzeko prestatutasuna ere agertu du.

"Erroldatzea ezinbestekoa da emakume horien bizi-baldintzak hobetzen hasteko, edo, gutxienez, osasun publikorako eskubidea lortzeko".

Erroldatzea funtsezkoa da gainera, migratzaileen egoera erregularizatzeko bigarren helburua lortzeko: errotze soziala. Aukeratik gogoratzen dutenez, hurrengo maila honetarako etenik gabeko hiru urteko erroldatzea behar da.

"Bizilekua alda dezakezu, baina ezin zara hilabete erroldatuta egon gabe, hala suertatzen bada berriro hutsetik hasten zara. Ahal bada gainera, errolda hori EAEn izan behar da beti, Osakidetzari begira; izan ere, Espainiako Estatuko beste erkidego batean erroldatuta egoteak doako arreta medikoa jasotzea zaildu dezake".

Aukerak urteak daramatza Irungo Udalarekin eskuz esku lanean, eta udalak berak bideratzen ditu batzuetan sexu langileak Aukerara. Ez dira asko beren lana publikoki onartzen dutenak, baina gizarte-langileen aurrean edo HAZen hala egiten badute, Aukera programaren berri ematen diete. Aukerako kideak poztu egiten dira horrekin, sexu-langileengana iristeko modu bat baita, baina trabak ere ikusten dizkiote:

"Arratsera bideratzea ondo dago, guk lagundu egiten ditugu, aholkuak ematen dizkiegu, baina guk ez ditugu baliabideak, administrazioak berak eman behar dizkie laguntzak, baliabideetarako sarbidea. Ezin dituzte bideratu eta ahaztu, kasu horien jarraipena egin behar da. Guk aholkuak emango dizkiegu, behar dituzten paperak lortzen lagunduko diegu, izapideetan lagunduko diegu, LANBIDEn, DSBE lortzen. Baina azkenean, erakundeek beraiek eman behar dituzte irtenbideak".

Sexu langileek, Irunen bizi den edozein herritarrek bezala, jaso ditzaketen laguntzen inguruan, "gardentasun falta nabarmena" dagoela uste du Aukerak. *"Ez dakigu zer laguntza existitzen den eta zer ez, eta, azkenean, HAZen tokatzen zaizun pertsonaren arabera da, berak dakienaren eta kontatu nahi dizunaren arabera"*, salatu du.

Laguntzak jasotzeko atzerapena eta gehiegizko burokratizazioa, kezkatzeko arrazoia ere bada Aukerako kideentzat: *"Gutxienez hiru hilabete behar izaten dira laguntzei oniritzia emateko, baina zer egiten duzu hiru hilabeteetan? Nola jaten duzu, nola ordaintzen dituzu etxeak? Eta seme-alabarik baduzu, zer egiten duzu haiekin?"*, galdetu dute.

Gogorarazi dute pandemia hasi zenetik, duela urtebete baino gehiago, zenbaitek ez dutela diru-sarrerarik izan, eta aitortu du Caritas izan dela sexu langile batzuei aurrera egiten lagundu diena.

Administrazioarekin izan beharreko tratuan ere, estigma kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua da. Estigma honek pisua handia du, eta zaildu egiten du ingurune osoarekin duten harremana, baita administrazioarekin dutena ere. Euren lanaz hitz egiteko zailtasuna dute eta mespretxatuak izateko beldurra dute. "Orain arte nola bizi zinen? Zer gertatu da kotizatu ez duzun urte hauetan?..." Planteatzen diren galdera mota horiek, askotan fede txarrik gabe, azalpenak ematera behartzen dituzte, eta epaituak eta estigmatizatuak sentiarazten dituzte.

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

Lehen aipatu bezala, espazio publikoa, kalea, sexu-langileen lan eremu tradizioaletako bat da. Hala ere, duela hamarkada bat, 2011.urtean, Irunen gizabidezko portaera eta bide publikoaren erabilera, okupazioa eta garbiketa arautzen dituen udal-ordenantza onartu zenetik, sexu lanak debekatuta daude bide publikoan.

Ordenantzak baina, lan eremu bat kentzeaz gain, zigorrak eta isunak ezarri dizkie sexu langileei.

Bere garaian espazio publikoan prostituzioan aritu ziren eta Herritarren portaerari buruzko Udal Ordenantzaren 17.2. artikulua zigortutako hainbat emakumeren kasua gogorarazi du Aukerak. Emakume horiek 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isunei aurre egin behar izan diete.

Emakume batzuek ordainketa zatikatua eskatuz ordaindu ahal izan zituzten arren, oraindik emakume batzuek ezin izan diete isunei aurre egin, diru-sarrera faltagatik. Behin baino gehiagotan eskatu duten bezala, zor horiek bertan behera uzteko eskatu du Aukerak, edo, bestela, ordezkotako formulak erabil ditzatela, hala nola kaltea konpontzeko borondatezko lanak, ordenantzan bertan jasotakoak.

Aukerako gizarte langileek gogorarazi dutenez, bere garaian zigortutako emakumeek prostituzioan jarduteari utzi diote. Batzuk Gizarte Zerbitzuen jarraipena dute eta laguntzak kobratzen daude.

"Zorra barkatu beharko litzaieke; izan ere, prostituzioa bizirauteko baliabide bakarra zen orduan, eta, orain, etapa hau ixten saiatzen ari direnean, zor hau edukitzeak ez du laguntzen", azpimarratu dute.

BALIABIDEAK IRUNEN

ARRATS ELKARTEAREN AUKERA PROGRAMA

Sexu langileentzako dagoen programa bakarra Arrats elkartearen Aukera programa da. Egitasmo hau Irunen garatu ahal izateko Irungo Udalak diruz laguntzen du.

Prostituzioan diharduten edo aritu diren pertsonak komunitatean integratzeko bidean laguntza eta zerbitzuak eskaintzen ditu Aukera Zerbitzuak, gizarteratzeko ekintzen bidez. Aukera Programa erreferentziazko puntua da Gipuzkoan prostituzioan diharduten pertsonentzat; prostituzioan aritzen den pertsona helduari modu askean eta ez behartuan laguntzea du helburua, non lan-ingurune egoera kritikoei aurre egiteko estrategiak errazten diren, eta beharrezko baliabideak ematen diren beren baldintza pertsonalak eta sozialak hobetu ahal izateko.

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
OSASUNA	Irunen ITS kontsulta-zerbitzu bat egon dadin lortzea, eta bertan probak baginatik zein ahoz egin daitezela.
HEZKUNTZA	Sexu-langileek pairatzen duten estigmaren aurkako sentsibilizazio eta hezkuntza-kanpainak sustatu. Sentsibilizazio eta hezkuntza-kanpainak, transfobia saihesteko.
KULTURA ETA KIROLA	Eskaintzen diren jarduerak emakume migratuei hurbiltzea.
ENPLEGUA	Sexu-lanetik irteteko zailtasunak aurkitzen dituzte, lan munduan dagoen prekarietatea dela eta. Sexuko langileek prostituzioa atzean uzteko erabakia hartzen dutenean bizitzeko eta ikasteko pisu bat. Eremu terapeutikoa izango zen, ahalduzterako eta laguntzeko espazioa.
GENERO-INDARKERIA	Sexu-langileek zaugarritasun handiagoa jasaten dute genero-indarkeria jasan ondoren. Tutoretzapeko etxebizitza gehiago Sexu-langileek lanean jasan ditzaketen erasoak genero-indarkeriatzat hartzea. Genero-indarkeriari buruzko hausnarketa-taldeak, sexu-langileekin.
GIZARTE-INKLUSIOA	Egoera administratiboa erregularizatzeko zailtasunak. Errolda soziala izateko aukera. Eska daitezkeen laguntzen gardentasun handiagoa. Erakundeak Aukerara bideratutako kasuen jarraipena egitea.
HIRIGINTZA ETA GARRAIOA	Espazio publikoan lan egiteagatik zigor ekonomikoak saihestea. Zorra barkatzea, prostituzioan ari ez bada eta/edo Gizarte Zerbitzuek artatzen badute.

3.5. KLASE SOZIALA/ POBREZIA

3.5.2. GURUTZE GORRIA

SARRERA

Pobrezia dimentsio anitzeko arazoa da, pertsoneri bizimodu duina izateko eskubidea ukatzen die, oinarrizko gaitasun, aukera eta eskubide ezinbestekoak kenduz. Oro har, pobrezia emakume-aurpegia du. Emakumeak-NBEk Agenda 2030erako egindako genero-berdintasunari buruzko ikerketa baten arabera³², etxe pobreenetako 100 gizoneko 155 emakume zeuden, hau da, % 50 baino gehiago. Fenomeno horri "pobrezia feminizazioa" deitzen zaio.

1995ean Beijing-eko Adierazpen eta Ekintza Plataformak XXI. mendeko erronka handienetako bat genero-berdintasuna lortzea izan zela adierazi zuenetik aurrera egin da bide horretan. Datuek baina, 25 urte geroago, martxan jarritako neurriak oraindik ez direla nahikoak erakusten dute eta asko dela oraindik ibiltzeko dagoen bidea. Hauek dira egiteke dauden erronketako batzuk:

- > Emakumeek gizonek baino pobrezia-tasa handiagoak dituzte. Espainiako egoerari buruz, Philip Alston Pobrezia eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak zehazten du emakumeek pobrezia erlatiboaren, gabezia material larriaren, enplegu-intentsitate txikiaren eta muturreko pobrezia-tasa handiagoak dituztela. Gainera, FOESSAren VIII. Txostenaren arabera³³, pobrezia-arriskua %20 gehiago handitzen da emakumeek sostengatzen dituzten etxeetan, eta are gehiago guraso bakarreko etxeetan, non kontziliazioaren ondoriozko zailtasunak gehitzen baitira.
- > Enpleguaren esparruko desberdintasun-arrakalak bere horretan jarraitzen du. Eurostaten datuen arabera, Espainiak emakumeen bigarren langabezia-tasa altuena du Europar Batasunean³⁴. Horri gehitu behar zaio emakumeek egiten dituzten lanaldi partzialen %50 behartuak direla eta honen arrazoia batez ere, oraindik ere zaintza lanak nagusiki emakumeen gain daudelako da. Aipatutako Foessa txostenaren datuen arabera, zaintzan jardun ahal izateko lanaldi partzialeko lana duten pertsonen %95 emakumeak dira, eta horrek lan-karreraren oztopo bat izateaz gainera, eragina du soldata eta pentsio baxuagoak jasotzerako orduan ere.
- > Gainera, genero-desberdintasuna da askotan emakumeak migrazio-proiektu bati ekitera bultzatzen dituen arrazoia. Egoera horietan, emakumeek gizonek baino arrisku handiagoa dute ibilbide luze eta igarotze-prozesuetan. Eta harrerako herrialdeetan, emakume, migratzaile eta langile izateak dakarren diskriminazio hirukoitzari aurre egin behar diote. Lan-merkatuaren kasuan, emakume migratzaileek dute enplegu-tasa handiena zainketen arloan

32 <https://www.observatorioigualdadyempleo.es/la-feminizacion-de-la-pobreza-un-fenomeno-a-nivel-mundial/>

33 <https://www.foessa.es/viii-informe/>

34 <https://ec.europa.eu/eurostat>

(adinekoen egoitzak, adingabeen zaintza, etxeko enplegua), eta, oro har, ordainsari txikiagoa, behin-behinekotasuna eta ezkutuko ekonomia ditu ezaugarri sektore honek.

Irunen pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen profila ezagutzeko, Saioa Errazkin Irungo Gurutze Gorriko arduraduna elkarrizketatu dugu.

Gurutze Gorriak, larrialdietan esku hartu eta laguntzeaz gain, pobrezia eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonekin ere jarduten du, pertsona hauek bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzeko behar diren aukerak eta baliabideak izan ditzaten. Saioak ez du zalantzarik Irunen gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen profila definitzerakoan:

"Batez ere, emakumea eta gehienetan migratzailea da; batzuk Irunera, iritsi berriak eta beste batzuk, aspaldi etorriak eta bere garaian nazionalitatea lortuta ere, oraindik bakartuta daudenak, gaztelaniaz apenas hitz egin gabe.... Gaur egun, magrebtar jatorriko emakume asko daude, baita ekialdeko herrialdeetakoak ere".

Gurutze Gorria boluntario gehien biltzen dituen erakundeetako bat da; Irunen soilik, 150 boluntario inguru daude, eta kopuru hori egituraren % 95 da. Soldatapeko pertsonak dauden arren, sortzen diren jarduera ia guztiak boluntariotzaren esku daude. Irungo boluntarioaren profila gaztea da, batz besteko adina 34 urtekoa da, eta ia ez dago bereizketarik gizonen eta emakumeen artean.

"Egia da lehen boluntarioak bereizten zirela. Sorospenen alorrean, gizon gehiago zeuden, eta pobrezia eta gizarte-bazterketaren inguruan, berriz, emakume gehiago. Baina hau aldatu egin da eta nahiko antzeko gaude".

Irunen egiten dituzten jardueren artean, sei eta hamabi urte arteko haurrentzako eskola-laguntza, aisialdia eta denbora libre dago, bai eta gaztelaniazko eskolak ere. Une honetan baina, Covid-19aren ondoren sortutako osasun krisiaren ondorioz, nazionalitatea atera nahi duten ikasleentzako gaztelerako klaseak bakarrik mantentzen dituzte.

Errazkinek gogorarazi duenez, Espainiako nazionalitatea lortzeko, migratzaileek 10 urte eman behar dituzte Espainiako Estatuan erroldatuta, eta Espainiako ezagutza-proba bat eta gaztelaniazko beste bat (A2 maila) gainditu behar dituzte.

Covid-19aren aurretik, Irungo Gurutze Gorriaren lokalek hogeita hamar pertsona inguru biltzen zituzten bost taldetan, eta 0 maila eskaintzen zuten etorri berrientzat, alfabetatzea eta nazionalitate-probari begirako ikastaroak.

"Orain, klaseen bidez, ez gara migratzaile iritsi berriengana heltzen. Datozenek ia hamarkada bat daramate hemen, eta beste mota bateko etorrerak ziren; agian, beren arazorik handiena lan-munduan sartzea da, hizkuntzarik eza, ikasketak... "

Eusko Jaurlaritzak pobrezia energetikoa arintzeko eskaintzen duen laguntza tramitatzen ere laguntzen du Gurutze Gorriak eta tramite honen bidez, Saioak kontaktzen duenez, errealitate berriak ezagutzen dituzte.

"Hemen ere emakumeak dira errazen hurbiltzen direnak, nahiz eta familia-unitatea osatu, emakumeak dira laguntza eskatzen eta pausoa ematen lehenak. Ahoz aho zabaltzen da hemen gaudela eta horregatik hurbiltzen dira. Bati laguntzen diogu eta berak kontaktzen du eta gehiago etortzen dira. Eta noski, gu beti saiatzen gara gizarte-zerbitzuetara bideratzen".

Gazteak laneratzea ere gudu-zelaia da Gurutze Gorriarentzat, 16 eta 29 urte bitarteko gazteekin lan egiten dute lana aurkitzeko.

"Prestakuntza txikiak eskaintzen dizkiegu, baina laneratzea lortzeko kontratu txikiren bat ere".

Saioak ez du generoari buruzko alde handirik ikusten kolektibo horretan.

"Zoritxarrez, gizon zein emakumeek antzeko egoera latzean daude. Krisi-testuinguru batean gazte izatea egokitu zaie, eta horrek lan-merkatuan sartzea eragozten die".

ETXERIK GABEKO PERTSONAK

Ettxerik gabeko pertsonen artean gizon gehiago daude emakumeak baino, baina Saioak nabarmendu duenez emakumea kalera iristen bada *"motxila eta arrisku gehiagorekin"* iristen da.

Irungo Gurutze Gorriak ere kolektibo honekin egiten du lan, eta Zubia hasi baino lehen, Gurutze Gorriak eramaten zuen ettxerik gabeko pertsonentzako larrialdietarako aterpetxea. Negu pare batez egon zen martxan, eta han gizon zein emakumeek egiten zuten lo. Bertan gertatutako genero-indarkeriako kasu bat ekarri du gogora Saioak:

"Oso bikote gaztea izan genuen bertan lotan, neskek 18 urte bete berriak zituen aterpetxean erasoak jasan zuenean. Gurutze Gorriak prozesu osoan lagundu zion, babes gisa etxebizitza bat ere esleitu zitzaion, baina uko egin zion, bizitza osoa zeraman instituzionalizatuta, nahiago zuen kalean bizi".

MIGRATZAILEAK

Gurutze Gorriak ere lan egiten du Irundik Europara bidean doazen migratzaileekin. 2018ko udan migratzaileen etorrera masiboak eragindako krisia ere Irungo Gurutze Gorriak kudeatu zuen, besteen artean. Gaur egun, Belaskoena auzoko harrera-zentroa Gurutze Gorriak kudeatzen jarraitzen du, baina erkidego-mailan.

Europara doazen migratzaileen artean zailtasun handiak dituzten emakumeak ere badaude.

"Emakume hauen zaurgarritasuna ikaragarria da. Iristen ziren lehenak, bide luze eta arriskutsuagoetatik zetozen; senarraren bila zihoazen, askotan bidean jaiotako ume bat bizkarrean zutela. Abusuen gaia izugarria da kolektibo honetan. Profil zaila da".

ZAILTASUN SOZIALA DUTEN EMAKUMEAK

Gurutze Gorriak zailtasun sozialak dituzten emakumeak ere artatzen ditu, eta edozein indarkeria mota prebenitzen eta ezabatzen laguntzen du, emakumeak ahaldunduz eta lagunduz. Eredu

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

horretan garatzen diren proiektuen artean daude genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra edo zailtasun sozialeko egoeretan dauden emakumeentzako eta seme-alabentzako aldi baterako harrera-guneak.

Proiektu horiek estatu-mailakoak dira, eta Irunen, arduradunak zehazten duenez, oso gutxi eskaintzen dira.

"Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek berehalako eta urrutiko arreta izateko zerbitzua Ertzaintzak darama, kasu batzuetan haiekin elkarlanean aritzen gara, baina normalean Ertzaintzak kudeatzen du".

AZTERTUTAKO ARDATZAK

OSASUNA

Emakume migratzaileek osasun-arloko profesionalekin hitz egiteko arazoak dituzte.

"Europara bidean diren horiei guk laguntzen diegu Gurutze Gorritik. Ospitalera laguntzen diegu edo guk deitzen dugu medikura telefonoz. Baina hemen instalatuta dauden pertsonak gazteleraz ez ulertzea eta ez azaltzea arazo bat da. Emakume asko seme-alabekin joaten dira medikuarengana, seguruago sentitzen dira horrela".

Paziente eta osasun arloko profesionalen arteko ulermena bermatzeko neurriak hartu beharko zirela sostengatu du.

HEZKUNTZA

Seme-alabak eskolaratzea integrazio-bide bat da familia osoarentzat, haien nukleotik irten eta bertako pertsonak ezagutzen baitituzte. Hala ere, beharrezkoa da udalerriko eskola-bereizketa berrikustea, horren arrazoiak zehazten saiatzeko eta eskolaratze heterogeneoagoa lortzeko tresnak eskaintzeko.

"Familia migratuetako ikasle gehienak biltzen diren ikastetxeetan inbertitu beharko litzateke. Agian, inpaktu txikiko gauzekin nahikoa da irudi positiboagoa lortzeko. Zentro horiek sustatu behar dira".

KULTURA ETA KIROLA

Kultura eta kirola oso eremu urrunak dira gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden emakumeentzat. Horrela egiaztatzen du Saioak:

"Gizonek bizitza soziala dute, eta kontaktuaren ondorioz gaztelania ikasi eta gehiago integratzen dira. Emakumeek oso zirkulu txikiak dituzte, eta ez dira hortik ateratzen. Haien jatorriaren arabera gaizki ikusia dago bizitza soziala ere izatea. Ahal duzun punturaino eduki dezakezu. Batez ere magrebtar jatorriko emakumeak. Egia da honekin ere apurtzen ari dela pixkanaka. Baina oraindik hor dago".

Kultura tresna eraginkorra izan daiteke emakume horiek erakarri eta zirkulu itxi horietatik atera daitezen lortzeko. Kirolari dagokionez, Saioak uste du kolektibo batzuekin berariaz lan egin beharko litzatekeela.

"Marokoko emakumeei, adibidez, ez zaie burutik pasatu ere egiten kalean kirola egitea. Baina agian interesgarria izango litzateke emakume hauentzako kirolerako espazio bat eskaintzea eta bertatik ahaldundzea".

Gainera, haurtzarotik lan egin beharko litzateke kolektibo hori astintzen duten estereotipoak desagerrarazteko.

GIZARTE-INKLUSIOA

Gurutze Gorriaren ustez, ezinbestekoa da oinarritzko gizarte-zerbitzuen aurrez-aurreko arreta-puntu bat izatea. Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak artatu eta administrazioak eta dauden laguntzek nola funtzionatzen duten ezagutzera emateko gune bat izango zen.

"Erroldarik ez baduzu, ikusezina zara. Prebentzioz artatzen ez bada, askoz arazo handiagoa sortzen da. Prebentzian oinarrituta lan egin behar da, eta informazio guztia eman. Hori administrazioaren lana izan behar da".

NEURRI ZEHATZAK

ARDATZA	NEURRIAK
OSASUNA	Hainbat kultura-jatorritako figura berriak sartzea osasun-zerbitzuetan, hala nola itzultzaile-interpretearena, bitartekariarena...
HEZKUNTZA	> Irungo eskoletan bizi den segregazioa gainditzea. > Familia migratuetako ikasle gehienak biltzen diren ikastetxe publikoetan inbertitzea. Zentro horiek sustatzea.
KULTURA ETA KIROLA	Eskaintza kulturala erabiltzea emakume migratzaileak erakartzeko eta haien integrazioa lortzeko. KIROLA > Emakume migratzaileentzako jarduerak bultzatzea, kirola egitera animatzeko. > Gorputz hezkuntzako irakasleak sentibilizatzea generoaren eta immigrazioaren arloan, neskatoak animatzeko eskola-kirolaren gisako programetan parte hartzera.
ENPLEGUA	> Hezkuntza sustatu.
GENERO- INDARKERIA	(Gurutze Gorriak ez du zuzenean genero indarkeriaren biktimekin lan egiten).
GIZARTE- INKLUSIOA	Oinarrizko gizarte-zerbitzuen aurrez-aurreko larrialdiko arreta-gunea, erroldatuta ez dauden pertsonek gizarte-zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten.

4. ONDORIOAK

XXI. mendean eta Irunen emakumea izatea diskriminaziorako faktorea da. Sistema patriarkalak gure gizartea zeharkatzen du, eta emakume izateak eskubide eta aukera berdintasunean eragina du oraindik ere. Gainera, emakume izateari pertsona migratua izatea, dibertsitate funtzionala izatea edo adineko pertsona izatea gehitzen bazaio, egoerak okerrera egiten du. Gauza bera gertatzen da emakume transexuala bada, guraso bakarreko familia osatzea erabakitzen badu, sexu-lana egitera behartuta badago edo gizarte-bazterketako egoeran badago. Deskribatutako egoera guztietan, emakumea izateak kalte gehigarria eragiten du.

Azterlan honek goian deskribatutako egoera guzti-guztiak aztertu ditu, errealitate horiek ezagutzeko eta haietara hurbiltzeko. Gainera, egoera hauek euren azalean bizi dituzten pertsonen eskutik egin dugu ikerketa, edo kolektibo horien eskubideen alde borrokatzen duten elkarte edo taldeen bidez. Ikerketa honen azken helburua emakume horien egunerokotasuna hobetzeko asmoz, egoeren gainean Administrazioari esku hartzeko ildoan eta neurrien zerrenda bat eskaintzea izan da.

Desberdintasunei ertz bakarretik heltzea joera desagokia dela frogatu dugu azterlan honekin. Diskriminazioaren aritmetikan faktore batek baino gehiagok du eragina eta hori da lan honen ondorio nagusia. Elkarguneak existitzen dira, eta ez da gauza bera emakume zuria edo beltza izatea, heterosexuala edo lesbiana izatea, erosteko ahalmena izatea edo gizarte-bazterketako arriskuan egotea. Desberdintasun horiek, eta askoz gehiago, emakumeek osatzen duten kolektiboan eta emakumeen bizitzan dute eragina.

Plan eta politikak diseinatzerakoan errealitate horiek kontuan ez hartzeak, hau da, pertsonak eta, gure kasuan, emakumeak kolektibo bakar eta homogeen gisa aintzat hartzeak, dauden botere-mekanismoak erreproduzitzen ditu eta zenbait sektore baztertzea errazten du.

Diskriminazioaren arazoari heltzeko modua berrikusi egin behar da, errealitatea konplexuagoa izan ohi delako eta diskriminazioak ez duelako modu homogeen eragiten. Beraz, desberdintasunak tratatzeko ikuspegi interseksionalago bat hartzeak, hau da kolektibo beraren barruan dauden diskriminazio horiek kontuan hartzen dituen ikuspegi bat izateak, politika publiko inklusiboago eta kalitate hobegokoak garatzea sustatuko du.

Diskriminazio anizkoitza, genero-ikuspegia bezala, zeharka tratatu behar da. Politika guztietan eta fase guztietan kontuan hartu behar da, planteamendutik hasi eta gauzapan eta ondorengo balorazioan ere. Horrela bakarrik hartuko dira kontuan sektore ahulenen errealitateak eta beharrak, berez zaugarria den kolektibo baten barruan.

NEURRI ZEHATZEN LABURPENA

Diskriminazio anizkoitza bizi duten emakume horien egoera gainditzeko eta hobetzeko, jarraian lan osoan jasotako neurri zehatzen laburpen-taula dugu.

Interesgarria litzateke neurri horiek Irungo Berdintasun Planean sartzea, helburuak ezarri eta ekintza horiek denboran zehar planifikatu ahal izateko.

OSASUNA

<p>JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> > Osasun-arloko profesionalak generoan eta immigrazioaren arloan sentsibilizatzea, diskriminazioa sustatzen ez duten esku-hartze ereduak garatu eta emakume horiek estereotipatetik aldentzen diren jarduera toleranteagoak sustatzeko. > Gure osasun-sistemaren eta bertan aurki daitezkeen zerbitzuen berri eman emakume migratzaileei. > Emakume etorkinak, beharrezkoa dutenean, osasun-sistemara hurbiltzera animatu, haien egoera irregularra antzemateko beldurrik gabe eta herrialdetik kanporatzeko arriskurik gabe. > Osasunaren arloan aurkitzen dituzten hizkuntza-oztopoak gainditzeko neurriak hartzea, itzulpen-zerbitzuen bidez, adibidez. > Kolektibo horrek pairatzen duen osasun mentaleko egoera larriaren aurrean, lasaitzeko, aktiboki entzuteko, interesak eta zaletasunak partekatzeke, jarduera fisikoa, kirola, erlaxazioa eta abar sustatzen dituzten espazioak sortzea.
<p>BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Egungo etxez etxeko laguntza-zerbitzua birkontzeptualizatzea. - Geriatrien beharra aldarrikatu. - Zahartze osasungarriari buruzko kontzientziatio-kanpainak. - Adineko emakumeen tratamenduari buruzko prestakuntza. - Adineko emakumeei laguntza psikologikoa hurbiltzea.
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Generoaren eta desgaitasunaren ikuspegia osasun-langileen prestakuntzan sartu behar da, kolektibo horri buruz kontzientziatzeko. - Esploraziorako tresnak eta aparatuak irisgarriak izan behar dira edozein desgaitasun-mota duten emakumeentzat. Mamografiak egiteko tresnak ere egokituta egon behar dira, baita miaketa ginekologikorako eta ekografiak egiteko ohatilak ere.

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

	<p>-Desgaitasun intelektuala duten emakumeek informazio egokia eta ulergarria jaso behar dute beren osasun-egoerari eta erabiliko diren tratamenduei buruz, bai eta horien ondorioei buruz ere.</p> <p>-Desgaitasuna duten neskatok elikadura- nahasmenduekin duten erlazioa aztertu behar da, asko baitira anorexia ala bulimia sufritzen dutenak. Halaber, gorputzaren irudia eta gizartean ezarritako edertasun-irizpideak landu behar dira.</p> <p>-Emakumeek ugalketa-osasunari buruzko erabakiak hartzeko eskumen gehiago izatea.</p> <p>-Sexualitateari eta antisorgailuei buruzko informazioa edozein desgaitasun-mota duten emakumeen eskura jarri behar da, behar den formatuetan gainera.</p> <p>-Aniztasun funtzionala duten eta instituzionalizatuak dauden emakumeak sexu-harremanak izateko duten eskubidea bermatu behar da.</p> <p>-Aniztasun funtzionala duten emakumeen amatasun-eskubidea bermatzeko neurriak hartu.</p>
<p>FAMILIA ANITZAK</p>	<p>Gizarte Segurantzaren ugalkortasun-tratamendua eskuratzeko orduan guraso bakarreko familiak diskriminaziorik ez jasateko neurriak hartu.</p> <p>Osasun-arreta hobetzea eta emakumeen eta adingabeen osasun fisikoa eta mentala errazten duten programa espezifikoak garatzea..</p> <p>Osasun-arloko profesionalak familia-aniztasunari buruz sentsibilizatzea, adingabearen dokumentazio ezak, harrera- eta adopzio-kasuetan, ez dezan eraginik izan adingabearen osasun-eskubidean eta osasun-sarbidean.</p>
<p>TRANSEXUALAK</p>	<p>Osasunaren arloko profesionalak transexualitateari buruz sentsibilizatzea.</p> <p>Transexualitatea despatologizatzea</p> <p>Bi emakumez osatutako bikoteek aukera berberak izatea ugalketa lagundurako.</p>
<p>SEXU-LANGILEAK</p>	<p>Iruren ITS kontsulta-zerbitzu bat egon dadin lortzea, eta bertan probak baginatik zein ahoz egin daitezela.</p>
<p>GURUTZE-GORRIA (POBREZIA)</p>	<p>Hainbat kultura-jatorritako figura berriak sartzea osasun-zerbitzuetan, hala nola itzultzaile-interpretearena, bitartekariarena.</p>

HEZKUNTZA

<p style="text-align: center;">JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<p>EMAKUME MIGRATUEN PRESTAKUNTZA</p> <p>> Ikasketen homologazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jatorrizko herrialdeetan egindako unibertsitate ikasketak homologatzeko estrategia berriak bilatu. • Atzerrian egindako batxilergoak baliokidetzeko neurriak. <ul style="list-style-type: none"> ◦ Batxilergo humanistiko edo zientifikoa eskatzen den heziketa-zikloetara sartzeko zailtasunak dituzte etorkinek, euren batxilergoak modu orokorrean baliokidetzen dituztelako. Horren ondorioz, aukera gutxiago dituzte egin nahi dituzten ikasketak egiteko. <p>> Hizkuntza ofizialak ez ezagutzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Boluntarioekin trukea. Mintzalaguna bezalako proiektuak garatzea, gaztelaniaz zein euskaraz. • Helduen eskolatik, SOS Arrazakeriatik, migratzaileek eta bertako pertsonen sortutako elkartetatik, hizkuntzen integrazioarako eta praktikarako ekimenak sustatzea. • Euskaltegiko doakotasuna edo euskara ezagutzeko erraztasunak eskaintzea, etorkinen lan integrazioa ahalbidetzeko, baita erakunde publikoetan ere. <p>EMAKUME MIGRATUEN SEME-ALABEN HEZKUNTZA</p> <p>> Irunen dagoen eskola-bereizketari buruzko ikerketa egitea.</p> <p>> Udal eskola-kontseiluen funtzionamendua bultzatzea, beste administrazio batzuekin lankidetzan eta hezkuntza-politiken elkarrekintza bilatuz, eskola-maparen kohesio eta oreka handiagoa lortzea helburu harturik.</p> <p>> Tokiko eragileekin lankidetzan, hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak eskaintzea, kultura-aniztasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko hezkuntza-sareak bultzatzeko, Eskola inklusiboaren esparruan.</p> <p>> Eskolan eta eskolatik kanpo euskaraz murgiltzeko aukera gehiago eskaintzea eta hauek ezagutaraztea.</p> <p>> Baliabide horiek eskuratzeko laguntzak. Gaur egun, Solas Jolas, Eskola Kirola... diruz laguntzeko DBE kobratzen duzula ziurtatu behar da, eta, laguntza hau lortzeko 3 urte baino gehiago eman behar dituzu erroldatuta. Beste laguntza-aukera batzuk bilatu.</p>
	<p style="text-align: center;">BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>

	<p>- Emakumeek egindako lana aitortzea.</p>
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<p>Irigarritasun unibertsala helburua izan behar da hezkuntzan, eta ez soilik eskola-orduetan. Horretarako, oztopo arkitektonikoak ezabatuko dira, baina baita irigarritasun kognitiboa ere..</p> <p>Genero-ikuspegia eta aniztasun funtzionala hezkuntza-sisteman txertatu behar dira.</p> <p>Hurrengo belaunaldiak aniztasunean eta inklusioan hezi eta kontzientzia hartu behar dute.</p> <p>Desgaitasunen bat duten nesken familiekin sentsibilizazio lana egin behar da, etxe ingurutik atera eta ohitura eta trebetasun sozialak garatzearen onuraz konturatzeko.</p> <p>Era berean, etxeko lanen zama aniztasun funtzionala duten emakumeengan ez uzteko kontzientziazioan sakondu behar da, zama horrek ondorio negatiboak ekarri baititzake beren hezkuntza- eta gizarte-garapenean.</p> <p>Prestakuntza- eta enplegu-proiektuetan laguntzen duten zentro guztiek irigarriak izan behar dute, eta beren eskaintza desgaitasunen bat duten ikasleen beharrian espezifikoetara egokitu behar dute.</p> <p>Lanerako prestakuntzako programek autoestimuari eta gizarte- eta lan-trebetasunei buruzko ikasketak jaso behar dituzte.</p>
<p>FAMILIA ANITZAK</p>	<p>Familia-aniztasuna hezkuntzako ardatz bat izan behar da, eta hurrengo belaunaldiekin landu behar da. Udalak familia-aniztasunari buruzko kontzientziazio-ikastaroak sustatzen lagundu dezake.</p> <p>Neurri zehatz gisa, honako hauek proposatzen dira ikastetxeei begira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familiaren eguna, maiatzaren 15a, erreferentziatzat hartzea. Aitaren edo amaren egunaren orde, familien aniztasuna lantzeko asmoz egun honi leku egitea. • Ikasleen guraso-elkarteen nomenklatura aldatzea, bereziki gaztelerez; aita edo ama ageri beharrian familiak aintzat hartzea. • Ikastetxeetako bozketa-sistema aldatzea. Familia batek boto bat edo boza bat ikasle bakoitzeko, eta ez boto bat guraso bakoitzeko. <p>Familia-aniztasunari buruzko sentsibilizazioak ikastetxeetatik haratago joan behar du, eta herritarrengana oro har iritsi, familia horiek jasaten duten gizarte-irritzia arintzeko modu gisa.</p> <p>ZAINZA/ KONTZILIAZIOA</p> <p>Familia horien kontziliazioan laguntzeko, guraso bakarreko familietako seme-</p>

	<p>alaben sarbideari lehentasuna emateko puntuak ematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haur-Hezkuntzan (0-3 urte), plaza gehiago izateko beharra aldarrikatzeaz gain. • Ikastetxeetan • Udan eskaintzen diren zerbitzuetan, hala nola Solas Jolas edo udalekuak. <p>Gainera, zaintzaileak kontratatzeko laguntzak eskatzen dituzte, familia ugarien kasuan bezala, Gizarte Segurantzako kuotetan hobaria izateko eskubidea ematen baitu.</p>
<p>TRANSEXUALAK</p>	<p>> Transexualitatea zeharka lantzea, bereziki, eta aniztasuna, oro har.</p> <p>> Ikastetxeetan sentsibilizazio-ikastaroak ematea, eta transexualak eurak izatea ikastaroak eskaintzera ikastetxeetara hurbiltzen direnak.</p> <p>> Hezkuntzan erabiltzen diren testuliburuak aztertzea, aniztasuna nola erakusten den baloratzeko. Gutxieneko kalitatea ezartzea eta ikastetxe publikoek eta itunpekoek baldintza horiek betetzen dituzten liburuak erabil ditzaten lortzea.</p> <p>Transexualitatearen inguruko sentsibilizazioak ikastetxeetatik haratago joan behar du, eta herritarrengana iritsi behar da, pertsona horiek jasaten duten gizarte-irritzia arintzeko modu gisa. Gizarte sentsibilizatu behar da, gizarte zabala eta inklusiboa lortzeko.</p>
<p>SEXU-LANGILEAK</p>	<p>Sexu-langileek pairatzen duten estigmaren aurkako sentsibilizazio eta hezkuntza-kanpainak sustatu.</p> <p>Sentsibilizazio eta hezkuntza-kanpainak, transfobia saihesteko.</p>
<p>GURUTZE-GORRIA (POBREZIA)</p>	<p>> Irungo eskoletan bizi den segregazioa gainditzea.</p> <p>> Familia migratuetako ikasle gehienak biltzen diren ikastetxe publikoetan inbertitzea. Zentro horiek sustatzea.</p>

KULTURA ETA KIROLA

<p>JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<p>> Kultura eta kirol alorretako eskaintzak zabala izan beharko lukete, eta emakume migratzaileengana iristeko modurik eraginkorrenak bilatu beharko lirateke (hizkuntza batean baino gehiagotan ezagutarazi, Udalaren migrazioaren inguruko webgunean...).</p> <p>> Gorputz-hezkuntzako irakasleak generoan eta immigrazioaren alorrean sensibilizatzea, eskola-kirolaren gisako programetan neskatoak parte hartzera animatzeko.</p>
<p>BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kultur aukerak, antzerki taldeak, eztabaidak bultzatzea. - Belaunaldien arteko programak bultzatzea. - Berariaz adinekoei zuzendutako kultura-eskaintza bultzatzea. - Kirol-jarduera sustatzea: zerbitzuak ezagutaraziz eta ekimen berriak bultzatuz. - Elkarleen jardueri buruzko informazioa. - Kultura-jardueretan adinekoei prezioak jaitea edo deskontuak sustatzea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eta haien zaintzaileentzako jarduerak bultzatzea. - Adinekoentzako udal-jardueren eskaintza zabaltzea. - Auzoetan aisialdirako eta denbora librerako espazioen eskaintza zabaltzea. - Kultura-espazioetan irisgarritasun-arazoak konpontzea.
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<p>Aniztasun funtzionala duten emakumeek kulturarekin duten harremana aztertzen duen azterlanik ez da, beraz ezer gutxi dakigu haien gustu, interes, itxaropenak eta beharren inguruan.</p> <p>Gai horiei buruzko azterlanak egitea beharrezkoa da, izan ere, garatu nahi diren inklusioko kultura-politikak egin ahal izateko, egoeraren ezagutza ezinbestekoa da eta hori landa-lan sakon batetik abiatuta lortzen da.</p> <p>KIROLA</p> <p>Familien, hezkuntza-administrazioaren eta irakasleen artean sensibilizazio-kanpainak egin behar dira, bai eta desgaitasuna duten nesken artean ere, kirolak ongizate fisiko, mental eta emozionalerako dituen onurei buruz kontzientziatzeko.</p> <p>Hezkuntza-sistemak desgaitasuna duten nesken kirol-jarduera sustatu behar du, eta, horretarako, irakasleek, batez ere prestakuntza fisikoko irakasleek, berariazko prestakuntza jaso behar dute.</p> <p>Udal-kiroldegietako programak diseinatzerako garaian desgaitasuna duten emakumeek aktiboki parte har dezatela sustatu behar da, kiroldegiek beren behar eta itxaropenetara egokitutako eskaintza eman dezaten.</p>

	<p>Arreta berezia eskaini behar zaio 65 urtetik gorako pertsonen sektoreari. Kolektibo hori, batez ere, emakumeek osatzen dute, eta askok mugikortasun-arazoak dituzte edo izango dituzte. Kirola egiten laguntzeko zerbitzuak edota diru-laguntzak eskaini behar zaizkie.</p>
FAMILIA ANITZAK	<p>KIROLA</p> <p>Irungo kiroldegiek eskaintzen dituzten tarifen eta bonuen artean, familia-bonoa dago, baina horrek ez ditu guraso bakarreko familiak aintzat hartzen, eta, beraz, familia direla aitortu eta beren familia-ereduari egokitutako prezioa izatea eskatzen dute.</p> <p>KULTURA</p> <p>Aisialdia eta kultura-jardueretarako sarbidea ere garestia da guraso bakarreko familientzat. Ildo horretan, haien egoera kontuan har dadila eta jardueretan deskontuak aplikatzea eskatzen dute.</p>
TRANSEXUALAK	<p>KIROLA</p> <p>Kirola erregulatu trans emakumeek emakumezkoen kategorietan lehiatu eta jokatu ahal izan dezaten.</p> <p>Aldagelen erabilera arautzea, trans emakumeak emakumeen aldageletara sar daitezen.</p> <p>KULTURA</p> <p>Beharrezkoa da erreferente gehiago egotea eta eremu publikoan ikusgarritasun handiagoa izatea, trans pertsonen errealitatea normalizatzeko eta eskubideberdintasuna lortzeko bide gisa.</p>
SEXU-LANGILEAK	<p>Eskaintzen diren jarduerak emakume migratuei hurbiltzea.</p>
GURUTZE-GORRIA (POBREZIA)	<p>Eskaintza kulturala erabiltzea emakume migratzaileak erakartzeko eta haien integrazioa lortzeko.</p> <p>KIROLA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Emakume migratzaileentzako jarduerak bultzatzea, kirola egitera animatzeko. > Gorputz hezkuntzako irakasleak sentsibilizatzea generoaren eta immigrazioaren arloan, neskatoak animatzeko eskola-kirolaren gisako programetan parte hartzera.

ENPLEGUA

<p>JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<p>Enplegu munduan prekarietatea gainditzeko, lan-baldintzak hobetzeko eta zaintza-lanetatik irteteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> > Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen emakumearen prestakuntzarako eta enplegurako proiektuak sustatzea, bere beharretara eta interesetara egokituak. Ikasle izateak (txartelarekin) lasaitasun handiagoa emango lieke. > Lanaldi osoko urtebeteko kontratuak egiteko aukera handitu, haien egoera administratiboa erregularizatzeko ezinbestekoak.
<p>BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Emakumeek egindako lanaren gaineko aintzatespen-kanpaina sozial eta instituzionalak. - Egiten duten lana aitortzeko kanpainak (zaintza, etxeko lana). - Emakumeen pentsioak osatzeko laguntzak.
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<p>Aniztasun funtzionala duten emakumeak etxeko lanak eta zaintza-lanak egitera dira behartuak, haien prestakuntza eta lan-merkaturako sarbidea eragotziz, bai eta haien partaidetza soziopolitiko eta kulturala mugatuz ere. Jasaten duten presio horren inguruan kontzientziatzeko ekintzak garatu behar dira.</p> <p>Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-aukerak eta lanbide-sustapena egin behar da.</p> <p>Era berean, desgaitasunen bat duten neskatilak ikasten jarraitzeko animatu.</p> <p>Enpleguaren alorrean, informazio- eta orientazio-zerbitzuetan lan egiten duten langileek generoaren eta desgaitasunaren arloko prestakuntza izan behar dute.</p> <p>Enplegu-zerbitzuek ekintza positiboko politika garatu behar dute desgaitasuna duten emakumeak kontutan hartuta.</p> <p>Emakumeen gizarteratzea sustatzeko enpleguetan kuotak ezarri beharko dira desgaitasunen bat duten emakumeak integratu ahal izateko.</p> <p>Desgaitasunen bat duten nesken eta emakumeen familiei zuzendutako kontzientziatio- eta sentsibilizazio-ekintzak egin behar dira, sektore tekniko eta industrialetako enpleguari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak hausteko.</p>
<p>FAMILIA ANITZAK</p>	<p>Partekatu gabeko familia-erantzukizunak dituzten amen lan-merkaturako eta sustapen ekonomiko eta sozialerako sarbidea bermatuko duten neurri gehiago garatzea, betiere guraso bakarreko familien berezitasunak kontuan hartuta.</p> <p>Zaintza-lanetan laguntzeko neurriak, hala nola hobariak zaintzaileak kontratatzerako orduan.</p>
<p>TRANSEXUALAK</p>	<p>Herritarrak, oro har, eta enplegatzaileak, bereziki, aniztasunaren eta transexualitatearen inguruan sentsibilizatzea.</p>

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

	Gizarte Segurantzako kuotak, laguntzak edo hobariak ezartzea gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak kontratatzean, kolektibo horren artean transexualak egongo lirateke.
SEXU-LANGILEAK	Sexu-lanetik irteteko zailtasunak aurkitzen dituzte, lan munduan dagoen prekarietatea dela eta. Sexuko langileek prostituzioa atzean uzteko erabakia hartzen dutenean bizitzeko eta ikasteko pisu bat. Eremu terapeutikoa izango zen, ahalduntzerako eta laguntzeko espazioa.
GURUTZE- GORRIA (POBREZIA)	> Hezkuntza sustatu.

GENERO - INDARKERIA

<p>JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<p>> Tutoretzapeko etxebizitza gehiago.</p> <p>> Alokairu sozial gehiago.</p> <p>> Egoera horretan dauden emakumeentzako enplegu babestua (independentzia ekonomikoa sustatzeko).</p> <p>> Genero-indarkeriari buruzko hausnarketa-taldeak, emakume migratu eta autoktonoekin.</p>
<p>BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>	<p>- Jendearentzako eta profesionalentzako sentsibilizazio-kanpainak; Detekzioa (balizko biktimak eta erasotzaileak).</p> <p>- Zaintzaileei laguntzeko esku-hartzeak (adibidez, estresaren kudeaketa, errelebo-laguntza).</p> <p>- Egoitzetako arretari buruzko politikan eragin, arretaren maila zehazteko eta hobetzeko.</p> <p>- Dementziari buruzko prestakuntza, zaintzaileentzat.</p>
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<p>Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan eta laguntzan esku hartzen duten profesionalak aniztasun funtzionalaren inguruko ezagutza izatea bermatzea.</p> <p>Justizia-sistemaren eskaeretara egokitzen laguntzeko protokolo eta prozedurak modu egokian diseinatzea, aniztasun funtzionala duten emakumeen egoera aintzat hartuz.</p> <p>Bide honetan bada Emakunderen dokumentu bat non desgaitasunen bat izan eta indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiterako orduan, haien arreta hobetu, ahaldu eta bizitza independentea sustatzea xede duen esku-hartzea emateko profesionali zuzendutako jarraibideak jasotzen diren.</p> <p>Desgaitasunen bat duten emakumeak pixkanaka desinstituzionalizatzea bultzatuko duen programa bat diseinatu behar da, ahal den kasu guztietan, etxeko laguntza-zerbitzuak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak sustatuz.</p>
<p>FAMILIA ANITZAK</p>	<p>Guraso bakarreko familiazat hartuko dira ardurapean seme-alabak dituen eta genero-indarkeria sufritu duten emakumeak buru dituzten familiak, laguntzak eskuratzea errazteko modu gisa.</p>
<p>TRANSEXUALAK</p>	<p>Polizia ezberdinetako agenteei transexualitateari buruzko prestakuntza ematea, transexualak behar bezala tratatzeko, identifikazioetan, miaketetan...</p>
<p>SEXU-LANGILEAK</p>	<p>Sexu-langileek zaugarritasun handiagoa jasaten dute genero-indarkeria jasan ondoren.</p> <p>Tutoretzapeko etxebizitza gehiago</p>

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

	Sexu-langileek lanean jasan ditzaketen erasoak genero-indarkeriatzat hartzea. Genero-indarkeriari buruzko hausnarketa-taldeak, sexu-langileekin.
GURUTZE- GORRIA (POBREZIA)	(Gurutze Gorriak ez du zuzenean genero indarkeriaren biktimekin lan egiten).

GIZARTE-INKLUSIOA

<p>JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<p>> Egoera administratiboa erregularizatzeko zailtasunak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erroldatze soziala izateko aukera, alokairu-kontraturik izan ez arren. Udaletik formularen bat bilatu (Zubian egiten den antzera). <p>> Integratzeko eta bertako pertsonak ezagutzeko zailtasunak. Herritartasuna duinki bizitzea eragozten dieten arrazakeria eta xenofobia-egoerak gainditzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jende berria ezagutzeko topaketak, kulturarekin, kirolarekin, artearekin edo bestelako intereseekin lotutako ingurune aberasgarrietan. • Kultur artekotasunari lotutako web orri osoago bat izatea udaletxean, proiektuei, ekimenei eta abarri buruzko informazioa hainbat hizkuntzatan eskaintzeko.
<p>BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuak deszentralizatzea, auzoetara hurbilduz. - Ibilbide pertsonalizatuak sortzea diziplina anitzeko taldeekin. - Zahartzeari buruzko kontzientziazio handiagoa lortzeko kanpainak bultzatzea. - Jaietan eta adinekoentzako zentroetan belaunaldien arteko programak sortzea. - Kulturarteko programak eta bizikidetzaz sustatzeko programak sortzea. - Emakume zaintzaileentzako laguntzak hurbiltzea.
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<p>Banakako laguntza- eta atsedeen-programak sustatu behar dira, zaintzaileen autonomia eta atsedena ahalbidetzeko, gehienak emakumeak.</p> <p>Gizonen prestakuntza sustatu behar da, zaintzaile informal gisa jardun dezaten, zeregin horietarako teknikak eta trebetasunak garatuz.</p> <p>Era berean, desgaitasunen bat duen pertsonaren bat dagoen familia-guneetan eragin behar da, bertako gizonen zaintzan bete beharreko paperean kontzientziatuz, bai eta desgaitasunen bat duten gizonen ere, zainketa arloan eta izapideak eta kudeaketak egitean erantzunkide izateak duen garrantziaz.</p>
<p>FAMILIA ANITZAK</p>	<p>Gizartearekin, oro har, eta guraso bakarreko familiekin harremana duten estamentuekin bereziki, familia-aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa landu beharko litzateke.</p> <p>Familia guztientzako gizarte-zerbitzuen sareak garatu eta finkatzea, zerbitzu horietarako sarbidea baldintza berdinetan bermatzeko, eta, beraz, oinarritzko prestazio unibertsal eta indibidualak bermatzeko.</p> <p>Fiskalitateetik lan egitea, egungo familia-aniztasunari erantzun dion fiskalitatearen alde.</p> <p>Familia bakarreko gurasoen legearen alde egitea.</p>

<p>TRANSEXUALAK</p>	<p>Gizartearekin, oro har, eta, bereziki, pertsonekin harremana duten estamentuekin, transexualitatearen eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzea.</p> <p>Formula berriak, transexualitateari buruzko azalpenik eman behar ez izateko. Gizarte-bazterketako txartel bat.</p> <p>Trans Lege berria onartzea, migratzaileek ere beren nortasuna alda dezaten.</p>
<p>SEXU-LANGILEAK</p>	<p>Egoera administratiboa erregularizatzeko zailtasunak.</p> <p>Errola soziala izateko aukera.</p> <p>Eska daitezkeen laguntzen gardentasun handiagoa.</p> <p>Erakundeak Aukerara bideratutako kasuen jarraipena egitea.</p>
<p>GURUTZE-GORRIA (POBREZIA)</p>	<p>Oinarrizko gizarte-zerbitzuen aurrez-aurreko larrialdiko arreta-gunea, erroldatuta ez dauden pertsonen gizarte-zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten.</p>

HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

<p>JATORRIA- MIGRAZIOA- ARRAZIALIZAZIOA</p>	<p>Erroldatzeko beharrezkoa den etxebizitza bat edo alokairu-kontratua eskuratzeko zailtasunak.</p> <p>> Alokairu sozialeko etxebizitza gehiago. Gizarte-bazterketako egoeran dauden familientzako.</p> <p>> Egoera ahulenean dauden emakumeentzat espresuki Tutoretzapeko etxebizitzak.</p> <p>Garraio publikoaren erabiltzaile garrantzitsuak diren emakume migratzaileen beharrak kontuan hartzea, garraio publikoaren ibilbideak eta ordutegiak diseinatzerako orduan.</p>
<p>BIZI-ZIKLOAK- ADINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitzen bizigarritasuna hobetzeko dauden laguntzak ezagutaraztea. - Garraio publikoaren erabilerari buruzko proposamenak baloratzea eta jasotzea. - Atsedenekuak planifikatzea, bankuak. - Oztopo arkitektonikoak kentzea. - Baliabideetara egokitutako sarbidea eta irisgarritasuna, dirua ateratzea, edukiontziak...
<p>DIBERTSITATE FUNTZIONALA</p>	<p>Hiri-hobekuntzan, diseinuan eta plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko egiten diren ariketetan aniztasun funtzionalaren ikuspegia ere txertatu beharra dago.</p> <p>Desgaitasunen bat duten emakumeek garraio publikoarekiko dituzten premiak aztertzeko azterketak eta diagnostikoak egin behar dira. Prozesu horietan, aktiboki hartu behar dute parte emakumeek eurek eta haien ordezkari diren elkarteek ere.</p> <p>Mugikortasunari eta garraio publikoaren erabilerari buruzko azterlan guztietan desgaitasunaren aldagaia sartu behar da, bai eta sexuarena ere.</p> <p>Erabat irisgarriak diren garraio bideen sustapena etengabe hartu behar da aintzat.</p> <p>Hiria komun publiko irisgarriekin hornitu behar da, segurtasun eta higiene-baldintza egokietan mantenduz.</p> <p>Erabilera publikoko espazioen irisgarritasun-prozesuak bizkortzeko neurriak hartu behar dira.</p> <p>Osasun, kultura, hezkuntza, aisia edota merkataritza zerbitzuak bizi garen auzoetan bertan kokatzeak desgaitasuna duten emakumeen autonomia eta ahalduak sustatzen ditu.</p> <p>Ekintza positiboko neurriak hartu behar dira, desgaitasuna duten eta baliabide baxuagoak dituzten emakumeei etxebizitza eskuratzeko laguntzeko. Eta horiek</p>

IRUNEN DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA BIZI DUTEN EMAKUMEEN GAINEKO IKERKETA

	egokituak egon behar dute.
FAMILIA ANITZAK	Etxebizitzarako sarbidean laguntzea eta guraso bakarreko familiek eskuratzeko lehentasuna duten etxebizitza publikoak sustatzea. Hobariak garraiobideetan.
SEXU-LANGILEAK	Espazio publikoan lan egiteagatik zigor ekonomikoak saihestea. Zorra barkatzea, prostituzioan ari ez bada eta/edo Gizarte Zerbitzuek artatzen badute.

BIBLIOGRAFIA

OROKORRAK

La discriminación múltiple, una realidad antigua, un concepto nuevo

Ferando Rey Martinez

Guía para incorporar la interseccionalidad en las políticas locales. Coordinador del proyecto:

Ajuntament de Terrassa

La «discriminación múltiple». Formación del concepto y bases constitucionales para su aplicación en el Perú. Liliana Salomé Resurrección

2019ko biztanleriaren urtekari estatistikoa: <https://www.irun.org/down/Anuario-Estadistico-Poblacion-2019.pdf>

<http://behagi.eus/es/indicadores/irun/p-152/>

JATORRIA-MIGRAZIOA-ARRAZIALIZAZIOA

Género, inmigración y discriminación múltiple.

Un enfoque interseccional de las políticas públicas españolas. Cristina Herranz

Diagnóstico sobre la situación de las mujeres migradas en Erandio. Farapi Koop eta Erandioko Udala

Discriminación múltiple e inmigración: huellas de discurso institucional, académico y de la población.

Miguel S. Valles Martínez, M.ª Ángeles Cea D'Ancona y Gloria Domínguez Alegría

https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/53711/1/tesis_maria_jose_escartin_caparros.pdf

Informe CEAR 2020:

https://www.cear.es/wp-content/uploads/2020/06/Informe-Anual_CEAR_2020_.pdf

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/B-2_2010.pdf

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/B-2_2010.pdf

https://www.ikuspegi.eus/documentos/formacion/La_escolarizacion_estudiantesado_origen_extranjero.pdf

Filea:///c:/Users/Erabiltzailea/Downloads/341996-Texto%20del%20art%C3%Adculo-493354-1-10-20181003%20(1).pdf/

BIZI-ZIKLOAK-ADINEKOAK

https://www.matiainstituto.net/sites/default/files/archivospdf/bakardadeak_edelbarrio_jornada_ararteko.pdf

Estatistikako Institutu Nazionala, 2018ko Biztanleria Aktiboaren Inkesta, jarduera-tasak lortutako prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera, hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?>

<https://revistaprismasocial.es/article/view/1256>

https://www.lanbide.euskadi.eus/y94-estadist/es/contenidos/estadistica/rgi_beneficiarios_territ_2019/es_def/adjuntos/12-Abendua/rgith20.shtml

https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2019/pdfs/Estudio_VG_Mayores_65.pdf

<https://extranet.who.int/agefriendlyworld/wp-content/uploads/2018/04/Diagnostico-Irun-Lagunkoia.pdf>

https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_eus.pdf

DIBERTSITATE FUNTZIONALA

Personas con discapacidad y discriminación múltiple en España: situación y propuestas. Observatorio Estatal de la discapacidad

Gai izan gaitezen: Euskal Herriko ezgaitasun eta genero zeharkakotasunari buruzko proposamena. FEKOOR

Mujeres, diversidad funcional y multidiscriminación. Sandra Candelas Tejada y Graciela Mulet López,

Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskak esku hartzeko jarraibideak. Emakunde

[Fundación Cermi Mujeres \(fundacioncermimujeres.es\)](http://www.fundacioncermimujeres.es)

<http://www.edeka.es/wp-content/uploads/2017/11/Libro-Blanco-de-la-Discapacidad-1.pdf>

Diagnóstico de accesibilidad en los hospitales de la CAPV para las personas con discapacidad del Ararteko (2017).

<https://www.boe.es/eli/es/l/2002/11/14/41/con>

INE. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua (2018)

https://elkartu.org/pdf/kultura-inklusiboaren-bidean_hacia-una-cultura-inclusiva.pdf

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/4004868/0/Informe+Igualdad+2020/18888844-fa45-5277-2750-e096a0f4cf76><https://psycnet.apa.org/record/2008-06343-001>

<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/Macroencuesta2019/home.htm>

<https://www.euskadi.eus/albistea/2019/foessa-viii-txostena-bazterketa-eta-garapen-soziala-espainian/web01-sedeeep/eu/>

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/6199/es_2284/adjuntos/IV%20PLAN%20VASCO%20DE%20INCLUSION.pdf

FAMILIA ANITZAK

Las familias monoparentales en España. Estudio realizado por: Federación de Asociaciones de madres solteras

Encuesta Continua de Hogares (ECH) publicada por el Instituto Nacional de Estadística en 2020.

Estudio de VIII Informe FOESSA sobre exclusión y desarrollo social en España”.

<http://familiasmonomarentales.es/nuestras-reivindicaciones/>

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/mas_solas_que_nunca.pdf

Encuesta Continua de Hogares (ECH)-aren datuen arabera, 2020an Estatistika Institutu Nazionalak argitaratua.

2019. Fundación FOESS. Cáritas Española Editores.

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/mas_solas_que_nunca.pdf

TRANSEXUALITATEA

La puesta en práctica de la interseccionalidad política: el caso de las políticas LGTB en Cataluña. Gerard Coll-Planas y Marta Cruells

<https://pediatrics.aappublications.org/>

GURUTZE GORRIA

<https://ec.europa.eu/eurostat>

<https://www.foessa.es/viii-informe/>

<https://www.observatorioigualdadyempleo.es/la-feminizacion-de-la-pobreza-un-fenomeno-a-nivel-mundial/>